



Goiena, 76
senideko 'famili'
batean

Aitzol Altuna
idazleari
elkarriketa



Mondragon
Unibertsitatea
—Arrasateko Ointxe!
saskibalo klubaren
gizonezkoen talde
nagusia—, Zilarrezko
LEB Mailara igotzeko
datorren astean
Saloun jokatu
dituzten partiduen
atarian.

ZILARREZKORA HELTZEA AMETS

Saskibaloiko Zilarrezko LEB Maila du helburu
Mondragon Unibertsitateak; Saloun du aukera / 38

ANGEL AYASTUY

**Sarean dago 'Goiena
0km gida': gremioen,
komertzioen,
profesionalen, eta
abarren leihoa / 4**

SINADURAK

	AGURNE JULDAIN / 8		XABI GESALAGA / 35
	JOSU ZUGASTI / 13		AINZANE OIARBIDE / 48

2 mó
bat eguzkitakoa izan daiteke
99€
+
ukipen-lenteak opari

Kontratatuta optikan kanpainaren ezagueriak.



www.multiópticas.com

Rocio Crusset


Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA


MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA

**Bailarako herrien intzidentzia tasa**

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA



Neurri murriztaileen edo eskubideen aldeko hautua, epaileen esku

Alarma egoeraren bukaeraren harira dekretua landu du Jaurlaritzak, eta zirriborroa helarazi dio EAEko Auzitegi Nagusiari. Fiskaltzak, baina, ez du begi onez ikusi eta txostena osatu du. Auzitegi Nagusiak gaur bertan emango du aditzera epaia

Maialen Santos ARRASATE

Domeka honetan, maiatzaren 9an, bertan behera geratuko da urriaz geroztik Espainia osoari eragiten dion alarma egoera. Inigo Urkullu lehendakariak hori luzatzeko eskatu zion Madrilgo Gobernuari duela bi aste, baina ez du erantzunik jaso, eta, hori dela eta, Jaurlaritzak dekretu bat lantzen ari dela azaldu du asteon: "Ez dakigu zer egin-gin duen Espainiako Gobernuak, eta guri dagokigu hurrengo lauzpabost asteetarako neurriak argitaratzea".

Jaurlaritzaren dekretuaren zirriborroan jasotzen denez, mugimenduei, bilkurei eta ordutegiei lotutako arau murriztaileak mantendu nahi dira. Hori, ordea, ez du begi onez ikusi Auzitegi Nagusiko Fiskaltzak; izan ere, haren arabera,

"ezinezkoa" da eskubide konstituzionalak mugatzea alarma egoeraren estaldurarik gabe. Beste modu batera esanda, itxiera perimetrala eta etxeratze agindua mantentzearen aurka agertu da Fiskaltza, eta txosten bat egin du Auzitegi Nagusiak azter dezan. Atzo egin zen azterketa hori, eta gaur jakinaraziko dute epaia.

Epaia edozein izanda ere, Urkulluk aurreratu du men egingo diola eta Auzitegi Nagusiaren bermea duten neurriak baino ez dituela jasoko dekretuan: "Beti errespetatu dut auzitegiek esaten dutena. Fiskaltzaren jarrrera ezagutzen dut, eta ez dut beste ezer esateko". Hala, lehendakariak gehitu du ez duela Auzitegi Gorenera jotzeko asmorik, nahiz eta Madrilgo Ministroen Kontseiluak hori egin

ahal izateko errege dekretu bat onartu duen aste honetan, erkidegoen "ziurgabetasun juridikoari" erantzuteko.

Gauzak horrela, gaur jakinaraziko da Auzitegi Nagusiaren epaia, eta horren ostean batuko da LABiren Aholku Batzordea, dekretua behin betiko itxeko eta, ondoren, lehendakariak sinatzeko.

POSITIBO BERRIAK

AZKEN ASTEAN 184 KORONABIRUS KASU POSITIBO BAIEZTATU DITUZTE BAILARAN

Joan den eguenetik eguazten honetara arte, 184 debagoiendar kutsatu ditu koronabirusak, joan den astean baino 112 gutxiago -296 izan ziren-. Herrika,

Oñatik hauteman ditu azken zazpi egunetan kutsatu gehien (51), eta jarraian daude Arrasate (43), Bergara (33), Aretxabaleta (26) eta Eskoriatza (21). Gainontzeko herrietan hamar kasutik behera izan dituzte, eta Leintz Gatzaga izan da joan den eguna ezkerro positiborik baieztatu ez duen herri bakarra.

Leintz Gatzaga eta Aramaio salbu, eskualdeko herri guztiek jarraitzen dute Osasun Sailak markatutako mugatik gora -400eko intzidentzia-tasa metatutik gora-. Asteleheneko ebazpenaren arabera, Leintz Gatzagan eta Aramaion ez daude indarrean neurri murriztaileak, ezta Elgetan ere -nahiz eta intzidentzia 400etik gorakoa den-.

INTZIDENTZIA-TASAREN EBOLUZIOA ESKUALDEKOA JAITSI EGIN DA, NAHIZ ETA LURRALDEKOEZ GAINDI JARRAITU

Intzidentzia-tasaren eboluzioari dagokionez, behera egin du lurralde guztietan, eta baita Debagoienera ere. Hain zuzen, eskualdeko azken hamalau egunetako 100.000 biztanleko intzidentzia-tasa 800etik jaitsi zen martitzenean, eta 740,63an kokatu zen bart. Gipuzkoakoak, oraindik ere, haren azpitik jarraitzen du, baina 700etik jaitsi da azken egunetan; atzo, 592,54an kokatu zen. Bizkaian (443,85),

Arabaren (320,71) eta Nafarroan (302) motelagoa izan da jaitsiera.

Datuek beheranzko joera hartu duten arren, Gotzone Sagardui Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak ez du berretsi nahi izan olatu aldi honetako okerrera pasatu denik: "Nahiko nuke hori esan, baina erne eta zuhurtasunez jokatu behar dugu". Gaineratu du zenbaki handiak direla oraindik: "Birusa gure inguruan indarrez dabil eta kontuz ibili behar dugu".

Ildo horretatik, gogora ekarri du segurtasun neurriak hartzen jarraitu behar dela eta "maiatzaren 9a goizegi" dela neurri horiek "bertan behera uzteko". Sagarduiak derrigorrezko jo du mugikortasunarekin lotutakoei eustea: "Mugikortasunak mugatuta jarraitu behar du".

TXERTAKETA-PLANA

INOIZKO PERTSONA KOPURU HANDIENARI EMAN DIOTE TXERTOA ASTEBURUAN

Osasun Sailak astelehenean argitaratutako datuen arabera, EAEn 622.987 lagun dira txertoaren lehenengo dosia bakarrik jaso dutenak eta 240.915k jaso dituzte biak. Bestetik, 18.658 dira Janssen-en ziztada bakarrik hartu dutenak edota protokoloak aginduta dosi bakarrik jaso behar izan dutenak. Osasun sailburuak

Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Oñati	51	84	1.326	115,63
Arrasate	43	93	2.983	135,09
Bergara	33	53	1.539	102,35
Aretxabaleta	26	28	755	106,64
Eskoriatza	21	19	385	93,83
Antzuola	5	8	231	106,01
Aramaio	3	0	154	104,05
Elgeta	2	11	64	56,59
Gatzaga	0	0	9	36,00
GUZTIRA	184	296	7.446	114,89

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

jakinarazi du, guztira, aurreko astelehenetik hasita, 160.000 dosi baino gehiago izan direla aste-beteen jarritakoak, eta "erritmo horri eutsi" nahi zaiola. Hain zuzen, joan den asteburuan inoizko pertsona kopururik handiena txertatu zuten EAEn: 103.839 lagun, hain zuzen. Era berean, Debagoieneko Ospitalean ere "gelditu barik" aritu ziren lanean, eta Debagoieneko ESItik zehaztu dute 2.300 txerto jarri zituztela bi egunetan.

Une honetan, 70 eta 79 urte bitartekoak eta 60 eta 69 urte bitartekoak ari dira txertatzen -Pfizer eta AstraZenecarekin, hurrenez hurren-, eta, aurreko asteko txerto kopuru bera jasoz gero, aste honetan jarriko dizkiete talde horietako guztiei lehenengo dosiak, Gotzone Sagardui azaldu duenez.

PRC PROBAK

LISTU BIDEZKO PCR PROBAK EGINGO DITU OSAKIDETZAK, KASU JAKIN BATZUETAN

Osakidetza Diagnostiko Biologikoko Sareak "azterlan zehatza" egin duela azaldu du asteen Sagardui Legebiltzarrean: "815 lagin aztertu dira eta ikusi da test-mota horrek aukera ematen duela aztertutako kasuen %90ean, kolektibo desberdinetako pertsonengan, birusa detektatzeko". Nasofaringeko probek eragiten dituzten eragozpenak saihestuko dira teknika horrekin, baina arnasbidetik lagina atera ezin zaien pazientekin edo Zaintza eta Miaketa Sareak ezarritako baheketak zehaztetan bakarrik erabiliko da, momentuz.

"Egunotan 5.300 dosi jarriko ditugu, denera"

Martitzenean COVID-19a eta txertaketa kanpaina izan zituen berbaari Debagoieneko ESItik txertaketa arduradun Rosa Domingok, eta azaldu zuen "gelditu barik" ari direla lanean. Udarako 50 urtetik gorakoek txertoa jarri izatea "posible" dela uste du

M.S. ARRASATE

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, koronabirusari aurre egiteko neurriak eta txertoak izan zituzten hizpide martitzenean Kulturaren eskainitako hitzaldian. Debagoieneko ESItik erizain Joserra Bardecik eta txertaketa arduradun Rosa Domingok aritu ziren berbetan.

COVID-19aren jatorriaren, sintomen eta prebentzio neurrien gaineko xehetasunak eman zituzten, lehenengo eta behin, eta gero, txertoen nondik norakoak azaldu zituzten bi erizainek. Rosa Domingoren esanetan, baliteke AstraZeneca txertoari buruz esandakoak direla zenbaitek txertoa jartzeko beldurra izatearen eragile, baina "seguruak" direla dio, eta horrek dakartzan onurak kalteak baino gehiago direla: "Informazio fluxu handia dago, eta, norbanako bakoitza ezberdina den heinean, denetarik dago; normala da batzuk beldur izatea".

Udarako, aurrerapausoak

Txertatze kanpainarekin lotuta, Iñigo Urkullu lehendakariak adierazi du txerto nahikoa izanez gero asmoa dela uda aurretik 50 urtetik gorako herritarrek txertoa hartuta izatea, eta Rosa Domingok esan zuen egun duten



Rosa Domingo, martitzenean, Arrasateko Kulturaren. TXOMIN MADINA

erritmoarekin helburu hori betetzea "posible" ikusten duela.

Asteon, 5.300 dosi

Adierazi zuen egunotan gelditu gabe dabilazala txertoak jartzen, eta, hain zuzen, egun hauetan, denera, 5.300 txerto jarriko dituztela: "Zapatuan eta domekan txertaketa masiboa egin genuen Debagoieneko Ospitalean; bi egunetan 2.300 txerto jarri genituen. Asteazkenean beste 3.000 txerto jarriko ditugu, gainera". Gaineratu du "gelditu barik" ari direla lanean.

Edozelan ere, Domingok gogora ekarri gura izan zuen txertoa ez dela egungo egoeraren amaiera, eta, ondorioz, hori hartuta dutenek ere prebentzio neurriak "errespetatu" behar dituztela oraindik ere. Ildo horretatik, Bardecik gogora ekarri zituen prebentzio neurriak, eta, batez ere, leku itxietan jende askorekin ez elkartzeko gomendioa helarazi zien entzuleei: "Koronabirusaren aurka babes-tuta egoteko beharrezkoa da herritarren kopuru handienak txertoa jarri izatea".

LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA DEBAGOIENEAN ATE IREKIAK

ARETXABALETAN:
Maiatzaren 19an, 18:00etan

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALETAK
☎ 943 79 79 00 / Whatsapp: 688 811 489
la@aretxabaleta.com
www.ale-aretxabaleta.eus

BERGARAN: Maiatzaren 20an,
10:30ean, 12:30ean, 16:00etan eta 18:00etan

MIGUEL ALTUNA LHII Bergara
Agirrebidea, 2 • 20570 BERGARA
☎ 943 899 270 / 943 899 271
info@maltuna.eus
www.maltuna.eus

Etorkizuna
zure esku

Fp ikasLAN
Gipuzkoa

OÑATIN:

Maiatzaren 18an, 18:30ean
Maiatzaren 22an, 11:00etan

ONATI
Institutua
Larrañaga 18 • 20660 OÑATI
☎ 943 899 300
info@onati.net
www.onati.net

Oñati Institutua
Larrañaga auzoa, 18 • 20660 OÑATI
☎ 943 899 300
info@onati.net
www.onati.net

2021-2022 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA: Maiatzaren 31tik ekainaren 18ra

Jone Olabarria ARRASATE

Debagoieneko negozio eta komertzioekin harremanak estutu eta horiei bultzada emateko helburuarekin iritsi da *Goiena 0km gida* berritua bailarako etxe eta mugikorretara. Debagoieneko komertzio eta zerbitzuen "gidarik osatuena eta eguneratuena" da, eta, azken urteetan bezala, erabiltzaileei zerbitzurik onena eskaini eta egoerara egokituta dator aurrean ere. Hala azaldu du Goienako zuzendari komertzial Mireia Larrañagak: "Bailaran dagoen guztia *Goiena 0km gida*-n dago. Dauden negozio guztiak gidan agertzen dira, denda, enpresa edo industria izan".

Kalitatezkoa, zero kilometrokoa

Herrietako denden urteetako aldarrikapena den arren, COVID-19ak eragindako krisi sozialak azaleratu baino ez du egin beharra: tokiko merkataritza eta zerbitzuak dira herrien bizia eta indarra. Herritarrek ez dute inoiz hainbeste baloratu tokikoa, gertukoa, zero kilometroko produktua.

Komunitatea sortu eta komunitate hori mantentzeko ezinbesteko tresna dira merkatu txikia eta baserritarren produktuak, baina horiek guztiak ahalbidetuko dituen sare eta komunikaziorako tresna sendoen beharra ere sentitu du gizarteak. Goienaren gidak ere behar horri erantzuna eman nahi izan dio, 2021erako gida berritu, osatu eta egokitua eskainita: *Goiena 0km gida* berritua.

"Gure ingurua, gure Debagoienean, gertuko hedabidea Goiena izanda, ikusi dugu gure izaeraren parte ere badela zero kilometroa oraindik eta gehiago lantzea. Azken batean, Goiena ere bertan dago, eta bertakoa kontatzen dugu", azaldu du Goienako zuzendari komertzial Mireia Larrañagak.

Mugikorrek, ezinbesteko

"Denok dakigu pandemiak al daketa garrantzitsuak eragin dituela digitalera begira, eta, zer esanik ez, negozio txikiei begira. Berrikuntza bide horretatik joan behar dela argi dugu, eta oinarria bertan jarri nahi izan dugu, euskarri berriarekin".

Mugikorretan ere jarri nahi izan dute fokua, eta, hain zuzen, Larrañagak azaldu duenez, "mugikorretik kontsulta bat egiten



Goiena aplikazioak dakarren QR irakurgailuaren bitartez komertzioen eskaintzak ezagutzeko aukera dago. J.O.

Zero kilometroko gida, eskura jada

Lau euskarritan erabilgarri, Debagoieneko komertzioen eta zerbitzuen gidarik osatu eta eguneratuena da 'Goiena 0km gida'. Ohiko paperezko bertsio klasikoaz gain, digitalizazioan aurrerapauso bat eman du gidak, aplikazioari eta QR irakurgailuei esker

duzunean, zuzenean bertara deitzeko aukera dago. Aspalditik hori eskaintzen genuen arren, gaur egun guztiz beharrezkoa da, *Goiena.eus*-en sartzen diren erabiltzaileen gehiengoak mugikorretik sartzen baitira".

Lau euskarritan, nahieran

Berritasun gisara, aurtengo gida lau euskarritan jasota dago, eta guztietatik iritsi ahal izango da *minisite* plataformara, QR kodeei esker. "Plataforma horrek erakusleho gisako lana egiten du; izan ere, horren bitartez komertzio bakoitzak eskaintzen

"HERRITAR ASKO GERTURATU DIRA ETA KOMERTZIOA EZAGUTU DUTE PANDEMIAN"

BEA ETXABE,
IBAI-ARTE

dituen produktuak ikusi ahal izango da, aurrez merkataria berak bertan sartuta. Debagoienarrek eskaerak egin ahaliko dituzte *minisite*-aren bitartez", zehaztu du Mireia Larrañagak. Horrez gain, gustuko produktuen erreserbak ere egin ahal izango dira, eta dendariekin harremanetan jartzeko modua ere eskainiko du, aurretik dendariak aukeratu-tako formatuarekin; telefono deia, posta elektronikoa, WhatsApp... Gainera, bezeroek produktuen balorazioak emateko aukera ere izango dute.

"DISEINU BERRITUA DU GIDAK, AUKERA GUZTIAK BATZEN DITU BEZEROARENTZAT"

MIREIA LARRAÑAGA, GOIENAKO
ZUZENDARI KOMERTZIALA

Helburu nagusia bezeroa online fisikora gerturatzea dela azaldu du Larrañagak: "Nahiz eta lehenengo harremana edo eskaera online bidez egin, helburu denda fisikora erakartzea da, azken salmenta hori bertan gauzatzea".

Dinamismoan irabazi

Minisite-a aurretik bazen ere, Larrañagak azaldu du plataforma berriak dinamismoa irabazte duela: "Oinarria lehenengo bera den arren, diseinu berriarekin dator. Orain, aukera guztiak ditu; lehen, erakusleho bat bai-

"MERKATARITZA TXIKIAK ASKOZ ZAILAGOA DU EZBERDINTZEA"

VILMA SOTO,
TXANDA ELKARTEA

no ez zen, eta orain, ordea, bese-telako ekintza batzuk egiteko aukera ematen du. Edozein herritarrek eskariak eta erreserbak egiteaz gain, zalantzak argitze-ko bidea ere izango du".

Paperetik sarera, zuzenean

QR kodeen presentzia "nabarrena" da gida berrituan. Bere bertsio "klasikoa", hau da, paperezko gida, GOIENA aldizkaria jasotzen duten etxe guztietara helduko da, urtero bezala. Aurrean ere hiru ediziotan kale-ratu dute: Oñati; Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaio; eta Bergara, Antzuola eta Elgeta.

Aurtengo berrikuntza nagusi diren QR kodeei esker, baina, paperezko gida onlinearekin lotzeko aukera dago. Izan ere, aldizkarian, komertzio bakoitzaren ondoan ageri den QR horrek *minisite*-ra bideratuko du erabiltzailea.

Komertzioen kanpoaldean

Paperezko gidatik soilik ez, kaleran bertan ere aukera dago zuzenean dendariari buruzko informazioa eskuratu eta berekin harremanetan jartzeko. Izan ere, Debagoieneko komertzio bakoitzari erakuslehoan itsasteko QR kode bat emango dio Goienak. Bezeroak komertzio horrek kanpoaldean duen kodea eskaneatu eta plataformara sarbide zuzena izango du.

Aplikazio bitartez

Goienaren aplikazioan ere eskuragarri dago gida komertziala, eta hortik ere sar daiteke *minisite*-ra. "Aplikazioaren gidaren atalean hainbat aukera eskaintzen dira, hala nola dendariari telefonoz zuzenean deitzea, mapa bitartez komertzioaren kokapen zehatza ezagutzeko aukera, baita denda horren produktu edota zerbitzuak ezagutzeko".

Komertzioen eta produktuen eskaintzarik osatuena izateaz gain, aplikazioaren bitartez *Goiena 0km gida* berritura joanda abantaila bereziak ere eskaintzen ditu, hala nola deskontuak bailarako dendetan, ostatuetan eta jatetxeetan eta eskaintza bereziak eta opariak.

Webgunean ere eskura

Goiena.eus/gida webgunean sartuta ere kontsulta daiteke gida, orain arte moduan.

Merkatarientzako abantailak

Minisite-a une oro berrituta eta azken eskaintzekin osatuta egongo dela zehaztu du Larrañagak: "Edozein webgune bezala, merkataria bere profila sortzeko aukera izango du, eta bertan bere panela. Panelean bere produktuak jarri eta ezaugarri edo prezioak zehaztu ditzake, lehen zenbat balio zuen eta oraingo prezioa; promozioa egiteko bidea izango du".

Merkatarien egoera

Merkatariek digitalizazioak dakartzan erronkak "zailtasunez" hartzen dituztela azaldu dute, eta pandemiak egoera asko zaildu dela azaldu du Oñatiko Txanda merkataria elkarteak Vilma Sotok: "Merkataritza txikiak eta gertukoak askoz zailago du ezberdintzea; azken batean, ezin gara enpresa handiek eta online plataformek dituzten prezioekin lehiatu. Bezero batzuek baloratzen dute gertuko tratua eta pertsonalizatua, baina beste askok prezio baxuena nahi dute. Internetek asko zaildu digu egoera, baina, era berean, badakigu digitali-

zazioa dela gako, eta bertan egon behar dugula".

Pandemia, "lagungarri"

Arrasateko Ibai-arte merkataria elkarteak arduradun Bea Etxaberen arabera, pandemiak gertu dagoena "baloratu" eta, hein batean, "ezagutzera eman" duela ere azaldu du: "Herrietatik ezin irtenda egoteak gurean dugunari balioa ematen lagundu du. Herriar asko gerturatu eta komertzioak ezagutzera animatu dira". Lehen pauso hori emanda, ostean asko bezero bilakatzen direla azaldu du Etxabek: "Eskaintza zabala dugula ikusi, eta gertuko tratua eskaintzen diegu, pertsonalizatutako aukerekin. Askok baloratzen dute".

Hain zuzen ere, uste du hori dela zero kilometroaren indargunea. Digitalizazioak ekarri dituen erronkez galdetuta, "esfortzu handia" egiten ari direla azaldu du: "Erronka handia den arren, horretan lanean gabilta". Bide horretan eragin nahi du *Goiena 0km gida*-k ere, digitalizazioa lagun, gertuko eta kalitatezko erantzun osatua eskainita.


'Goiena' aplikazioa, deskargatzeko prest

Lehendik Goienak bi aplikazio bazituen ere, orain bakarrean bateratuta daude Goienak eskaintzen dituen guztiak, *Goiena* aplikazioan. Sareko edukien arduradun Mirari Altubek azaldu du aplikazio "osatu, eguneratua eta erabiltzeko erraza dela: "*Goiena 0km gida*-ri garrantzia eman diogu eta bazkideak mimatu gura izan ditugu, *premium* zerbitzua eskainita".

Media, gida eta kluba

Hiru atalez osatuta dagoela azaldu du Altubek. Batetik, media dago: "Bertan jaso ditugu sortutako bideoak, albisteak eta erreportajeak, eta nahieran ikusteko aukera dago. Argazki galeriak ere ikusgai daude, eta, noski, bertatik saioetara jo daiteke eta telebista zuzenean ikusi ere bai".

Bestetik, *Goiena 0km gida* ere bertan dagoela azaldu du sareko edukien arduradunak:



Erabiltzaile bat, aplikazioak eskaintzen duen media atalean. J.O.

"Debagoieneko zerbitzuen gidarik osatuena egiten du Goienak. Paperean zein *Goiena.eus*-en kontsulta daiteke. Eta orain, berriz, aplikazioaren bitartez ere bai".

Hirugarrenik, Goiena Kluba dago. Hor jaso dira bazkideei eskaintutakoak, zozketetan zuzenean parte hartzeko aukera eta beste hainbat kontu: "Debagoieneko zerbitzuek bazkideei eskaintzen dieten abantailen berri, deskontuak, adibidez; *Puntua* deskargatu eta irakurtzeko aukera; eta bideoak eta argazki galeriak kalitate onarekin eta ur marka gabe deskargatzeko aukera".

"Deskargatu eta probatu!"


Beste hainbat kontu ere batzen ditu aplikazioak; esaterako, pertsonalizatutako aukerak eta *push*-ak edo jakinarazpenak jasotzeko: "Hori guztia ezagutzeko, onena norberak deskubritzea da, aplikazioa jaitsi eta probatuz". Hain zuzen ere, *Goiena* aplikazioa App Storen edo Play Storen eskuragarri dago jadanik.

Debagoieneko zerbitzu eta komertzioak, gertuan eta sarean

NAIARA MENDIBIL ZENBAKI AHOLKULARITZA ZERBITZUAK

"Erantzun pertsonalizatu eta azkarra ematen dugu"

"Bi arlotan bereziki ezberdintzen gaitu zero kilometroko tratua eskaintzeak. Alde batetik, egunerokotasuneko gertutasuna azpimarratuko nuke. Hau da, azkartasuna eskaintzen dugu erantzunean, bezeroaren beharrei soluzio pertsonalizatua ematen. Bestalde, tratu berdintasuna gailenduko nuke; guk enpresa, partikular eta autonomoekin egiten dugu lan, eta, denek ekonomikoki pisu bera ez duten arren, tratu bera eman eta garrantzi maila berean jartzen ditugu. Gure bezeroak ezagutu eta haiekin lan egiten dugu".



GABINO YARZA HILARION JATETXEA

"Baserritarra ez badugu laguntzen, akabo dena"

"Hasiera-hasieratik argi izan dugu gure produktuak kalitatezkoa behar zuela eta hori lortzeko segurtasuna bertako, zero kilometroko, produktuak eskaintzen zigula. Gure jatetxean onena eskaini nahi dugu, eta gertutasuna, bai tratuan, baita jaten eta gozaten dugun horretan. Aukera zabala eskaintzen saiatzen gara gure menu guztietan, baina beti kalitateari erreparatuta. Arrantzealea, baserritarra edo ekoizle txikia laguntzen ez badugu, akabo dena, bai guretzat, bai denontzat".



AINHOA GARITANO JO'KA ARROPA DENDA

"Argi dago komertzioek sarean egon beharra dutela"


"Bezeroarekin dugun harremana oso zuzena da, konfiantzazkoa; bezeroa ezagutzen dugu eta badakigu zein den bere estiloa. Dendara sartu eta nahiz eta lehen ikustaldian ezer ez aurkitu, laguntza eskaini ahal diozu, ukitu, arropa sentitu, probatu... Argi dago gaur egun digitalizatuta egon beharra dugula, online gure produktuak eskaini eta erosteko aukera izatea. Bertan ere bezero batzuek eskatu egiten dizute zerbait gordetzeko, edo galdetu egiten dute. Hala ere, ez da erraza denda fisikoa eta Internet bidezkoa biak batera eramatea".



DORLETA FERNANDEZ D'OR ESTETIKA ZENTROA

"Mugikorra da erakusleihoa: ez badago, ez da existitzen"

"Oso zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen dugu; bezeroaren behar eta ezaugarrietara moldatzen gara. Nik ez diet bezero guztiei tratamendu bera egiten; euren azala, ilea... kontuan izaten ditut. Bezeroek asko baloratzen dute eta hainbat harritu egiten dira, leku guztietan ez dutelako horrelako tratua eskaintzen. Gaur egun, mugikorra da erakusleihoa: sareetan ez bazaude, ez zara existitzen. Kaleko erakusleihoa bezala, sarekoa ere zaindu egin behar da, ezberdinduko zaituen zerbait bilatu behar da".



GERARDO URIBESALGO ARRASATE KRISTALDEGIA

"Etengabe eraldatu eta berritzen aritu behar dugu"

"Etengabe geure burua eta lan egiteko modua eraldatu eta berritzen aritu behar dugu, zerbitzurik onena eskaintzen, punta-puntako teknologia eta materiala ekarrita. Aurrez aurreko zerbitzu guztiz pertsonalizatua ematen dugu, bezero guztiek neurriar egindako soluzioak izan ditzaten. Gu moldatzen gara bezeroaren beharera, eta ez alderantziz. Urteak daramatzagu gure sektorearen buruan, eta sareetan ere gure lanaren berri ematen dugu. Garrantzitsua da Interneten egotea, bertan ere gertuko tratua eskaintzea".



Izan Bidea dinamikaren baitan urrian Arrasaten egindako ekintza. GOIENA

Euskal presoei keinua, mendi gailurretara igota

Izan Bidea dinamikaren baitan, Euskal Herri osoko 650 tontorretara irteera antolatu du Sare Herritarrak biharko. Debagoienean 28 gailur hartuko dituzte, eta argazkiak aterako dituzte eguerdi partean. Presoei "ikusgarritasuna" ematea dute helburu

Maialen Santos ARRASATE

Sare Herritarrak deituta, euskal presoen, iheslarien eta deportatuen alde Euskal Herri osoko 650 mendi tontorretara igoera egingo dute bihar, zapatua; eta Debagoienean 28 tontor hartuko dituzte, denera. Arrasateko Sareko kide Enrike Letonak adierazi du presoei "ikusgarritasuna" eman gura dietela ekintza horren bitartez, eta, ildo horretatik, herritarrei irteeretan parte hartzeko dei egin diete: "Nahi duguna da presoen egoera bistaratzeko eta ikusarazteko oraindik ere senideek kilometro mordoa egin behar dituztela espetxean daudenak ikusteko". Horretarako, eta presoei eta euren senideei elkartasuna adierazteko, argazkiak aterako dituzte igotako tontor bakoitzean.

Urriaren 3a ezkerre atzeratuta

Iazko urriaren 3ko deituta zuten Euskal Herriko mendietara igoera, baina, eguraldi txarra medio, aurtengo maiatzaren 8ra

atzeratu zuten hitzordua: "Egun hartarako elurtea iragarri zuten, eta, horrenbeste jende mugituko genuela aintzat hartuta, ikusi genuen ezbeharren bat gertatzeko arriskua egon zitekeela". Hori dela eta, hitzordua maiztzerat atzeratzea erabaki zuten, pentsatuz baldintzak hobeak izango zirela, "eta hala izango dela dirudi".

Letonak adierazi du pandemiak herritar ororen bizimodua zaildu duen era berean "zaildu" duela presoen egunerokoa ere: "Esate baterako, senideen bisitak asko mugatu zaizkie". Are gehiago, uste du araudiari jarraiki gaur egun dauden euskal preso guztien artean kopuru handi batek kalean beharko lukeela dagoeneko.

Debagoieneko mendi tontorrak

- **Arrasate. Bi tontor:** Udalatx eta Kurtzetxiki.
- **Bergara. Bederatzi tontor:** Asentzio, Landarraitx, Klabinaitz, Hirutontorreta, Intxorta, Hirukurutzeta, Kurutzebakar, Elosumendi eta Krabelinaitz.
- **Oñati. Bost tontor:** Aloña, Andarto, Arranoaitz, Artzanburu eta Orkatategi.
- **Aretxabaleta. Bost tontor:** Aranguren, Arlutz, Erlaitz, Elorreta eta Murugain.
- **Eskoriatza. Bi tontor:** Atxorrotx eta Mugarriluze.
- **Leintz Gatzaga. Tontor bakarra:** Usakoatxa.
- **Antzuola. Bi tontor:** Trekutz eta Arrola.
- **Elgeta. Bi tontor:** Azkonabieta eta Egoarbitza.



Bergarako Zubieta kalea, 30 kilometro orduko abiadura muga duela. GOIENA

Abiadura 30 kilometro ordura mugatutako dute herrigunean

Zirkulazioaren noranzko bakarrerako bide bat duten kaleetan aplikatuko da, maiatzaren 11tik aurrera

M.S/A.M. ARRASATE

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak azaroan bultzatutako Errege Dekretuari lotuta ezarriko da araudi berria, eta maiatzaren 11tik aurrera egongo da indarrean. Dekretu horren helburuak dira, besteak beste, hirietako bideetako ezbehar kopurua murriztea eta airearen kalitatean eragin negatiboa gutxitzea.

Orain arte herri barruko gehieneko abiadura 50 kilometro ordukoa bazen ere, 30 kilometro ordukoa izatera pasako da zirkulazioaren noranzko bakarrerako bide bakarra duten kale guztietan. Hala eta guztiz ere, salbuespenak egongo dira herri bakoitzaren arabera. Arrasaten, adibidez, Araba etorbidean eta Arrasate pasealekuan 20 kilometro ordukoa izango da muga, eta Aretxabaletarako irteerako zuzenean, Meka izenez ezaguna

denean, 40 kilometro ordukoa izango da baimendutako gehieneko abiadura.

Arrasaten udal langileak hasi dira dagoeneko trafiko seinaleak aldatzen eta radarrak eguneratzen. Hala ere, bailaran Bergara izan zen neurri berria indarrean jartzen lehena: urtarrilean jarri zuten martxan araudia, eta, hori horrela, dagoeneko lau hila bete daramatzate 30 kilometro orduko abiadura mugarekin herrigune osoan.

Arriskuak gutxitzea helburu

Hainbat ikerketaren arabera, ibilgailu baten abiadura kilometro orduko 50etik 30era jaitsita, harrapatze baten ondorioz hiltzeko arriskua bost aldiz murrizten da, gutxienez; dekretuaren arabera, ibilgailuaren abiadurak lotura zuzena du harrapatutako oinezkoak bizirik irauteko dituen aukerekin.

Martxoak baino 73 langabe gutxiago utzi ditu apirilak bailaran

Bailarako langabeziak behera egin du apirilean. Datuen arabera, 2.560 debagoiendar egon dira lanik gabe azken hilabeteen; martxoan baino 73 gutxiago -2.633 izan ziren-. Beste modu batera esanda, %8,21ekoa izan da erregistratu den zenbatekoa, eta, beraz, martxokoa baino %0,24 txikiagoa izan da. Alde nabarmenena Oñatin erregistratutakoa

izan da; izan ere, aurreko hilabeteen baino 44 lagun gutxiago daude langabezian. Bergaran, Aretxabaletan, Antzuolan, Leintz Gatzagan eta Elgetan ere egoerak hobera egin du, eta beste aldean leudeke Arrasate -hamar langabe gehiagorekin-, Aramaio eta Eskoriatza. Gauzak horrela, apirilean langabezia-tasa altuena izan duen herria da Arrasate (%11,33); gainontzeko herri guztietan hamarretik beherakoa da, gainera. Tasa baxuena, aldiz, Aramaiokoa da (%1,98).

"Inpartzialak bagara izango gara hedabideak sinesgarriak"

IBAN ARANTZABAL TOKIKOMEKO LEHENDAKARIA

Iban Arantzabal (Elgeta, 1975) Tokikomeko lehendakari berriak tokiko hedabideen erronkez, batera jarduteko premiaz eta kazetaritzaz dihardu



Iban Arantzabal, Goienako egoitzan, Arrasaten. JAGOBÁ DOMINGO

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE

Duela aste bi aukeratu zuen Tokikomek, toki komunikabideen bateraguneak, lehendakari berria, Eibarren. Azken lau urteetan Tokikomeko presidente izan den Jone Guenetxeak Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusi Iban Arantzabali pasa zion lekukoa.

Kargua egoera nahiko aldrebesean hartu duzu. COVID-19ak hankaz gora jarri du mundua. Tokikom ze puntutan dago une honetan?

Tokikom enpresa egonkortua da, lantalde txiki baina efektibo batekin ari da lanean. Hori ez da leku guztietan gertatzen. Badauka bere plan estrategikoa, bere misioa zehaztuta eta adostuta. Denon artean adostutakoak dira, eta horrek ere ematen du indarra. Gainera, badaukagu norabidea ere. Alde horretatik, pozik, egia esan. 2020a katramilatsua izan da. Edozein etxetarako izan den legetxe, bada, guretzako ere bai. Tokikom osatzen duten bazkide guztientzako eta, bereziki, hedabideendako.

Tokiko informazioaren kontsumoa asko igo zen iaz. Baina, era berean, krisi ekonomikoaren ondorioak edo publizitate sarrearen jaitsierak ere izan zuen eragina tokiko komunikabideen jardunean.

Bai. Batetik, poza eragin zuen. Ze bazen informazioa emateko garai bat, kazetaritza egiteko garai bat, eta horrek balio du

baita profesionalendako ere. Jartzen zaitu leku batean, non jendeak ikusi, entzun eta irakurri egin nahi zaituen. Gure webguneetako bisitak, orokorrean, Tokikomeko guztiak hartuta, %46 igo ziren. Jendea informazioaren gosez zegoen. Horri erantzun dio Tokikomek: hainbat daturekin, grafikoeekin... Gainera, egunero-egunero berrituta, izan aste barru edo izan aste akabera. Baina hori egitea kostatu zaigu %30 gehiago. Kazetaritza gastu handiagoarekin egin dugu. Pandemiak sortu zuen denbora galera lan egiteko orduan. **Horrelako egoera batean, Tokikom bezalako talde batek nola lagun diezaieke bere barnean hartzen dituen kideei?**

Ezinbestekoa izan da. Tokikomek ekarri du bateratze bat. Pandemiaren datu-bilketarekin, esaterako. Gure kasuan, gertuko mapak osatzea. Zure herriko datuak, baina ez irla bat moduan, Euskal Herria subjektu moduan hartuta. Tokikomek marrazten du Euskal Herria eta laguntzen du, erremintekin, datuen kudeaketarekin, informazioarekin... Hainbat modutara.

"TOKIKOMEKO WEBGUNEEN BISITAK %46 IGO ZIREN IAZ, PANDEMIAREN INFORMAZIOAGATIK"

Tokikomek bi kide gehiago ditu: Tolosaldeko ataria eta Bizkaiko Arratia bailarako Begitu hamabostekaria.

Erakusten du jendeak nahi duela egon Tokikomen. *Tolosaldeko ataria* Tokikomek garatutako plataformarekin ari zen lanean aspalditik; orain eman du saltoa bazkide izatera. Papereko edizio sistema baterako aukera dagoelako, telebistak egiteko modua dagoelako, kudeaketa aurreratuan

JONE GUENETXEA
TOKIKOMEKO
LEHENDAKARI OHIA

"Zorte ona opa diot Iban Arantzabali"

"Azken lau urteotan oso aberasgarria izan da Tokikomen egindako lana, baina, batez ere, talde-lana izan delako. Bestetik, euskarazko tokiko hedabideen indargunea sinesgarritasuna da, gure komunitatearekin dugun gertutasuna, hori zaindu eta horretan sakondu beharko dugu aurrerantzean, elkarlanean. Horretarako daude Tokikom eta Iban Arantzabal. Zorte ona opa diot Ibani hemendik aurrerako ibilbidean".

sartu daitekeelako gainontzekoekin batera eta gainontzekoen-gandik ikasi, berak erakutsi.

Zer azpimarratuko zenuke Jone Guenetxeak lau urte hauetan egin duen lanari buruz?

Jakin du Bizkaian ere eragiten, Tokikomen bitartez. Eta topatu ditu aliantzak erakundeetan. Lehen baino batuago daude, lehen baino hobeto egiten da lan. Ez bakarrik Bizkaian. Jonek oso ondo ordezkatu gaitu gainontzeko erakundeekin ere: Jaurilaritzarekin, Nafarroako Gobernuarekin, eta abarrekin. **Zeintzuk dira Tokikomen erronka edo eginbehar nagusiak?**

Markan eragin beharko dugu. Kanpora begira batuta agertzea ere tokatuko zaigu talde moduan, eta hainbat informazio ematea talde horretatik abiatuta ere.

Harpidetza digitala, inteligentzia artifizialaren erabilera, sare sozial handien aurrean hedabideek izan behar duten eginkizuna... Ez dira erronka makalak.

Berez tokiko hedabide batendako urrun geratu daitezkeen gai horiek gerturatzen digu Tokikomek. Dagoeneko bagoaz hiru urte lanean inteligentzia artifi-

ziala oinarri duen proiektuan. Kazetariak behar du are kazetaritza izan eta kazetaritzari are eta balio handiagoa eman. Horrekin lotuta, negozio moduan begiratu beharko dugu, nola publizitatea jaisten ari den eta nola harpidetza digitalei garrantzia eman beharko diegun...

Horrek lagunduko du kazetaritza gehiago egiten?

Kazetarien egitekoa garrantzitsua eta sinesgarria izango da istorioak ondo kontatzen baditugu, onak badira eta erakargarriak badira. BBCren galdeketa baten, %83k aipatzen du inpartzialtasuna izango dela garrantzitsua. Zertarako? Sinesgarritasuna lortzeko. Inpartziala izanda izango da hobia istorioa edota informazioa. Irakurleari emango diogu hitza berak erabakitzeke zer den berarentzako egia eta zer ez. Egia- ren bila joatea badagokigu, baina, askotan, hori baino garrantzitsuagoa da testuingurua marraztea. Ez dut sinisten jendeak zer pentsatu behar duen esaten duten hedabideetan.

Azkena: herritarrak, Tokikomeko hedabideen kontsumitzaileak.

Zero kilometroko hedabideak gara gu, eta ez herritarrendak bakarrik, herritarrek ere egin behar ditugu hedabideak. Plan-teatu behar dugu komunitate-gintza bateratua izan dadin, gure herrietako komertzioekin, gure herritarrek, gure hedabideekin...

"EZ DUT SINISTEN JENDEAK ZER PENTSATU BEHAR DUEN ESATEN DUTEN HEDABIDEETAN"



ZABALIK

AGURNE JULDAIN

Zer moduz? Ba...

Oso arrunta da "zer moduz?" galdetzea edonori, ezta? Norbaitekin topo egitean, telefonoz deitzean, mezu bat bidaltzean... Agurtu eta lehenetako galdera izaten da.

Edozein elkarrizketa hasten dugunean erabili ohi dugun galdera izaten da "zer moduz?", eta horren ondoren edozein elkarrizketa etor daiteke. Bueno, edozein elkarrizketa, baina, gaur egun, etengabe elkarrizketa guztietan edo, guztietan ez bada, gehienetan gai bakarra dugu. Aspertuta nago, benetan!

Ez dakizu zertaz nabilen? Benetan? Ni oso aspertuta nago. Aspertuta edo nazkatuta. Horrek ez du esan nahi asko hitz egiten ez dudarik gai horretaz, baina, benetan, neure buruari erronka jarri diot gai horri buruz etengabe ez hitz egiteko. Aldaketaren beharra dut. Lehen nituen elkarrizketak izateko beharra dut.

Zergatik? Zergatik ez dudan gai berari buruz hitz egin nahi etengabe? Ba, horregatik, aspertuta eta

ALDAKETAREN BEHARRA DUT; LEHEN NITUEN ELKARRIZKETAK IZATEKO BEHARRA DUT

beteta nagoelako. Egunero, orduero, minutuero, guztiekin, etengabe! Etengabe gai horri buruz hitz egiten! Nahikoa da! Goazen beste gai batzuez hitz egitera. Lehen egiten baldin

bagenuen orain ere egin dezakegu, eta nik, behintzat, ahalegindu egin behar dut beste gai batzuk, lehengo gaiak, lehengo asuntxoak... berriz nire bizitzara ekartzen. Prest nago indarrez jarrera aldatzeko eta indartsu nago erronka berri honi aurre egiteko.

Zu ez dakit, baina ni, behintzat, prest nago gai ezberdinez hitz egiteko eta "zer moduz?" galdetzerakoan betiko, gaur egungo, gai aspergarrian ez jausteko!

Oraindik ez dakizu zertaz nabilen? Benetan? Ba, orduan, zorionak! Zu ez zaude nire egoera berean eta zuk lortu duzu nik neure buruari jarri diodan erronkari aurre egitea. Nik ere itxaropena badut zuri bezala aspergarria zaidan gai horretaz ez hitz egiteko, eta, horregatik, oraintxe bertan konturatzen nabil nahiz eta gai aspergarriez hitz egiten egon ez dudala gaia aipatu ere egin. Zorionak, Agurne!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Noiz entzungo diegu?

ISA EGIGUREN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Judith Nafarroara iritsi zenean, enplegu-bulego batera joan zen, supermerkatu batean kutzazain gisa lan egin ahal izateko zer egin behar zuen jakiteko.

Urte askotako esperientzia zuen lan horretan bere herrialdean, Kamerunen.

Administrazioako funtzionarioak lan hori ahazteko esan zion, inork ez zuela kontratatuko beltza zelako, nagusiek lapurreta egingo zuela pentsatuko baitzuten.

Farmattak, aldiz, ez zuen lana aurkitzeko hainbeste arazo izan, baina migratzaile

batentzat alokairuko etxebizitza bilatzea ezinezkoa dela dio. Egiten zuen telefono-dei bakoitzaren erantzuna ezezkoa zen bere azentu afrikarra nabaritzen zutenean. Behinola, Nafarroako lagun bati esan zion okupatuta zegoela esan berri zioten pisu batera deitzeko. Honek berehala deitu zuen eta erantzuna izan zen berarentzat etxebizitza libre zegoela.

Fatima Espainiako Estatuko aktibista ezaguna da emakumeen mutilazio genitalaren aurkako borrokan. Behin, Iruñean zehar paseatzen ari zela beste lagun afrikar batekin, mutil bat gelditu zitzaion ACNUReko txaleko batekin. Elkarteko bazkide

egitea eskaini zien. Orduan, handik pasatzen ari zen emakume bat oihuka hasi zen: "Beltz horiek ez dizute ezer emango! Laguntzak jasotzeko bakarrik daude hemen! Ez dute lanik egiten, ez dute ezer egiten, eta hemengo jendeaz baliatzen dira!". [...]

Emakume hauek nekatuta daude migratzaileak integratzen ez direla entzuteaz. Esaten dute hizkuntza eta kultura ikasi dutela, lana aurkitu dutela, baina, hala ere, ez direla integratuta sentitzen ez ditugulako entzuten, ez ditugulako kontuan hartzen.

Agian, unea iritsi da.

Post gehiago 11. orrialdean.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Ikerketek ongizatearekin lotzen dute naturan jolastea"

IÑAKI LARREA HEZKUNTZAN DOKTOREA ETA HUHEZIKO HAZITEGI TALDEKO IKERTZAILEA

Larraitx Zeberio Lekuona DEBAGOIENA
Onura asko ditu jolas libreak naturan. Hitzaldia egin zuen Larreak, martitzenean, Mariaren Lagundia zentroan.

Nola dago baso-eskolen mugimendua bailaran?

Joera badago eskoletako kanpo jolastokiak moldatzeko naturarekiko kontaktua baimen dezaten. Interesgarria da mugimendu hori. Hala ere, eskola eremutik irteteko ohitura gutxi dugu; are gutxiago, basora joateko. Salbuespenetako bat da Bergarako Mariaren Lagundia. Bertan du basoa, eta naturan murgiltzea baimentzen die.

Ezagutza zientifikorik badago?

Ebidentzia zientifiko dezente dago. Ongizate fisikoaren zein mentalarekin lotzen da naturan murgiltzea. Joanez gero umeengana, ikerketa askok lotzen dute baso-eskola ongizatearekin, sormenarekin, garapenarekin, naturaren errespetuarekin... Gauza askotarako da onuragarria.



Iñaki Larrea. HUHEZI

Adin tarte baterako da?

Kanpo espazioan erraz bete daiteke Haur Hezkuntzako curriculum. Esperientzia gehienak hor kokatzen dira. LHra ere hedatzen dira esperientzia batzuk.

Azkenean, sormenarekin, LHko curriculum naturan ere bete daiteke. **Bada formakuntza eskaintzarik gure inguruan?** Kutxa Fundazioaren Ekogunea-tik sustatzen dute.

Idea da eskolei eskaintzea natura-guneetara edo basoetara joateko aukera. Gaiaren inguruko ikastaroak ere antolatzen dituzte. Bestalde, bada baso-eskolei buruzko aditu ikastaro bat. Estatu mailakoa da, eta EAEn ere eskaintzen dute.

Baso-eskola proiektuak interesa pizten du hezitzaileen eta zentroen artean?

Jakin-min handia sortzen duen gaia dela esango nuke. Gero eta handiagoa. Aldi berean, beldurra ere badago: zikintasunari, zuhaitzetara igotzeari... Erresistentziak badaude, baina gero eta gutxiago, nire ustez. **Zeintzuk izaten dira ohiko galderak edo kezak zentroetan?** Sarritan, baliabideekin lotzen dira, baina Euskal Herrian herri askotan dago eskolatik gertu mendia topatzeko aukera. Gelatik irteteari beldurra galdu beharko genioke. Testuinguru errealean emango genuke ikaskuntza. Joera dugu, esaterako, zuhaitz motak fitxen bitartez lantzeko, baina inguruan basoak ditugu. Gauza bera gertatzen da matematikekin. Abstrakzioetik lantzen dira. Naturak eskaintzen digu aukera lanketarako, baina nola egin ere kezka iturri izaten da.

Erakundeek aldetik ze babes dago gaur egun?

Esango nuke ez dagoela haien agendan. Aurrerapausoak eman dira, baina oraindik ere beste pentsamendu bat da nagusi. Kanpo espazioei garrantzi handiagoa ematen zaie, hobekuntzak txertatzeko gidak egin dira, karpak jartzen ari dira ikastetxe askotan... Baina falta da baso-eskolei balio erantsia ematea. Oraindik ere, traba burokratiko asko daude. **Gurasoen artean gutxi batzuek egiten dute aukera hori. Zergatik zure ustez?**

Ez luke izan beharko eskola alternatiboek bakarrik eskaintzen duten zerbait. Edozein eskolak eman beharko luke aukera hori. Agian, ez da izango egunero egiten den zerbait, baina bai gehiagotan egin beharrekoa. **Erreferentzia nagusiak non daude?**

Alemanian, Ingalaterran, Norvegian, Italian... Europa osoan hedatutako eredua da. Baso-eskola ez diren zentroek ere ondoko natura-guneen erabilera egiteko kultura dute. Gurean ere poliki-poliki hasi gara bidea egiten. Donostiako Uliako baso-eskola eta Ekogunea-rekin elkarlanean ari diren ikastetxeak dira adibide.

ITURRI ONETIK

Badator Kooltur Ostegunak, baina domeketan

Kooltur Ostegunak berriro itzuliko da maiatzean. Baina ez da eguenetan izango, domeketan baizik. Eta eguerdian, gauean beharrean. Arrasateko gaztetxean, hori bai. Lau emanaldi zehaztuta dituzte. Lehenengo hirurak, domeka eguerdian, gaztetxean. Maiatzaren 16an, 23an eta 30ean. Lie Detectors, Habi & Etxekalte eta Rukula taldeekin. Azkena, egunean egin gura dute, iluntzean; eta ez gaztetxean. Amaia antzokian. Ekainaren 3an. Oraindik "guztiz itxi barik" dagoen talde batekin.

ALBISTE IZAN ZEN

2011-05-07

Sustrai-Aloña, EBA mailako taldea zela ospatzen

Arrasateko Ointxe saskibalo klubeke Mondragon Unibertsitatea Zilarrezko LEB Mailara igotzen saiatuko da datorren astean Saloun. Oñatiko Sustrai-Aloñak, ostera, EBAr igotzea lortu zuen duela 10 urte, eta herritarrekin eta zaleekin ederto ospatu zuen. Xabi Igartua entrenatzailea buru, zaleen berotasuna izan zuen taldeak, lehenbizi, Zubikoa kiroldegia lepo zela, Fundacion Baskoniari irabazita; ostean, plazan.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Sare sozialak Madrilera begira egon dira

Txiolari euskaldunen artean bolo-bolo ibili dira Madrilgo hauteskundeak:

@maia_jon: "Milaka hildakoren gainean dantzan #Madril".

@martin_kitto: "Eta ez pentsa batzuk denak direnik. Ez baitira. #Madril".

@MikelArregiAska: "Atzoko hauteskundeak ostean, gaurko tabernako komentarioak entzun behar...".

@Drazmihailovix: "Kolare ezberdinetako agintariekin huts egin dute, marko kolektiboak sinesgarritasuna galdu du. Lehen pertsona singularrean aditx gehien jokatzeko dituen hautagaiak arrasatu egin du".

D2030: ELKARRIZKETA



Markel Arriolabengoa. JAGOBA DOMINGO



Iñaki Etxebeste. JAGOBA DOMINGO

"Jasangarritasuna bermatuko duen eredu bat behar dugu, bertako espezieetan oinarritua"

MARKEL ARRIOLABENGOA ETA IÑAKI ETXEBESTE ERREZ KOOPERATIBA

Tantai Baso Jabe Kooperatiba proiektua lantzen dihardu Errez Kooperatibak, Debagoiena 2030 ekimenarekin elkarlanean. Basogintza eredu iraultzea da helburua

Tantai Baso Jabe Kooperatiba proiektuak gaur egun basoek bizi duten egoerari erantzun kooperatibo eta jasangarria ematea du helburu.

Zein da, baina, gaur egun gure basoek bizi duten egoera?

Iñaki Etxebeste: Une honetan gure basoetan ziurgabetasuna handia da. Basogintza epe luzerako sektore bat da. Iragan hurbileko gertaera batzuek eta intsignis pinuaren ereduak erakutsi digute zein eragin izan ditza-keten klima aldaketak eta globalizazioak gure basoetan. Duela 20 urte, intsignis pinuak asko balio zuen, inoiz ez zen horrenbeste ordaindu. Bat-batean, hasi ziren haizeteak, gaitzak – banda marroia eta gorria... Eta

horrek erakutsi digu zein zaurgarria den eredu.

Markel Arriolabengoa: Beste kontu bat ere bada; hain zuzen ere, errentagarritasuna asko jaitsi dela deserrotzea handia delako. Geroz eta gutxiago lan egiten da basoan, azpikontratatu egiten da, eta gastu estruktural hori asko igo da. Bestetik, baserri inguruko jabetzak geroz eta txikiagoak dira, eta noraeza handia. Baina bada kontrako joera ere, jabe batzuk euren jabetzak handitzen ari direlako, batez ere, sektoreko latifundistak; enpresa asko barne. Horrek guztiak eredu birpentsatu beharra ekarri du.

Biodibertsitatean zein eragin dauka eredu intentsibo horrek?

M.A: Eukaliptoak erakusten digu zein agresiboa den egungo eredu. Eukaliptoaren apustua da ekonomizista. Lehenengo eta bigarren belaunaldiari, agian, emango dio errentagarritasuna, baina ziur dakiguna da lurra xahutu egiten duela. Bestetik, intsignisaren inguruan beldurra oso handia da, nahiz eta Debagoiena izan daitekeen salbuespena, kontuan hartuta banda marroiaren gaitzak ez duela horrenbeste eragin eta prezioa gorantz doala.

I.E: Intsignisaren ordez beste konifera batzuk sartu dira azken urteetan, baina kudeaketa eredu berdinpean; hau da, modelo agromiko lineal hori jarraituaz. Horrek badakigu zein arrisku duen. Behar duguna da epe lu-

zera ekonomikoki eta ekologikoki egonkortasun gehiago eman- go duen eredu.

Eredu kooperatibo edo jasangarria landu daiteke intsignis edo eukalipto jabeekin?

I.E: Bai, baina transformazio fase baten sartu beharko genuke, poliki-poliki, benetan jasangarritasuna bermatzen duen eredu batera jauzi eginez eta bertako espezieetan oinarrituta.

Bertako espezieetan dago gakoa, beraz?

M.A: Trantsizioa egin beharra dago bertako espezieetara, baina kudeaketa eredu dago gakoa. Izan ere, bertako espezieak erabiltza ere kudeaketa eredu aldatzen ez bada, berdin jarraituko dugu. Duk diogunean basogintza irauli behar dela, kudeaketaz dihardugu.

Bertako espezieak ere errentagarri dira?

I.E: Bai, noski. Bertako espezieekin etekin ekonomikoa ateratzen da, besteekin beste edo gehiago. Erresuma Batuan eta Frantzian horrelako eredu asko ditugu eta badakigu etekin ekonomikoa handiagoa dela. Notre Damme berriz eraikitzeke erabiliko den haritz bat horrelako kudeaketa sistema baten ekoiztutakoa izan da. Bada, haritz bakarragatik 13.000 euro ordaindu dira. Gutxi gorabehera, pinudi hektarea oso bat soilteagatik jasotzen dena. **Egokitzeko gaitasuna duten basoak behar direla diozue. Zeintzuk dira horiek?**

M.A: Egokitzeko gaitasuna bertako basoek emango digute. Eukalipto edo intsignis landaketek zailtasunen aurrean –gaixotasunak– egokitzapen ahalmen oso murriztua dute. Bertako espezieak landatzen ditugunean bermatzen dugu aberastasun genetiko eta espezifikoa, eta horrek dakar edozein aldaketaren aurrean egokitzeko aukera.

Hala ere, basoa ez da ekoizpen ekonomiko hutsa gisa begiratu behar...

I.E: Egurra da basoak ematen digun baliabideetako bat, baina badira gehiago. Perretxikoak, ehiza eta aisialdirako arnasguneak, esaterako. Ekosistema zerbituzten barruan daude horiek eta guk defendatzen dugun basogintzak bilatzen du ekosistema zerbitzu horiek guztiak optimizatzea.

Defendatzen duzun eredu hau zein puntutan dago gurean?

M.A: Badira gu bezala modelo hauek defendatzen dabiltzanak. Basozainak, elkarteak, Foru Al- dundiko teknikari batzuk... Ez dena sortu da sare bat edo modu antolatu bat kudeaketa eredu hau aurrera ateratzeko; ez, behintzat, Euskal Herri atlantikoan. Iratin, Aralarren eta Urbasan badaude horrelako ereduak. Ez dutenak matarrasarik erabiltzen eta bertako espezieekin ekoizten dutenak.

I.E: Euskal Herri atlantikoko basoen egoera oso larria da. Oso humanizatutako gune bat da, ez dago jatorrizko baso onik eta nahiko egoera txarrean daude. Horiek babesteko bai sortu dira elkarteak. Horietan, bereziki, babes hori nagusitzen da. Gure ikuspuntua da elikadura-subir- notasun hori bezala, materialen subiranotasuna. Hau da, ekoiztu egin behar da, baina ekoiztu behar da modu jasangarrian. Badaude moduak hori egiteko.

Zelan doa proiektua?

M.A: Interesdunen zerrenda egin dugu, inguruko ereduak aztertu... Udal pare bat interesatu dira, eta baita jabe pribatuak ere. 600 bat hektarea inguru lirateke horiek. Kooperatibaren egituraren gainean ere badihardugu lanke- ta egiten.

D2030ekin elkarlanean aritzeak zer ematen dizue?

I.E: D2030ek ematen digun aukera itzela da. Hitzaldi asko egi- ten dihardugu Debagoienetik kanpo eta hor ere jende asko dabil izena ematen. Beste eskual- de batzuetara eskalatzeke mo- duko proiektua da, zalantza barik. Ikusiko dugu zein dina- mika sortzen diren, eta, horren arabera, baliteke sare bat sortu beharra izatea etorkizunean.

"EPE LUZERA EGONKORTASUNA EMANGO DUTEN BASOAK BEHAR DIRA"

IÑAKI ETXEBESTE

"BASO JABE PRIBATU ZEIN PUBLIKOAK INTERESATU DIRA PROIEKTUAN"

MARKEL ARRIOLABENGOA

GUTUNAK

Bide publiko baten salmenta Zabolan, Aramaion

MARI CARMEN ABARRATEGUI
ARAMAIO

Bide hori 1997ko partzela-kontzentraziokoa da, eta 20 urte baino gehiago daramatza partikular batek okupatuta. Gertaera hori 2012an, 2014an eta 2015ean salatu zen Udalean, eta, erantzunik jaso ez zenez, Arartekoarengana jo zen. 2016an, Udalak jakinarazi zuen bide hori publikoa zela eta publikoa izaten jarraituko zuela. 2017an, Arartekoak bide publiko hori berreskuratzeko egindako gomendioa onartu zuen Udalak. Eta 2021ean, Udalak bide

hori 20 urte baino gehiago daramaten pertsoneri saltzea erabaki du.

Argi dago Udalak ez duela bere idatzizko hitza bete; dena dokumentatuta dago udaletxean. Gertaera horiek nahita ezkutatu dira bide hori saltzeko prozesuan, eta Aramaioko herriak egia jakiteko eskubidea du. Azken zortzi urteotan, bakarrik egon gara ondasun publiko horren defentsan; auzoko, Udaleko eta Aldundiko inork ez gaitu babestu. Botere abusu argi baten aurrean gaude, hau benetako jauntxokeria bat da. Onartezina da XXI. mendeko Euskal Herrian horrelako ekintzak gertatzea. Bide hori publikoa izaten jarraitzea eskatzen dugu, beti izan den bezala. Ez dadila saldu, ez dadila erosi.

GUTUNAK: Karaktetarak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Helarazteko: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

HANDIK ETA HEMENDIK

Propaganda

MIKEL P. ANSA

[HTTPS://LABUR.EUS/8C0IF](https://labur.eus/8C0IF)
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Propaganda tresna ezin hobeak dira jaiegunak: halako data jaiegun izendatuz gero, nahi gabe ere herritar guztiak enteratuko dira egun horretan zer gertatu zen. Eusko Jaurlaritza lehenago ere saiatu zen, Estatutuaren Eguna jai dekretatuta, eta orain Elkanoren Eguna inauguratuko dute, 2022ko irailaren 6an.

Inozogia litzateke pentsatzea herritarren atxikimendua lortzeko izendatzen direla jai halako data jakinak. Egun jakin bat jai izateak ez du atxikimendu akritikoa sortzen berez, eta hor daude egutegiko egun gorri horiek, frogatzeko: San Ignazio, Hispanitatearen Eguna, Espainiako Konstituzioaren Eguna, Aste Santua... Jaiegun horiek ez dituzte herritarrak katolikoago edo espainiarrago egin, eta Elkanoren Egunak ere ez du atxikimendu ezohiko bat sortuko, noski. Baina herritarrengana iristeko modu bat dira jaiegunak, sare sozial eta hedabide guztiak baino eraginkorragoak seguru asko, eta tresna hori baliatu du Jaurlaritzak. Eta pena da, mundua Black Lives Matter mugimenduaren aldarriei eta kolonizazioaren izen handien berrinterpretazioari begira dagoen honetan, Euskal Herriko garai bateko konkistatzaileek egindakoak berrikusteko aukera iritsi den honetan, Espainiako Koroaren

zerbitzura egindako espedizio kolonial bat Cadizera iritsi zen eguna *ospatu* behar izatea *autonomierkidegotarrek*. Propaganda egitea bazen helburua, ez ziren, ba, aukerak falta. Esaterako, hor ausazko bat: Zirgarien Eguna. Meritu gutxiago egin ote zuten?

Eta gerra-kazetari emakumeak?

BEATRIZ RUBIO

[HTTPS://LABUR.EUS/vm6EO](https://labur.eus/vm6EO)
'ARGIAN'-N ARGITARATUA

Apirilaren 26ko azken orduan iritsi ziren gure telefono mugikorretara bihotza hertsatu eta begietatik irten nahi duten malkoak eragiten dizkizuten albisteak. David Beriain eta Roberto Fraile kazetariak hil zituzten beren lana egiten ari zirela. Davidek berak zioenez, bere lana zen "inork entzun nahi ez duena kontatzea, gainerakoa publizitatea egitea baita".

Eta oraindik ere haserre, amorrua eta pena sentitzen genituela, maiatzaren 3an, Prentsa Askatasunaren Munduko Eguna ospatu zen.

[...] TVEk, *Los ojos de la guerra* (R. Lozano Bruna, 2011) emanaldiaren bidez, David eta Roberto eta beste hainbeste gizon kazetari omentzeko aukera baliatu zuen. Eta "gizon kazetari" esaten dut, eta ez "gizon eta emakume" kazetari, gizonetako kazetariak bakarrik egin baitzitzairen erreferentzia. Hain egun seinalatuan eta hainbeste jende gerra-kazetaritzako lan gogorra baloratzen eta ulertzen ari zela, kasualitatez, ahaztu egin

zitzaigun gerra-kazetari emakumeen lana ikusaraztea.

Kamera, grabagailua eta arkatza eskuan dituzten emakume kazetari horiek balen aurkako txalekoa, akreditazioak eta identifikatzaileak biltzen dituzte, beren lankide gizonak bezala. [...]

Jaun-andreok, berriro ere gure neska gazteei haiek ere gerrako erreportariak izan daitezkeela, ausartak ere badirela eta prentsa-askatasunaren alde borrokatzeko gai direla erakusteko aukera galdu dugu; izan ere, ikusten ez dena ez da existitzen, gerrako erreportariak ondo dakiten bezala.

Oriana Fallaci daukagu, lanbidea ulertzeko modua irauli zuena eta Vietnam, India, Pakistan eta Ekialde Ertaineko gerra eta gatazkei buruz berri eman ziguna. Rosa María Calaf ere badugu, zeinek mundu erdiko gatazkek irakatsi zizkigun, eta nerabe askok bera bezalako berriemailea izatea amestu genuen. [...]


Asko daude, asko gara. Maruja Torres, Carmen Sarmiento, Beatriz Mesa, hildako Ana Alba, Natalia Sancha, Monica Bernabé, Rosa Meneses...

Gaur, 2021eko maiatzean, zoritxarrez, Prentsa Askatasunaren Munduko Eguna aldarrikatzen jarraitu behar dugu, baita Emakumearen Nazioarteko Eguna ere.

! Post gehiago 8. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA



Zuntz optikoa, 2022ko lehen seihiilekorako prest

Prentsa agerraldi baten bitartez eman dituzte alde zaharrean zuntz optikoa jartzeari buruzko xehetasunak Udal Gobernuak eta MasMovil operadoreak; lur azpitik egingo dute instalazioa eta Udalak 100.000 euro inbertituko ditu lan horiek egin ahal izateko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasateko alde zaharrean azken urte luzeetan egon izan den arazo nagusietako batek gertu dauka irtenbidea. Hala adierazi du, behintzat, Maria Ubarretxena alkateak, asteon egin duten prentsa agerraldian. "Zuntz optikoa alde zaharrean jartzeko lanean aritu gara eta horretan dihardugu oraindik ere, badakigulako ze garrantzitsua den edonorentzat zuntza edukitzea gaur egun. Hainbat enpresarekin egon gara harremanetan, Euskaltel, Vodafone, Telefonica eta MasMovil, besteak beste, eta azken horren baiezkua jaso dugu, azkenean", nabarmendu du.

Hori dela eta, azpiegituraren instalazioak laster hasiko dituzte, lur azpitik. "Operadoreak zuntza normaltasun osoz sartuko du alde zaharrean, edozein etxebizitzatan izango balitz bezala, eta alde zaharra izateagatik dakarren gainkostua Udalak hartuko du bere gain: 100.000 euro", azaldu du alkateak.

Gainontzeko gastuak operadoreak ordainduko ditu; hau da, kableak, konexio-kaxak, eta abar. "150.000 euro inguruko inbertsioa egingo dugu, alde zaharrean dauden 1.000 etxebizitza eta negozioentzako", azaldu du Juan Marco instalazio arduradunak.



Eguazteneko prentsa agerraldiaren ostean ateratako argazkia. HASIER LARREA

Lehenik, bizilagunen baimenak

Lan horiek egin ahal izateko, ordea, bizilagunen baimena behar dute, zuntza atarietan sartu beharko dutelako. "Baimenak ahalik eta azkarren behar ditugu, obra lehenbailehen hasi ahal izateko. Bixente Etxeberria alde zaharreko alkateak bideratuko du bizilagunei informazioa hedatzea, eta Zuntza2021 plataformari eskerrak eman gura dizkiogu, informazioa bizilagunei helarazteko emandako laguntzagatik", dio alkateak. Egunotan, beraz, bando batzuk jartzen hasi

dira atarietan, eta baimenak buzoietan banatzen.

Alde zaharra, sei zonatan

Alde zaharra sei zatitan banatu dute instalazioa egiteko, eta Iturriotz kaleko goiko zatian hasiko dira lanak. "Horretarako, 45.000 euro gastatuko ditu Udalak", azaldu du alkateak.

Bigarren zatia ere aztertu dute, Maalako errebala, eta, hori landu ostean, hurrengoak segidan egin gura dituzte. "Horregatik da garrantzitsua bizilagun guztien baimenak edukitzea. Azken

batean, ordena ez dago guztiz itxita eta baimenek markatuko dute lehentasuna, behin zona bat bukatutakoan besteekin hasteko", adierazi du Juan Antonio Urdangarinek, Hirigintza Saileko teknikari-buruak.

Epeei dagokienez, dagoeneko lanak hasteko moduan daudela aitortu du Urdangarinek. "Lehenengo eta behin, buzoi guztietan banatuko dira baimenak eta hamabost eguneko epean bizilagun guztiei iritsiko zaizkie; ordutik aurrera, baimenak lortu ahala etorriko dira kontratistak".

"Diferentzia nabarmena"

Guok operadoreko kide Juanan Goñik azpimarratu du behin zuntz optikoa jarritakoan bizilagunek "benetako konexioa" nabaritu dutela eta, era berean, ilusioa egiten diela teknologia hau negozioetara ere eramateak -MasMovileko marka komertzialaren parte da Guok-. "Diferentzia nabarmena igarriko dute bizilagunek. Eguneroko lanak eta prozesuak, telelana-ekin lotutakoak, asko hobetuko zaizkie", gaineratu du.

Halaber, Jose Pozak, MasMovil enpresako sortzaileak, Udala Gobernuaren prestutasunari eman dio balioa eta gaineratu du haien proposamena ez dela bakarria izango. "Bizilagunek izango dute aukera beste operadore batzuk kontratatzeke ere".

Hainbat zailtasun tekniko

Alderdi teknikoari erreparatu, Juan Marco instalazio arduradunak azaldu du euren helburua dela bizilagun eta negozio guztiek zuntza aprobetxatzeko aukera izatea eta horretarako oinarri tekniko guztiak finkatu dituztela. Dena den, onartu du alde zaharrak hainbat zailtasun

dituela. "Arrasateko gainontzeko guneetan jartzen aritu izan gara, baina alde zaharrak baldintza bereziak ditu eta, ondorioz, konplexuagoa da instalakuntza, baldintza horiengatik eta baita etxebizitzek dituzten antzinako egiturarengatik ere".

Alde zaharra monumentu historiko gisa izendatuta dauka Jaurlaritzak eta baldintza jakin batzuk bete behar izaten dituzte halako lanek; kasu honetan, azpiegitura guztiak lurpetik joan behar izatea. "Hori izan da hemen beti eduki izan dugun arazoa, eta orain arte ez dugu lortu operadorearik, arrazoi horregatik", azaldu du Ubarretxena.

Halere, badirudi zailtasun horiek gainditu dituztela, eta, aurreikuspenaren arabera, 2022ko lehen seihiilekorako zuntz optikoaren instalazioa bukatuta izango dute alde zaharrean.

"Beti azkenak gara enteratzen"

EH Bilduk begi onez ikusi du albistea, baina Udala Gobernuari leporatu dio prentsa lehenetsi izana. "Beti azkenak gara enteratzen. Barne lanketa baino garrantzitsuagoa da argazkia Gobernuarentzat. Gai asko prentsara bideratzen dituzte lehenengo, eta gero pasatzen dira batzordetik. Horrek izugarrizko babesgabetasuna sortzen digu eta profesionaltasun falta erakusten du, gainera. Guk ez dugu babesten lan egiteko modu hori", adierazi du Maider Morras bozeramaileak.

LANAK HASI AHAL IZATEKO, BIZILAGUNEN BAIMENAK LORTU GURA DITUZTE, "LEHENBAILEHEN"

Pintaketa salatu du San Felipek

Tanatorio ez zioen pintaketa egin zuten, martitzenean, beilatokia izango den lokalean, eta idatzi anonimo bat jarri zuten ohiko eskelen gunean, besteak beste. "San Felipek pintaketa gaitzetsi du eta ez dago ekintza anonimoen jokoan sartzeko prest. Horrelako praktikek beren burua gaitzesten dute, 'harria bota eta eskua ezkutatzeko' duten izaeragatik".



SAN FELIPE ELKARLAGUNTZA

Adimen emozionala lantzeko saioa egingo dute astelehenean

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkartek antolatuta, Baika Federazioko Nekane Jacinto hezitzaileak *Nola lagundu gure seme-alabei emozioak identifikatzeko, ulertzen eta kudeatzen?* hitzaldia egingo du maiatzaren 10ean, 18:00etan, Kulturateko areto nagusian. Saioa euskaraz izango da eta sarrera libre, edukiera bete arte.

OHARRAK

Ahal Duguk, batzarra

Batzar irekia egingo dute gaur, egubakoitza, 18:00etan, Kulturateko Loramendi gelan.

Sinadura bilketa

Guraso talde batek sinadura bilketa bat jarri du martxan, Txatxilipurdi elkartek antolatzen dituen udalekueetan plaza gehiago egon daitezen eskatzeko, *Change.org* webgunean.

TAO sistema martxan egongo da uda osterako

Udalak Gertek Sociedad de Gestiones y Servicios SA enpresari adjudikatu dio TAO sistemaren kudeaketan asistentzia emateko zerbitzua, urtean 468.143,86 eurogatik –BEza barne–, sei urte eta sei hilabeteko epean; irail edo urrian jarriko dute martxan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Maria Ubarretxena alkateak aurreratu du irail edo urri ingururako martxan egongo dela TAO sistema, eta aste honetako osoko bilkuran onartu du udalbatzak kudeaketan asistentzia emateko zerbitzua. Puntu onartuta geratu bada ere, EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasate udal taldeak ezezko botoa eman dute, kontratazio publikoaren defentsa eginda. "TAO sistemaren alde gaude, baina ez azpikontratatzearen alde. Langileen lan-baldintza duinak errespetatzen diren edo ez ikusiko dugu. Orduan hausnartuko dugu ea herri honek TAO sistema publiko edo pribatu bat behar duen", adierazi du EH Bilduko bozeramaile Maider Morrasedek. Elkarrekin Arrasateko Eva Abuinek ere bat egin du jarrera horrekin. "Aurka bozkatuko dugu, kudeaketa publikoa enpresa pribatutara bideratzea ez delako guk gura dugun eredu".

Anuska Ezkurra Udal Gobernuaren bozeramaileak erantzun die kontratazioan parte hartuko duten langileei Gipuzkoako aparkalekuaren hitzarmen kolektiboa eta trafikaren ordenantza aplikatuko zaiela. "Langileen eskubide eta betebeharrak publikoak izango dira".

Kepa Urteaga, liberatuta

Bestalde, EH Bilduko zinegotzi Kepa Urteagak liberatu kargua hartzea onartu du udalbatzak, eta ekainetik aurrera, beraz, Aitor Zubiaga ordezkatzeko du kargu horretan.

Alkateak eskerrak eman dizkio Zubiagari, liberatu gisa eman dituen ia bi urteetan "egindako lanagatik, erakutsitako jarrera baikorragatik eta akordioak lortzeko prestutasunagatik", eta Urteagari, hark jarrera bera edukitzea espero duela esan dio. Azken honek eskertu egin dizkio hitzak, eta zera gaineratu du:



Herritar bat, Ferixalekuko aparkalekuan, TAO sistemaren makinaren aurrean. X.G.

Ekainetik aurrera, urteagak hartuko du EH Bilduren liberatu kargua, Zubiagaren ordezkaria

"Beti eduki izan dut jarrera baikorra eta hala jarraituko dut".

Isunak eta lan komunitarioa

Bestalde, zigor ekonomikoak lan komunitarioekin ordezkatzeko eskaera berretsi du EH Bilduk, duela bost hilabete egin zuen moduan, Eusko Jaurlaritzak pandemia garaian hainbat gazteri 1.000 euroko isunak jarri dizkiela eta hori ordaintzeko zailtasunak izan ditzaketela argudiatuz. Udal Gobernuak prest azaldu da gaiari heltzeko. "Gazte batek idatzi digu eskatuz zuek eskatzen duzuen hori, hau da, isuna altua dela eta lan komunitarioekin ordezkatzeko. Bat egiten dugu zuekin, eta erantzun diogu Udalak Jaurlaritzari eskatu diola aintzat har dezan eskaria. Prest egongo ginateke lan komunitario hori jartzeko eta prest gaude beste eredu bat

lantzeko Obrak Zerbitzuak Mantentzea eta Auzoak batzordean, oposizioarekin elkarlanean".

Maider Morrás EH Bilduko bozeramaileak adierazi du asko pozten dela Gobernuaren jarrera hori delako. "Baina guk duela sei hilabete egin genizuen eskaera, eta hausnarketa hori orduan egin izan bazenute, gazte gehiagok edukiko zuketela lan komunitarioak egiteko aukera".

Mozioaren bueltan, eztabaida

Etxebizitzaren baitako bi mozio ziren aurkeztekoak osoko bilkuran, EAJ eta PSE-EErena eta Elkarrekin Arrasaterena. Hala, adostasun batzuk lortu ostean, mozio bakarra aurkeztu dute, azkenean. EH Bilduk salatu du testua beranduegi jaso duela, eta zinegotzi batzuek irakurtzeko astirik ere ez dutela izan gaineratu. Tirabira luze baten ostean, bozkatzera pasa dira eta EH Bilduk ez du parte hartu.

Hala, EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek mozioak lantzeko beste prozedura baten beharra aldarrikatu dute. "Alderdi guztiak mahai batean eseri behar ginateke, eta hemendik ikasi, berriz gerta ez dadin".



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Euskara eta klasea

Euskararen zapalketa eta gainbehera nahiko era sinplistan irudikatu ohi da: atzerriko potentziek euskara zanpatu dute eta guk ahal duguna egin dugu eusteko, herri gisa. Ezin ukatu hori, baina auzia gertuagotik ikusita, konturatuko gara konplexuagoa dela. Esate baterako, XVII. mendean Batzar Nagusiek batzarkide izateko erdaraz jakitearen baldintza ezarri zuten, gehiengo euskaldun elebakarrari ardura postuak ukatuz. Horrela, euskal burgesia gero eta indartsuagoan, erdalzaletasun amorratua sustraitzen hasi zen eta eliteetan nagusitzen hasi ziren Goirigolzarri eta Basagoititar ospetsuak, frankismoaren zutabe bilakatu ziren oligarkak, euskara herritar pobre eta eskolagabeen hizkuntza bihurtu ahala. Gaztelania nahiz frantsesa, aldiz, jendarte kapitalistan, eliteen ezaugarri bihurtu ziren. Krisi kapitalista etengabe hauetan, faxismoaren aurrean, frankismoaren amaieran bezala, euskara askatasunarekin lotzeko erronka dugu euskaltzaleok. Etorkizunean, gakoa izan daiteke euskara alternatiba iraultzailearen ezaugarri bilakatzea; gehiengo langilearen ahots.

GORA ETA BEHERA



Txakur kakak ospitale aurrean

Herritar batek GOIENARI helarazitako kexa baten arabera, txakur kakak nonahi ikusten dira Arrasaten, eta, bereziki, anbulatorioaren eta ospitalearen aurrean dagoen zelaian. "Errespetu apur bat eskatzen dugu. Txakurraren kakak jasotzea jabearen ardura da", salatu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



GOIENA

GALLAS
Leiho eta pertsiana konponketak

PVC eta aluminioa
Ardatz aldagarriko leihoak
Pertsiana motorizatuak

617 81 38 02
gallasleiho@gmail.com

"Sei ordu azkar pasatzen dira kameraren atzean"

IGOR ALTUNA ARGAZKILARIA

Urrezko domina eskuratu du 'Trierenberg Supercup Circuit 2021' lehiaketako 'African Wildlife' kategorian, gepardo batek babuino bat ehizatzen duen unea harrapatuta

Hasier Larrea ARRASATE

30 urte daramatza munduan barrena bidaiatzen, eta azken 15 urteetan kamera eskuetan ziharduela aritu da. Argazkilaritzan egindako ibilbideaz eta jasotako sariaz jardun du.

Nola eman zenuen bidaiari izatetik argazkilari bihurtzeko pausoa?

Txoko desberdinetan egoterakoan konturatzen zara zein toki zoragarriak dauden munduan. Halako batean, otu zitzaidan kamera batekin argazkiak ateratzen hastea. Makina txiki batekin hasi nintzen, eta orain, handiarekin nabil.

Argi izaten duzu zein tokitan atera nahi duzun argazkia?

Esango nuke baietz. Lagunak izateak asko errazten du prozesua. Zambiana, esaterako, urtero joaten naiz hilabete batez, Torrelavegako lagun bat baitaukat han bizi izaten.

Zambian atera zenuen gepardoak babuinoa ehizatzen dueneko argazkia, ezta?

Hala da. Sei orduz egon ginen gepardoak ibiltzen ziren postu batean, zain. Heldu ginenerako, babuino txiki bat zegoen hilda bertan; bere anaiak hartu eta toki batetik bestera mugitzen zuen. Ondorioz, gepardoak ezin zuen ehizatu. Baina bagenekien bizirik zegoen babuinoa harra-



Igor Altuna, lanerako darabilen kamerarekin, eta argazki saritua atzean. GOIENA

pariaren atzaparretan eroriko zela, lehenago edo geroago.

Zenbat argazki atera zenituzten sei ordu haietan?

3.000 inguru. Guk beti argazki-segidak ateratzen ditugu, momentua harrapatzeko. Azkar pasatzen zaigu denbora, eta, noizean behin, lokartu ere egiten gara. Taldeka joaten garenez, beti dago norbait itzarri, argazkiak ateratzeko prest.

Zer esan nahi du halako sari bat jasotzeak?

Pozgarria da, zerbaitegatik bidaltzen ditugu argazkiak lehia-

ketetara. Ateratzen ditugun argazkiak adituek nola baloratzen dituzten jakiteko balio izaten digu argazkilarioi. Urrezko domina irabazita, ondo gabiltzan seinale!

Hala ere, ez da saria jasotzen duzun lehen aldia...

Ez; Donostiako lehiaketa bat ere irabazi nuen, esaterako. Orduan, Norvegiako Artikoa hartu zuri bati ateratako argazkiagatik saritu ninduten.

Zure argazkietan animaliak eta paisaiak ageri dira, batik bat. Natura duzu inspirazio-iturri?

Bai; natura erretratatzeko hasi nintzen, Afrikan, eta, gero, Europan eta Asian ere jardun dut; kontinente horretan pertsoneri ere ateratzea gustatzen zait. **Jendea ezagutzeko ere balio izango dizu bidaiatzeak.**

Noski! Argazkilaritzaren munduan lagunak egiteak asko laguntzen du. Asia, adibidez, ez dut ondo ezagutzen, baina Danny Yen Sin Wong izeneko lagun bat daukat han. Berak bidaiak antolatzen ditu, eta, bidaiak luze bat egitera doanean, deitu egiten dit: "Aurten, Malaysia eta Vietnam artean egingo dugu bidaiak data hauetan, bazatoz?". Eta nik: "Bai!". **Badago tokiren bat bereziki markatu zaituena?**

Kontinente bezala, Afrika; eta herrialde bezala, Hegoafrika. Han animalia espezie mordoak dago: lehoiak, likaonak, izurdeak edota baleak... denetik! Eta horri gehitu behar zaio ardo ona eta lasai egoteko tokiak dituztela han!

Urrunera joan behar da argazki onak ateratzeko?

Ez dago zertan! Hemen inguruan, Aramaio, esaterako, toki aparta da irudi ederrak harrapatzeko.

Kanpotik argazkilari ugari etortzen dira, mendiaren eta behelainoaren arteko kontrasteak liluratuta.

Ze materialekin egiten duzu lan, normalean?

Argazki makinekin eta droneekin, baina azken horiek lege baimendutako tokietan bakarrik erabiltzen ditut. Argazkiak egiteko, Afrikara objektibo luzeekin joaten naiz, eta Asiarako motzagoekin, pertsoneri atera nahi badiet. Beti sartzen dut denetik mailetan, badaezpada.

Eta badakizu nora joango zaren hurrena?

Irailean Norvegiara itzuliko naiz, hitzordua egin baitaukat hango lagunarekin. Handik Artikora bi irlatara joango gara. Han ez dago jenderik, animaliak bakarrik. Ikusiko dugu zer ematen duen bisitak!

"ARGAZKI ONAK ATERATZEKO EZ DAGO URRUNERA JOAN BEHARRIK; ARAMAIO ADIBIDE ONA DA"

Institutukoak, 'Galdegazte'-n

Peru Abarrategi bertsolari aramaioarra elkarriketatu dute Arrasate Institutuko Nerea Perez, Amaur Urkia, Garazi Barrena eta Lur Ezpeleta ikasleek. *Galdegazte*-ren zazpigarren denboraldia itxiko duen saio hori eguaztenean, hilak 12, egongo da ikusgai Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean. Ikasleek bertsolariaren bizitzaz eta kontu gehiagok galdetuko diote.



ANDER MONEDERO

bertako
Igoak | ascensores

Euskal Herria hobetzeko prest?

Bertakon emakumezkoen kirola, gutxiengoa, egokitua eta inklusiboa babesten dugu, elkarrekin Euskal Herri hobea eraikitzeko.

OROTARIKO ZERBITZUA

100 €-tik / hileko

Arrunta 70€-tik / hileko

Garaia Berrikuntza Gunea
20.500 Arrasate

943 903 450

info@bertako.eus

www.bertako.eus

Feminismoaren egoera eta etorkizuna berbagai

Mari Luz Esteban antropologo eta aktibista feminista elkarrizketatu zuen eguaztenean Maite Asensio kazetariak Kulturaten, Emakume Txokoak antolatutako 'Emakumeak protagonista' saioan; pandemiaren arrastoak kezkatzen duela aipatu zuen Estebanek

Hasier Larrea ARRASATE

1977an Leioako unibertsitatean antolatutako Euskal Herriko lehen Jardunaldi Feministek ireki zioten atea Mari Luz Estebani feminismoaren arloan orain arte egin duen ibilbide oparoa jorratzeko. Medikua, antropologoa, irakaslea eta aktibista feminista izateaz gain, *Feminismoa eta politikaren eraldaketak* saiakera eta *Andrezaharren manifestua* poesia liburua argitaratu ditu. Emakume Txokotik ez zuten zalantzarik izan Estebani *Emakumeak protagonista* saiorako gonbidapena egiteko orduan, "bere jardunak irakaskuntza, ikerkuntza, lite-



Esteban, Kulturaten MAIALEN SANTOS

ratura eta konpromiso soziala" bateratzen dituela iritzita.

Elkarrizketatuari Maite Asensio *Berria* egunkariko kazetariak egin zizkion galderak. 2014an Argia saria jaso zuen kazetari jardunean genero-berdintasunean eginiko ekarpen guztiengatik, bere konpromisoagatik eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari ematen dion garrantziagatik. 2018an, gainera, Arantxa Iraola Alkortarekin batera *Alardeak, ukatutako plazara* saiakera liburua argitaratu zuen.

Mugarriak eta erronkak

Gai ugari aletu zituen Estebanek jendaurreko elkarrizketa hartan.

Alde batetik, Euskal Herrian feminismoak azken urteetan lortutako hiru mugarri izendatu zituen: 2018ko eta 2019ko Martxoaren 8ko greba orokorrak, 2019ko azaroan garatutako V. Jardunaldi Feministak eta 2016ko sanferminetan jazotako bortxaketa kolektiboa gaitzes-teko mobilizazioak.

Gainera, berdintasun aukerarako neurri eta arauak "sustatu" direla nabarmendu zuen, eta hezkuntzan, osasungintzan eta lan arloan "aurrerapenak" lortu direla jarri zuen adibidetzat. Feministen presentzia "esparru guztietan areagotu" izana ere garrantzitsutzat jo zuen.

Hala ere, pandemiaren krisiak eta eskuin muturraren gorakadak "orain arteko lorpenen galera" ekar dezaketela uste du Estebanek. Horregatik, "erresistentzia" egitea tokatzen dela aipatu zuen hitzaldian zehar.

Hilaren 19an, kabareta

Emakume Txokoak maiatzerako antolaturiko ekitaldien artean, halaber, hilaren 19an, *Esnatu naiz* kabareta eskainiko du Andoni Mutiloak.

'Pribilegio zuria' landuko dute hilaren 15ean, Kulturaten

Arrasateko Mugimendu Feministak "arrazakeriaren eta pribilegio zuriaren inguruan hausnarketa egiteko" saio berezia antolatu du hurrengo zapatu goizerako, 10:30erako. Adierazi dutenez, Emakume Mundu Martxoaren 8. Ekintzaren baitan Euskal Herriko emakume migratu eta arrazializatuek prestatu duten materiala lantzeko balio du du lehen saio horrek. "Arazakeria eta kolonialismoa begiratu ezean, sexu-generoari buruz egiten ditugun hausnarketek ez dituzte gorputz guztiak kontuan hartuko, eta, beraz, baztertzailak izango dira", plazaratu dute mugimenduko kideek. Honako galdera hau ere bota dute: "Kristalezko sabaiaari buruz gabiltzanean, gogoan al ditugu gure lantegi edo etxeak garbitzen dituzten emakume migratuak?".

Bilkurak edukiera mugatua izango du eta *pribilegio zuria* lantzen@gmail.com helbidera idatzita eman beharko dute ize-na parte hartu nahi dutenek.



RPS: 111/20

AMAGARA

Estetika Zentroa



Iritsi dira lehen eguzki-izpiak

Gure SOLARIUMEAN prestatu

Beltzaran uniformea nahi duzu?

Aurretik, egin peelinga eta gorputz-hidratazioa

Eguzkiaz kezkarik gabe gozatu nahi duzu?

Gure aholkua eguzki-produktu espezializatuetan

Erdiko kale 54, behea 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara

Pilotaren etorkizuna, gazteenen eskuetan

Arrasateko pilota eskolak garairik loriatsuenak bizi ez dituen arren, narruzko pilotak oraindik gogor kolpatzen du Uarkapeko frontisa; irakasle berrien esanetara, 12 urtez azpiko pilotariak dira, nagusiagoen faltan, klubaren norabidea markatuko dutenak

Hasier Larrea ARRASATE

Aurten ere Arrasatek ez du Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan ordezkari izango. Duela hamarkada bat pentsaezina izan zitekeena ohitura bihurtzen ari da azkenaldian, 2018a ezkerro ez baita probintziako pilota elkarten torneo esanguratsuenean aurkeztu. Arrazoa sinplea da: kadeteen, gazteen eta nagusien kategorietan ez dago Arrasaten entrenatzen den pilotari talderik. Nahiz eta baina batzuek jokatzen duten inguruko herrietako elkarteetan, gaur-gaurkoz herriko elkartea ez da gai izaten ari 14 urtetik gorakoen artean pilotarekiko interesa mantentzeko.

Baina horrek ez du esan nahi klubeko arduradunak helburu horren atzetik ez dabilzanik; lanak eta ikasketek markatzen duten lehenetsunez gain, arazoaren iturburua zein den ondo identifikatuta dauka David Martin presidentek: "Herri honetan,



Pilotariak, aste honetan entrenatzen, irakasleen begiradapean. H.L.

zorionez, taldeko kirola egiteko eskaintza handia dago: futbola, eskubaloia, saskibaloia, errugbia... Kirolari gazteek 13 urte betetzen dituztenean, kirol bakarra aukeratu beharra izaten dute, eta hor, normalean, kirol

indibiduala, eskupilota, kasu, albo batera lagatzen dute".

Hutsune hori konpontzeko gazteekin jarrera malguagoa eduki daitekeela uste du Martin: "Besteak beste, bi kirol batera tartekatuz; adibidez, tal-

deko kirola praktikatu dezake astelehen eta asteazkenetan eta eskupilota, berriz, astearte eta ostegunetan".

Kimuak ureztatzen

"Poliki-poliki" ari dira benjamin eta alebin mailetakoko pilotariei ahalik eta formakuntza onena ematen herriko pilota klubeko arduradunak. Badakite emaitzak "denborak" ekarriko dituela: "Datorren urtean infantilak edukiko ditugu berriz ere, eta ea horiek kadeteetara heltzea ere lortzen dugun". Kopuru aldetik ikasle gehiago edukitzea nahiko balute ere, taldea "osasuntsu" dagoela dio elkarteko presidentek: "Badauzkagu monitoreak, pilota eskola erakusteko metodo egokia eta entrenamenduetan gidoi bat jarraitzeko modu bat. Txikien txapelketetan emaitza onak atera izan ditugu, baditugu baikor izateko argudioak".

Hemendik urte batzuetara Herriartekoan parte hartu ahal izatea da orain zuzendaritzak nahi duena: "Gu berriak gara, eta ez dugu txapelketa hori bertatik bertara ezagutzen, baina badakigu Arrasate tradizio handiko herria dela eta hainbatean behin txapela eskuratu izan duela; ondorioz, pena ematen digu parte hartzeko aukerarik ez izateak".

Egonkortasuna, kolokan

Pilotari berrien harrobia osatzeko lanaren erdian harrapatu

ditu pandemiak, laguntzarik eman ez dien gaitzak. "Iaztik hona bizpahiru pilotarik uzteaz gain, saio kopurua jaitsi egin behar izan dugu; partidurik ez jokatzea ere kolpe handia da guretzat", kexatu da Martin.

Izan ere, gazteek motibazioa behar dute eskupilotan segitzeko, eta, hain zuzen ere, adina garrantzitsua da: "Txikienek galdetzen digute ea zertarako entrenatzen diren, gero ez badute jokatu behar; zaharrenek, aldiz, datorren sasoiari begira entrenatzen ari direla hobeto ulertzen dute".

Hala, irailetik aurrerakoan daukate jarrita fokua Arrasate pilota elkarteko kideek, torneoei berrekiteko esperantza baitaukate. Hori gertatu ezean, "zaila" izango dute gaztetxoak konprometituta mantentzea, edozein etenaldi, uda barne, "arriskutsua" da-eta gaur egun.

Argi dago pandemia aurreko garaia nostalgiaz gogoratzen dituztela, "desiratzen" baitaude jendea frontoira berriz erakartzeko: "Ostiralero egiten genituen jaialdiak, eta Uarkapen giro aparta egoten zen".

IZENA EMAN NAHI DUTENEN "IKASTEKO AUKERA EZIN HOBEA" DUTELA AIPATU DUTE PILOTA ESKOLATIK

Final kutsuko lehia, hanka eta erdi Hirugarren Mailan jartzeko

Igoerako postuetan dagoen Mondratek bi puntu azpitik duen Usansolo bisitatuko du bihar Galdakaon

H.L. ARRASATE

Euskal Ligako igoera fasea amaitzeko hiru partiduren faltan, denboraldi hasieran markatutako helburutik oso gertu dago areto futboleko taldea. Sailkapeneko lehen biek lortuko dute Hirugarren Mailarako txartela, eta Mondrate lehia horretan sartuta dago betebetan: puntu gehien pilatu dituen bigarren taldea da, eta atzetik dauzka Usansolo bi puntura eta Leioa bost puntura.

Hain zuzen, hirugarren sailkatuaren kantsan jokatuko dute,



Gol bat ospatzen, azken partiduan. GOIENA

bihar, arratsaldeko lauretan, Jon Zabalaen esanetara dauden jokalariek. "Badakigu Usansolo talde ona dela, baina gu oso sentazio onekin goaz, jokoan zeuden azken bederatzi puntuetatik zazpi eskuratu baititugu", dio entrenatzaileak. Irabaziz gero, bost puntuko abantaila lortuko lukete, eta azken bi partiduetan puntuatzea nahikoa izango litzateke mailaz igotzeko.

Joan den domekan Musakolako kiroldegian jokatutako norgehiagokan, gainera, astindu galanta eman zioten Otxartaberi, 9-2 irabazita. Eta aurrekoan, Jarrilleros liderraren aurka berdinketa eskuratzeko lortu zuten. Datorren astean Portugaletekoen kantsara joango dira, eta, bihar etxeko lanak egiten badiutuzte, baliteke datorren astean bertan jasotzea sari preziatua.

ARTk Ordizian eta Mugarri Ingouk Urnietaren kantsan

Kanpanzar Arrasate-Ordiziak etxean, baina oraingoan Ordiziako Altamira zelaian, jokatuko du bihar, Gernikaren aurka, arratsaldeko lauretan. Errugbi-lariak azken porrotaren arantza kentzen saiatuko dira ligaxkako bigarren partiduan.

Arrasateko eskubaloit taldeak, bestalde, bihar eguerdikoko hamabietan neurtuko ditu indarrak, Urnietarekin, jaitsiera saihesteko hitzordu erabakigarrian. Joan den asteburuko joaneko norgehiagokan 35-27 gailendu zen Mugarri Ingou Iturripen, eta orduan egindako urratsa borobiltzera irtengo dira bihar, datorren sasoiaren ere Euskal Ligan jokatzea ahalbidetzeko.

Mendi Tour-ek geldialdia egingo du Amaian martitzenean

Hilaren 11n, 18:30ean hasita, 2020ko Mendi Film jaialdiko pelikula onenak ikusgai egongo dira Amaia antzokian, Besaide MEren eskutik. Guztira, lau ikus-entzunezko proiektatuko dira: Mikel Sarasola kayak gidaria protagonista duen *Aterpean ateri* laburra, Kanadan egiten den WURL lasterketari buruzko izen bereko pieza, Antoine Le Menestrel eskalatzailearen ikus-puntua batzen duen *L'escalade libérée* 15 minutuko lana eta ordubeteko *Salto is the king* pelikula, zeinetan Hegoafrikako eta Amazoniako ur-jauzi erraldoiak jaisteko bi eslovakiarren saiakera erakusten den. Sarre-rak arrasate.eus-en har daitezke.

Zeta bikotea indartsu azaldu da eszenara

Duela urtebete hasi ziren musika-bikote gisa elkarlanean Zahara Galan eta Borja Gomez senar-emazteak; joan den martxoan estreinatu ziren jendaurrean, gaztetxean, eta biharko, Aldai parkean lotu dute bigarren hitzordua: "Burugogorak garelako"

Hasier Larrea ARRASATE

Pandemiaren mugak aukera bezala baliatzen dituen musika-iririk bada herrian, Borja Gomez Diaz eta Zahara Galan Fuentes senar-emazteek erakusten duten moduan, bikote musikala osatzera ausartu baitziren iazko konfinamenduan. Ez ziren hustetik hasi, ordea, Galanek Onna Hikari *—emakume askea*, japoniarrez— izeneko bikotea osatzen baitzuen Arrasateko beste musikari batekin batera, eta Gomezek, berriz, Arrasate Musikalen formakuntza jaso du, gitarra, pianoa eta baxua jotzen ikasteraino.

"Borjak musikaren inguruko heziketa dauka eta nik, berriz, abesteko bokazioa". Horrela laburbiltzen du Galanek musikarekin daukaten erlazioa, eta, ezer baino lehen, "sortzaileak" direla argi dauka: "Nik egunez egun gertatzen zaizkidanak eta inguruan ikusten ditudanak idazten ditut, eta bikotekidearekin etxeko estudioan joaten gara musika jartzen pixkanaka". Beste talde batzuen kantuak jotzea ez dute oso gustuko, baina onartzen du salbuespen txiki bat egin zutela martxoan gaztetxean jotako kontzertuan: "Publikoak gehiago nahi, eta gure errepertorioa agortu genuelako".

Zortzi kantu, martxan

Zuzeneko hartan jotako kantu propio horiek grabatzeko aurreproduktzio fasean daude orain murgilduta: "Gasteizko produktore batekin jarri gara harremanetan, eta esan digu egiten duguna gustatzen zaiola; bilkurak egiten gabilta, ea sortu duguna modu txukunean grabatu dezakegun tanteatzen".

Kantu gehiago konposatu baidutuzte ere, hasiera baten, gaztelarazko zortzi abestiko diskoa egitea da euren asmoa. Estiloari buruz galdetuta, ez dute mota

bateko edo besteko korronterik jarraitzen: "Kantu bakoitza datorrigun modura egiten dugu". Hala ere, zerrendatu dituzte zenbait erreferente. "Borjari Gojira eta halako death metal taldeak gustatzen zaizkio; nik maite dut Zahara eta Tini Stoessel abeslariak nola idazten eta interpretatzen duten, eta, abesteko moduari dagokionez, Ariana Grande, Whitney Houston eta Adelerengan jartzen dut arreta", dio taldeko abeslariak.

Esan eta egin

Jendaurreko debutaren ostean beste kontzertu bat egiteko gogoia piztu zitzaion bikoteari, eta apirilean BAZera igorri zuten mezu bat, ea kaleko kontzerturen bat antolatzerik bazuten galdezka. Hasieran COVID-19ak baldintzatutako ezezkoa jaso bazuten ere, BAZetik maiatzean zehar deituko zietela aipatu

KONTZERTUA ANTOLATZEKO BAZ-EN ESKAERA EGIN, ETA BAIEZKOA JASO ZUTEN, AZKENEAN



Zeta bikotea, AGAKOren 30. urteurreneko egitarau barruko kontzertuan. ZETA

zieten, eta oraingoan, erantzuna bestelakoa izan da. Baiezkoa "burugogorak" izateagatik lortu zutela uste du Galanek: "Ezagunak ez garenez, borroka egitea dagokigu orain, jendeak gu hemen gaudela eta kontzertuak jotzeko prest gaudela jakin dezan, gutxienez". Kontzertua lortzeko saiakerak fruituak eman ditu, azkenean, eta Udalak Aldai parkean emanaldia egiteko aukera eman die.

"Dena" ematera

Gainera, Udalarekin "oso eskertuta" agertu dira musikariak, zapatu arratsaldean edukiko duten baliabiderik ez daukatalako momentu honetan euren eskura. Udal langileak arduratuko dira soinu ekipoa jartzeaz eta emanaldiko azpiegitura muntatzeaz; eta edukiera kontrolatzen, ostera, bikotearen senitarteko eta lagunak ibiliko dira. Aldai parkean dozenaka ikuslerentzat egongo da tokia, beraz, 18:00etan hasiko duten kontzertuan: "Jendeari gu ezagutzeko gonbidapena egiten diogu, eta talde berriei, euren helburuei jarraitzeko, garaiotan ere aurrera egin baitaiteke".



2019ko Debagoieneko Txistulari Egunean, musikariak kalejiran. GOIENA

Herriko txistularien kontzertua zapatu eguerdian Kulturaten

Arrasate Musikaleko txistulari bandako kideak eta txistu ikasleak igoko dira areto nagusiko oholtzara, 12:00etan

H.L. ARRASATE

Txistuaren doinu alaiek eta danbolinaren kolpe leunek hartuko dute bihar eguerdian Kulturateko areto nagusia, musika tresna horiek jotzen dituzten Arrasate Musikaleko bandako kideek girotuko baitute auditoriuma. Eurekin batera igoko dira oholtzara Oihan Martinez eta Markel Iragi txistu ikasleak. Bi horiek, Juan Karlos Larrea-tegirekin batera, Inazio Anso-renaren *Xamurra* eta Juan Inazio Anso-renaren *Baionako martxa* eta *Trintxerpe* piezak interpretatuko dituzte.

Musika eskolako txistulari bandaren ardura izango da Victor de Zubizarretak konposatutako *Euskal rapsodia*, Jesus Mari Bilbaoren *Nire bihotzeko habanera kuttuna* eta Boechiriniaren *Minuetoa* aurkeztea. Emanaldi horretan ez dira fandangoak, arin-arinak eta sonatxoak faltako, ezta bandako kide Domentx Uzinek konposatutako *Askabeiti* zortzikoa ere.

Urtean zehar entseguak "erregulartasunez" egiteko aukera izan du bandako txistu taldeak, eta kontzertua eskaintzeko "gogotsu" daudela aipatu dute.

Eñaut Elorrieta, 'Ausortu' sormen laborategiko gidari

Gazteak askotariko diziplina artistikoetara hurbiltzeko, horietan trebatzeko eta sormena lantzeko helburuarekin, Ttak-ek eta Txatxilipurdik *Ausortu* sormen laborategia antolatu dute 15 eta 25 urte arteko bideratuta. Tailerra modu presentzialean jorratuko dute hilaren 16an, egun osoan, Eñaut Elorrieta musikari gernikarrarekin. Musika egitasmo baten diseinua, sorkuntza eta kantuen mekanika eta kantuen deseraikuntza eta eraikuntza landuko dituzte bertan, besteak beste. Izen ematea gaur bertan amaituko da, gehienez hogeitersonarendako tokia egongo da eta matrikulak 15 euroko kostua izango du.

Gaztetxeak Lined taldea jasoko du bihar arratsaldean

AGAKOren 30. urteurreneko ospakizunak amaitu badira ere, gaztetxeako egitarauak ez du etenik izango maiatzean, thrash metal estilotik edaten duen Lined talde arrasatearra igoko baita gaztetxeako oholtzara bihar arratsaldeko seietan. Boskoteak Aretxabaletako Aury Studiosen grabatutako *Soulcrifice* diskoa kaleratu zuen iaz ekainean, eta lan horren zuzeneko bertsioa izango da kontzertura bertaratzen direnei eskainiko dena. 2009an sortutako bandak aldaketak izan ditu taldekideei dagokienez, harik eta 2018an Aitor Atxa abeslaria taldean sartu zen arte. Sarrerak 652 71 08 20 telefonora idatzita eskura daitezke.

"Emakume baserritarren bizipenak jaso ditugu"

ANE GOROSABEL BASERRITARRA

Lorabari astearren barruan, 'Erroa eta geroa' dokumentala eskainiko du Ane Gorosabel baserritar arrasatearrak domekan; ondoren, solasaldia egingo dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Sorginatxurrak taldeak eginda-ko *Erroa eta geroa* dokumentala eskainiko du Gorosabelek, 19:00etan, kultura etxean. Belaunaldi askotariko emakume baserritarrak dira filmeko protagonistak: euren esperientzia jasotzea izan da helburua. **Ze helbururekin egin zenuten *Erroa eta geroa* filma?**

Belaunaldi askotariko emakumeen esperientziak jaso gura genituen. Dokumentalean agertzen diren baserritarrak dira 30 urtetik 90 urte ingurura bitartekoak. Landa eremuan belaunaldi horietan izan den eboluzioa erakutsi gura genuen. Emakume horiek lehen plano-ra ekarri gura izan ditugu, baina ez bakarrik euren lana azaltzeko; euren bizipenak eta sentimenduak azaltzea izan da helburua.

Esan daiteke bigarren planoan geratu direla emakumeak baserri munduan?

Bai, hori baita, baina, batez ere, baserri mundua idealizatuta dagoela uste dugu. Gura izan dugu euren esperientzia jaso, esan bezala, sentimenduetatik berba egin.

Zer eskainiko duzu domekan?

Lehenengo, dokumentala aurkeztuko dugu. Orain dela urtebete eskaini gura genuen, baina, orduan ezin izan zenez, domekan eskainiko dugu. Azalduko dut zer egin dugun eta zergatik. 30 minutuko iraupena dauka dokumentalak. Ondoren, solasaldi txiki bat egin gurako genuke ikusleekin. Sorginatxurrak taldetik bakarrik joango naiz, baina saiaturiko naiz Aramaioko baserritarren bat eramaten.

Zenbat emakume baserritar elkarriketatu zenituzten dokumentala egiteko?

Hamahiru emakume elkarriketatu genituen; horien artean, Debagoieneko lau daude. Gai-



Ane Gorosabel. A.G.

"DOKUMENTALAK HAINBAT GAI JORRATZEN DITU ETA JENDEA APELATUA SENTITZEN DA"

Lorabari azoka

Biharko azokan parte hartuko duten ekoizleak:

Ekoizleak

- Ibabe gazta
 - Kerexara gazta
 - Atxeta gazta
 - Itturralde barazki ekologikoak
 - Gardoki ezti
 - Ekoudalatz mintegia
 - Tologorri marmelada eta zukuak
 - Ona olio
 - Saltus garagardoa
 - Zituene pasta ekologikoa
 - Bidezko merkataritza
- Bixente Goikoetxea plazan, 11:00etatik 14:00etara

nerakoak dira arabarrak, bizkaitarrak, Iparraldekoak... Nafarroa geratu zaigu alde batera.

Dokumentala aurkezten duzuenen, zer erantzun jasotzen duzue jendearen partetik?

Erantzun ona izaten da. Dokumentalak hainbat gai jorratzen ditu eta esan daiteke ikuslea apelatua sentitzen dela. Eztabaida politikak sortzen dira emanaldiaren amaieran.

Azken urte hau zaila izan da. Nola bizi duzue baserritarrok pandemia egoera hau?

Pandemiak jo zuenean, sustoa izan genuen, Jaurilaritzak, segurtasunaren izenean, azokak itxi zituen eta. Hala ere, hainbat eragileren eta herritarren lanari esker azokak berriro ere zabaldu ahal izan dira, eta zuzeneko salmentara itzultzeko aukera izan dugu. Esan daiteke jendeak jarraitu egin duela bertakoa kontsumitzen.

Bihar, Lorabari azoka egingo da. Hainbat ekoizle izango dira plazan. Ezagutzen duzu azoka?

Bai, ezagutu bai, baina inoiz ez dut parte hartu izan, baserrian lan askorekin ibiltzen garen garaia izaten da.

Maiatzaren 29ra arte eman daiteke izena udalekuetan

Uztailaren 7tik 23ra egingo dituzte. Begiraleak ere behar dituzte; 400 euro kobratuko dute horiek

A.E. ARAMAIO

Aurten ere, pandemiaren testuinguruan egingo dituzte udalekuak, uztailaren 7tik uztailaren 23ra bitartean. Dagoeneko zabalik dago udalekuetan izena emateko epea: maiatzaren 29ra arte egongo da horretarako aukera, *on line*.

3 urte eta 12 urte arteko umeei eta gazteei zuzendutako udalekuak izango dira, eta 10:00etatik 13:00etara bitartean egingo dituzte, esandako egunetan. Izena ematerakoan, ordaindu beharreko kopurua izango da: lehen

haurra, 70 euro; bigarren haurra, 50 euro; eta hirugarren haurra, 40 euro. Transferentzia egin beharko da, umearen izen-abizenak jarrita kontzeptu moduan: ES38 3035 0161 29 1610004897.

Horrez gain, begiraleak behar dituzte. Horien ordutegia izango da 09:30etik 13:30era bitartean. 400 euroko soldata izango dute begiraleek, eta bi formakuntza-saio jasoko dituzte, derrigor: egitaraua lantzeko ekainaren 12an elkartuko dira; eta oraindik zehaztu barik dago bigarren saioko data.

Besaideko lursailaren lagapena onartu du udalbatzak

Euskal Mendi Federazioak jabetzan duen lur eremu bat dohaintzan emango dio Udalari, zaindu eta babes dezan

A.E. ARAMAIO

Eguenean egin zuten osoko bilkuran, Besaide ingurua babestu eta balioa emateko konpromisoa hartu zuen Aramaioko Udalak. Hain zuzen, Euskal Mendizale Federazioak dohaintzan utziko dizkio Aramaioko Udalari Besaide inguruan erosi zituen lur batzuk. "1990ean, Federazioak Yoshin Ogata arkitektoaren eskultura jarri zuen Besaiden, eta hango lursail batzuk erosi zituzkion orduko Oñatiko kondeari", azaldu du Santi Balantzategi zinegoziak.

Federazioak erabaki zuen lur horiek entitate publiko bati ematea. "62.000 metro karratu dira Federazioak erosi eta Aramaioko Udalari dohaintzan emango dizkionak", dio Balantzategik. Besaide mendizale elkartek, Euskal Mendizale Federazioarekin batera, lursail horiek eskuratzeko prozesua martxan jarri zuen duela urtebete; eta orain, udalbatzak aho batez onartu du lursail hori onartzea eta alkateari baimena ematea notarioaren aurrean sinatzeko.

Eskolarako izen berriak proposatzeko epea zabaldu dute

Aramaioko San Martin eskolaren izena aldatzeko prozesuak aurrera jarraitzen du. Elkarbizitza Behatokiko kideek izen berria proposatzeko hainbat irizpide ezarri dituzte; eta, asteon, jendeak aukera izan du irizpide gehiago proposatzeko.

Hala, irizpideak kontuan hartuta, izenak proposatzeko epea zabalduko dute orain. Proposa-

menak mezu bitartez bidali behar dira, aramaioeskola@aramaioeskola.eus helbidera.

Kontuan hartzeko irizpideak dira: errespetuzkoa izatea, euskarazkoa izatea, izen bereko beste elkarte edo eskolarik ez egotea, herriarekin lotura izatea, erraza izatea, izen propioa ez izatea eta egungo garaira egokitutakoa izatea.

Proposatutako izenekin zerrenda bat osatuko dute maiatzaren 17an eta 18an. Ondoren, bozketak egingo dituzte.

"Publikoa esker onekoa izaten da horrelakoetan"

PAULA AMILBURU BERTSOLARIA

Bihar, maiatzak 8, Lesakan jokatu den Señora sariketako finalean izango da Aramaio bertsolaria. Finala ikusteko sarrera guztiak agortu dira dagoeneko

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Azken urtean plaza gutxi egin da joan zen aramaioarra Mutrikuko finalerdira. Hala ere, finalerako txartela lortu zuen, eta oso gustura ibili zela kantuan azaldu du.

Finalerdia jokatzeko gogotsu zeunden. Nola sentitu zienen Mutrikuko saioan?

Oso gustura egon nintzen. Saio oso berezia izan zen, publiko jakin bat zuena. Gainera, saioko sarrera guztiak agortu ziren; horrelakoetan, publikoa esker onekoa zuten da beti, eta bertsolarien artean giro ona izan genuen.

Bertsotan nola aritu zinen?

Saio ona izan zen eta nik oso ondo pasatu nuen. Egia da akats batzuk izan nituela, eta ez nuela espero finalerako txartela lortzea. Baina oso saio ona izan zen eta gainerako bertsolariak ere topera ibili ziren.

Lehen aldiz antolatu dute Señora sariketa. Ze helburu du?

Azkenaldian, emakume bertsolarien artean hainbat saio sortu dira; adibidez, *Ez da kasualitatea*. Baina sariketa formatu bakoak dira horiek. Honek, aldiz, lehiaketa formatua du. Egia esan, niri gustatu egiten zait lehiakortasuna... Nabarmendu behar da oso lehiakortasun sana izaten dela.

Zuk zeuk zeure burua *señora*-tzat duzu?

Bai. Ez dakit zer hartzen duen horrek bere baitan... baina bai. Beti izan diogu beldurra hitz horri. Ume batek *señora* deitzen dizunean zure gaztaroa amaitu egin dela esan nahi du. Baina *señora* hitzak emakume ahalduaren esanahia ere badu. **Finalera begira, elkartu zara gainerako bertsolariekin bertsotan aritzeko?**

Ez nabil asko. Azken bi asteetan lana pilatu zait eta ez dut astirik izan. Lehen, Aramaion entrenatzen nintzen, baina egoera ho-



Paula Amilburu bertsolaria. P.A.

"EZ DAKIT 'SEÑORA' HITZAK ZER HARTZEN DUEN BERE BAITAN... BAINA BAI, 'SEÑORA' SENTITZEN NAIZ"

netan ez nabil. Egun puntualen batean Haizea Aranarekin elkartu izan naiz.

Haizea Arana eskoriatzarra finalean izango da. Nola ikusten duzu?

Indartsua da. Maila onean dabil, eta oso dibertigarria da.

Eta gainerako bertsolariak?

Miren Artetxe ez dut bertsotan ikusi aspaldian, ez nuen izan Aramaio saioa joateko aukerarik; eta Saioa Alkaiza oso ondo dabil, betiko estiloan.

Lehen aldiz antolatu da Señora sariketa, eta harrera ona izan du.

Bai, gustatu da. Ez nuen espero horrelako arrakastarik izango zuenik. Oso pozik gaude, alde horretatik. Finala Lesakan izango da eta dagoeneko sarrera guztiak agortu dira. Ondo pasatzea espero dugu, eta saio polita egitea.

Finala online eskainiko dute

Lesakako Arranoko terrazan izango da I. Señora sariketako finala, bihar, zapatua, 17:00etan. Saioan parte hartuko dute Aramaio finalerdian sailkatu ziren Haizea Aranak eta Miren Artetxek eta Mutrikuko sailkatu ziren Paula Amilburuk eta Saioa Alkaizak. Seikotea osatuko dute ohorezko bi *señora*-k: zuzenean sailkatu dira finala jokatzeko Onintza Enbeita eta Amaia Agirre. Ainhoa Larretxea gai-jartzaileak gidatuko du saioa.

Finalerako sarrera guztiak agortu dira dagoeneko; hori dela eta, saioa online jarraitzeko aukera eskainiko dute antolatzaileek, *bertsoa.eus* atarian. Lehenengo aldiz antolatu den sariketa honek arrakasta handia izan du, eta publikoaren aldetik jaso duten babesa handia izan da saio guztietan.

Hitzaldia eta mahai-ingurua egingo dituzte Gazte Egunean

Bazkarirako txartelak Añai tabernan jarri dituzte salgai, 5 eurotan; arratsaldean musika jarriko dute parkean


A.E. ARAMAIO

Azken urte honetan ezer gutxi egiteko aukera egon da; baina, oraingoan, modu xumean bada ere, Gazte Eguna antolatzea erabaki du Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladiek. Festa ukitua izango du egunak, baina, horrez gain, hitzaldia eta mahai-ingurua ere antolatu dituzte.

12:00etan ekingo diote egunari: kultura etxean hitzaldia egingo dute. Hain zuzen, kultura bera izango dute berbagai. 12:30ean, bazkaria egingo dute, parkean. Txartelak Añai taber-

nan jarri dituzte salgai, bost euroren truke: ogitartekoa, zerbeza eta kafea izango dute bazkaltzeko. "Erritmo onean doaz saltzen txartelak", azaldu du Unai Etxenasiak, gazte asanbladako kideak.

16:30ean, solasaldia izango dute okupazio eta gune auto-gestionatuen inguruan, eta ondoren, musikak girotuko du arratsaldea. Ibiza Sound System taldeak jarriko du musika. "Distantziak gordeta eta taldeetan banatuta egongo gara", gaineratu du Etxenasiak.



ARAMAIO PILOTA ELKARTEA

Pilotariek, bi txapel Aramaiora

Araba mailako trinket txapelketako finalean, Aramaio Markel Arriolabengoa eta Iñaki Cariñanos pilotariek 30-20 irabazi zuten Txukun Lakua elkartearen aurka, gazte mailan. Arriolabengoak, gainera, eskuz banakakoan, 22-15 irabazi zuen Amurrioko Aitor Aranzoren aurka Ogeta pilotalekuan jokaturako finalean.

Maiatzerako liburu proposamena egin du liburuzainak

Liburutegiko arduradunek maiatzean zehar irakurtzeko liburu proposamenak aurkeztu dituzte. Adin tarteka egin dute sailkapena: 0-6 urtekoendako, *Untziño laguntzaile aparta eta Badauzkat nire zulo txoan*; 6-8 urte bitartekoendako, *Azken otsoa*; 12-16 urte bitartekoendako, *Mike*; eta helduendako, *El hijo del padre* eta *Mendekuaren hazia*.

Katixa Agirreren 'Amek ez dute' liburuaz solasaldia

Maiatzaren 26an, *Amek ez dute* liburuaren gaineko solasaldia egingo dute Aramaion. Hala, Txirritola Euskara Elkarteak dei egin du parte hartu nahi duenak liburu irakurtzeko denbora izan dezan. 18:00etan izango da solasaldia, oraindik zehazteke dagoen lekuan. Katixa Agirre idazlea bera ere han izango da.

Hizkuntza gutxituak eta natura, gogoetarako gai

Garabide elkarteak eta EHuko Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrak antolatutako 'Hizkuntza indigenak Ama Lurra zaintzen' erakusketa izango da maiatz osoan Arkupen, eta ikastetxeetako gaztetxoentzako bisita gidatuak egiten hasi dira

Mirari Altube ARETXABALETA

Ama hizkuntzaren garrantzia agerian jartzeko eta hauspotzeko asmoarekin, EHuko Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrak eta Garabidek elkarlanean erakusketa bat jarri dute abian. Otsailaren 21ean ospatzen den Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunean abiaraztea zen asmoa, baina pandemia egoerak behartuta atzeratu egin zuten, eta maiatzean, Aretxabaletan, hasi du ibilbidea *Hizkuntza indigenak Ama Lurra zaintzen* erakusketak.

Hizkuntza gutxituak, gehiengoa

Hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuak bultzatzea du helburu Garabide elkarteak, eta, horren harira, aditu ikastaroak antolatzen ditu bi urtean behin. 2018an parte hartu zutenek kultur ekoizpenaren inguruko lan-keta egin zuten. Hamar herrialde-tako ekarpenak bildu zituzten orduan, eta liburuxkatxo bat sortu dute, indigenen kontakizunak jasota. "Jatorrizko hizkuntzan jaso dira, eta euskara egokitu ditugu. Eta irudiekin osatu", azaldu du Garabideko kide Andoni Barreñak.

Liburuxka horretatik abiatuta etorri da erakusketa, EHuko Munduko Hizkuntza Ondarearen



Hainbat ikasle, erakusketa aretoan, eguazten goizean. MIRARI ALTUBE

Unesco Katedrako kide Ines Garcia Azkoagak azaldu duenez: "Hizkuntza horiek ezagutzera ematea eta hain urruti geratzen zaigun haien mundu horren berri ematea da asmoa, eta, horren bidez, euskararekiko ere gogoeta bat egiteko".

Munduan 6.000 eta 7.000 hizkuntza artean egon daitezkeela dio Garciak, eta hizkuntza indartsuak, hiztun asko dituztenak, "bakar" batzuk direla; ingelesa, gaztelera eta txinera, esaterako: "Munduan dauden hizkuntza gehienak oso komunitate txikie-

tan hitz egiten dira. Hizkuntza ahulak dira, eta asko, galtzeko zorian daudenak. Horregatik, oso garrantzitsua da hizkuntza horiek biziberritzeko ahalegina egitea".

Era berean, hizkuntzen bizi-raupenak garapen iraunkorra erekin harreman estua duela uste du: "Herri guztien garapena nahi badugu, garrantzitsua da hizkuntza hori erabilgarria izatea, komunitate horretako guztien eskura egotea eta balioa ematea norberarena denari. Eta hori garapen tresna bihurtzea".

Gogoeta sustatzeko eta konzientzia pizteko ikastetxeekin egiten den lana garrantzitsua dela uste dute antolatzaileek. Horregatik, bisita gidatuak egingo dituzte ikasleendako. "Bisitek aukera emango dute eskolan bertan hizkuntzen gaineko lan-keta egiteko". Horretarako, joko interaktiboak eta entzun daitezkeen ipuinak dituzte eskura Arkupen.

Hizkuntza eta natura, eskutik

Hizkuntza "ezin da ulertu naturarik gabe" herri indigenetan eta hori agerian uzten du erakusketak berak. "Indigenek duten herri proiektua da. Eurek esango lukete: gu naturaren ondorioa gara, naturak sortu gaitu eta guk natura zaindu egin behar dugu jarrai dezan ondorengoendako", azaldu du Barreñak.


Laugarrenez antolatu zuen Garabidek aditu ikastaroa 2018an, eta hamabi komunitetako hemezortzi lagun etorri ziren orduan. Haiengandik jasotakoak eta ikasitakoak aipatu ditu Barreñak: "Hizkuntza eta kultura ez doazela bakarrik, erantzun globala behar dela erakutsi digute, gizartearen beste eredu bat behar dugula hizkuntzak eta kulturak gordetzeko eta gartzeko; horregatik, inportantea da naturan eragitea, gizarte antolakuntzan eragitea". Zoriontasunaren gainean duten ikuspuntua ere azaldu du: "Ongi bizi izatea eta zoriontasuna lehenesten dituzte gauzak pilatzearen eta gauza asko izatearen gainetik". Eta taldearen garrantzia azpimarratu du: "Erantzuna talde bezala eman behar dela erakutsi digute. Komunitate osoak ez badu lan egiten, erantzuten, gureak egingo duela".

Zer erakutsi gura du erakusketak?



INES GARCIA AZKOAGA
EHU

"Helburua da hizkuntzen gaineko gogoeta sustatzea; batez ere, hizkuntza gutxituen eta arriskuan dauden horien gainekoa. Baita gure hizkuntzaren gainean hausnartzea: zein den euskararen egoera une honetan eta zer egin dezakegun bere alde".



ANDONI BARREÑA
GARABIDE ELKARTEA

"Hizkuntzak eta kulturak inportanteak dira bizi irauteko naturarekin orekan. Zientifikoki frogatu da natura hondatzen den neurrian, kulturak eta hizkuntzak ere murritu egiten direla; eta horiei eutsi egiten zaiela natura gordetzen den lekuan".

Aurtengo dirulaguntzen deialdia abian jarri du Udalak

Kultura, euskara, hezkuntza, gizarte zerbitzu, kirol, enplegu eta berdintasun arloetara bideratutakoak dira

M.A. ARETXABALETA

Dirulaguntzen deialdia argitaratu berri du Udalak, eta eskar egiteko epea zabaldu. Kultura, euskara, hezkuntza, gizarte zerbitzu, kirol, enplegu eta berdintasun arloek koordinatzen

dituzten hamasei programatan banatuko dira laguntza ekonomiko horiek. Deialdi horretarako 127.100 euro bideratu dituzte, eta gerora gehitu edo handitu egin daitezkeela hori adierazi dute Udaletik.

Laguntza programaren arabera, dagokion departamentuak izango du aurkeztutako eskaerak tramitatzeko ardura.

Dirulaguntzen gaineko argibide guztiak maiatzaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituzten, eta Udalaren webgunean jaso. Eskabideak aurkezteko bide bakarra, salbuespenak salbuespen, www.aretxabaleta.eus egoitza elektronikoa izango da, eta horretarako hilaletako epea izango dute interesatuek.

Zinegoak jaialdiko filmak emango dituzte hilaren 16an

Zinegoak -Bilboko Gaylesbitrans 18. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia- Arkupera iritsiko da. Izan ere, haren bueltan jasotako hiru film labur emango dituzte maiatzaren 16an eta ekainaren 4an Zazara aretoan (19:00). Lehen egunerako sarre-rak dagoeneko salgai dituzte, hiru euroren truke, Arkupeko leihatilan.

Hiru film emango dira. *Escames -ezkata-* (Espainia, 2021) Katherine Harder Sacrerrek zuzendu du eta emakume baten eta emakume trans baten arteko adiskidetasuna izango du oinarri. *On my way* (Belgika, 2020) filmean, Nigeriar batek Belgikako landa-eremu batean bizi duen harremana kontatuko du Sonam V. Larcin zuzendariak. Eta *Carne* (Brasil-Espainia, 2019) filmean, Camila Kater zuzendariak bost emakumek gorputzarekin izandako esperientziak jaso ditu.



Aretxabaleta Abesbatzako kideak entsegu batean, 2019an. ARETXABALETA ABESBATZA

Egoerak hobera egin zain kantuan hasteko

Aretxabaleta Abesbatza isilik dago azken hilabeteetan, eta hala jarraituko du, oraingo; txertaketek aurrera egin ahala, irailetik aurrera, esaterako, bestelakoa izan daitekeela egoera uste dute, eta orduan hasiko lirateke itzulerarekin pentsatzen

Mirari Altube ARETXABALETA

Abestea eta lagunartean egotea eskutik doaz Aretxabaleta Abesbatzako kideen kasuan, eta, ez bata eta ez bestea ezin dutelako egin penatuta badaude ere, ez dira hasi itzuleran pentsatzen. Horregatik, joan den domekan Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak egindako protesta deialdiarekin ez zuten bat egin aretxabaletarrek.

"Abesbatza profesionalen kexa ulertzen dut kantuan egiteko ezin direlako elkartu, baina ez da gure kasua", azaldu du Mariatzen Urkiak, abesbatzako zuzendarietako batek, eta gaineratu: "Gure taldean hainbat kidek pasatu zuten gaixotasuna konfi-

namendu hasieran, batzuek okerrago, beste batzuek hobeto, eta hainbatek jakin ere egin gabe; kontua larria izan zen. Gainera, kideen adina goraka doala ikusita, gurago dugu itxoin".

Musika eskolan kantuan

Leizarra musika eskolan kantu eskolak ematen ditu Urkiak eta han lanean jarraitzen du bai umeekin bai helduekin: "Talde txikietan banatuta, distantzia mantenduta eta maskarak jantzita egiten dugu kantuan. Ez da batere eroso; horregatik, datorren ikasturtean inork jarrai dezan lortzen badut, izugarri poztuko naiz! Benetan tristea eta gogorra da hala lan egitea".

Irailetik aurrera, ikusi egin behar

Jakitun da abesbatzaren geldialdi honek ondorioak izango dituela, batzuek ez dutelako jarraituko. Nahiz eta ezin elkartu, entseguak eutsi nahian online kantatzen hasi ziren: "Baina orduan beste arazo batzuk agertu ziren: teknologia arazoak, bakarrik kantuan egin beharra... Eta amore eman genuen".

2020an 40 urte bete zituen abesbatzak, baina ospakizunak atzeratu beharrean izan ziren, eta ez dute datarik jarri ere egin: "Txertaketek jarraitzen badute eta kutsatzeek behera egin, baliteke irailetik aurrera itzuleran pentsatzen hasia; ikusi egin behar".

Futboleko jolasen campusa antolatu du UDAk uztaileko

2009 eta 2012 artean jaiotakoei bideratu diete eta izena emateko epea zabalik dago, ekainaren 18a arte

M.A. ARETXABALETA

Futbola ardatz hartuta baina jolasari garrantzia emanda, udalekuak antolatu ditu Aretxabaleta kirol elkarteak uztaileko, iazko bidetik jarraituz eta Foru Aldundiaren babesarekin. Hilaren 5etik 30a arte izango dira abian eta Ibarra futbol zelaia izango dute topaleku.

Udalekuak bideratu dizkiete 2009 eta 2012 urte artean jaiotako neska-mutikoei, eta adinaren arabera bi txanda egiteko asmoa dute: gaztetxoena, 9 eta 10 urte artekoak, elkartuko dira 09:45ak eta 11:15ak artean; eta nagusienak, 11 eta 12 urte artekoak, 11:30ak eta 13:00ak bitartean.

Zabalik dago izena emateko epea

Izena emateko epea ekainaren 18a arte egongo da zabalik. Horretarako bidea, hemen: <https://labureus/kanpusa>.



Gaztetxo bat baloia jaurtitzen. UDA

Argibide gehiago gura izanez gero edo zalantzak argitu, UDAko kudeatzaile Ainara Mugarekin jar daiteke harremanetan: 659 79 44 65 edo uda.kudeatzailea@gmail.com. Lau asteko prezioa 65 euro da.

Maiatzaren 12ra arte zabalik Euspot-en lanak aurkezteko epea

Hamargarren euskarazko spot lehiaketan parte hartzeko epea bukatzeaz dago: hilaren 12an. Aurtengo leloa *Nekazaritzatik bizi nahi dugu!* da, eta helburua, gazteak -bereziki, emakumeak- landa eremura gerturatzea. Hain zuzen, horregatik, Hazik ere babestu du lehiaketa (Landa, Itsasertz eta Elikagaien Sustapena).

Gehienez 30 segundoko iraupeneko spotak aurkeztu behar dira, beste behin. Eta aurtengo berrikuntza da horizontalean zein bertikalean grabatutakoak izan daitezkeela. Egileek *euspot.eus* webgunean agertzen den galdetegia bete behar dute, eta bideoak bidali; bertan aurkituko dituzte argibide guztiak.

Sari banaketa ekitaldia maiatzaren 27an egingo dute, Arkupe kultur etxean, eta 2.800 euro banatuko dituzte sei sari ezberdinen artean.



ANDRA MARI
ASESORIA / AHOLKULARITZA

*Etorri eta
lagunduko
dizugu*

2020ko errenta kanpaina

Aholku pertsonalizatua

Araba ibilbidea 20A • ARETXABALETA • Tel. / Fax.: 943 79 29 26 • naiara@asesoriaandramari.com

Hasiera gogorra pilotari aretxabaletarrentzat

Lau eta erdikoan galdu egin zuen Julen Barandiaranek, Aretxabaletan; Udaberri Txapelketan, Bergaran, Zugastik eta Lasak ere galdu egin zuten; eta gazte mailakoan, Ander Uribarrenek eta Joxe Uribetxeberriak ere bai, Zestoan

Imanol Beloki ARETXABALETA

Gaur zortzi hasi ziren pilota norgehiagokak bailaran, eta Aretxabaleta taldeko pilotariak ere izan zituzten partidua. Ez zuten hasiera ona izan, guztiek galdu baitzuten.

Zenbait hilabetez entrenatu gabe aritu dira Aretxabaletako pilotariak, kantxa ere itxita izan dute, eta denboraldi hasieran pilotari gazteak joan izan dira, ohikoa den moduan, eskupilota probatzera, baina inor ez dela agertu aurten adierazi du Aretxabaletako Juan Mari Errasti pilota entrenatzaileak. Gauzak horrela, hasiera gazi-gozoari buelta eman nahian daudela adierazi dute Aretxabaletako pilota sailetik.

Julen Barandiaranen porrota

Lau eta erdiko txapelketa jokatu zuen Julen Barandiaran Aretxabaleta taldeko pilotariak, Iturri-gorri, eta 10-22 galdu zuen Murumendiko Aimar Usabiagaren kontra. Juan Mari Errasti Are-

txabaletako pilota entrenatzaileak adierazi duenez, hasiera gogorra izan da Aretxabaletako pilotari guztientzat, eta pandemiaren eragina nabaritu egin dela dio: "Barandiaranek aurrez irabazita zeukan Usabiagaren kontra, baina oraingoan ezin izan du garaitu. Aurkaria markagailuan aurretik jarri zen, eta, etxeko pilotariak berdindu arren, zenbait akats egin zituen, eta, Usabiagak zorte on apur bat ere aldeko izanda, partiduari buelta ematea ezinezkoa egin zitzaion Barandiarani. Gainera, azpimarratzekoa da Julen atzelaria dela eta bestea aurrelaria; hala, aurkariak aurrean egindako lan onak bere fruituak eman zizkion Murumendiko pilotariari".

NAGUSIEK GAUR JOKATUKO DUTE, ALDE ZAHARRAREN AURKA, ITURRIGORRIN, 19:30EAN

Udaberriko Txapelketan kale

Udaberri Txapelketa ere hasi dute Aretxabaletako Zugastik eta Lasak, baina haiek ere ez zuten irabazi Bergarako pilotalekuan, Bergara eta Iñarra bikotearen kontra (22-8). Gazte mailako Ander Uribarrenek eta Joxe Uribetxeberriak, berriz, Zestoan jokatu zuten, eta haiek 6-22 galdu zuten.

Udaberri Txapelketako hurrengo partiduei dagokienez, gazte mailakoek atsedendia dute, baina bigarren mailako nagusiek gaur, egubakoitza, 19:30ean, jokatuko dute, Alde Zaharra taldearen aurka.

Herriartekoa, hilaren 16an

Herriarteko Pilota Txapelketa maiatzaren 16an hasiko da, Aretxabaletan. Hernaniren aurka jokatuko dute Aretxabaletako kategoria guztietako pilotariak. Hau da: kadeteek, gazte mailakoek eta nagusiek. Hala ere, eguna ezarrita duten arren, ordua zehazteko dute.

Maila handiko bertsolariak gaur Arkupeko saioan

Arana, Abarrategi, Lizaso eta Ibarzabal izango dira Aretxabaletako udaberriko bertso saioko protagonistak

I.B. ARETXABALETA

Aretxabaletako Lekaixoka bertso eskolak antolatutako udaberriko bertso saioa gaur, egubakoitza, izango da, Arkupen, eta oholtzan Nerea Ibarzabal, Martin Abarrategi, Beñat Lizaso eta Oihana Arana bertsolariak arituko dira kantuan. Gai jartzaile lanetan, berriz, Aitor Lizarazu arituko da, eta saio ederra aurreikusten dute antolatzaileek.

Aurten Aretxabaletan egiten den lehenengo saioa izango da gaurkoa, eta, gainera, lehenbi-

ziko aldiz antolatu dute udaberriko bertso saioa Lekaixoka-koek. Horretarako, maila handiko bertsolariak hautatu dituzte, ikusleen gozamenerako.

Arkupeko edukiera-neurri murriztaileen ondorioz, ezin izango da areto osoa bertsozaleez bete, baina sarrerak erosten azkarrenak izaten direnek bertso saio apartaz gozatuko dute, bertsolarien maila ikusita. Oraingoan, nahitaez hala egin beharko duten arren, asmoa da Aretxabaletako udaberriko bertso saioa urtero antolatzea.

'Bollera da bide bakarra' saioaren proiektzioa domekan

Kattalin Miner Perezen eta Lore Etxeberria Lujanbioren hitzaldia udaletxe zaharrean izango da, 11:00etan

I.B. ARETXABALETA

Loramendi Euskara Elkartek, Pikarraituz Asanblada Feministarekin batera, *Bollera da bide bakarra* hitzaldiaren proiektzioa antolatu du domeka honetarako; Aretxabaletako udaletxe zaharrean izango da, 11:00etan.

Medeak euskal talde feministako Kattalin Miner Perez eta Lore Etxeberria Lujanbio izango dira proiektzio horretan hizlari gisa arituko direnak. Besteak beste, estrategikoki homofobiatik eta jazarpenetik urrundu eta ironia eta umorea erabilita,

hamaika arrazoi emango dituzte lesbiana izateko. Horretarako, askotariko anekdotak erabiliko dituzte, besteak beste. Hitzaldia entzun ostean, proiektziara bertaraten direnen artean hausnartzeko tarte ere egongo da. Hala ere, asistentzia konfirmatzea eskatu dute, udaletxe zaharreko edukiera mugatua izango da eta. Horretarako, Loramendi elkarteko sare sozialetara idatzi daiteke, edo webgunean jarri beharko dute interesatuek: loramendielkartea.wixsite.com/loramendielkartea helbidean.

Trokolo teatroren 'Zurginaren ipuina' antzezlanak Arkupen

Haur eta familientzat zuzendutako *Zurginaren ipuina* antzezlanak izango da domeka honetan, 17:00etan, Aretxabaletako Arkupe aretoan, Trokolo teatroren eskutik. Sarrerak hiru eurotan erosi daitezke Arkupen bertan, eta edukiera mugatua izango da.

Antzezpen komikoak, atrezzo ederrak eta ikus-entzunezko

moduan aurkeztutako ilustrazio apartek jantziko dute agertokia, ikus-entzuleen gozamenerako.

Iban Barrenetxeak idatzia eta ilustratua da lana, Isabel Aisa da zuzendaria, eta Sergio de Andres eta Ramon Marco izango dira agertokiko protagonistak. Firmin izena duen zurgin baten istorioa kontatzen du *Zurginaren ipuina* antzezlanak. Berak egindako mahaiak ez dira sekula kolokan jartzen, dantza eta kanta egiteko gai dira bere jostailuak...



Julen Barandiaran pilotaria, burumakur, lau eta erdiko pilota txapelketako Aretxabaletako partiduan. IMANOL SORIANO



Haurrak jolasean Eskoriatzako udaleku irekietan, iaz. ESKORIATZAKO UDALA

Goizeko ordutegiarekin eta burbuilatan banatuta

COVID-19aren pandemia dela-eta Eskoriatzako udaleku irekietako funtzionamenduak hainbat aldaketa izango ditu: burbuila taldeetan arituko dira eta ez dute haur guztiak batuko diren ekintzarik izango; uztailaren 5etik 23ra bitartean izango dira

Imanol Beloki ESKORIATZA

3 eta 12 urte arteko haurrentzako Eskoriatzako udalekuak uztailaren 5etik 23ra bitartean izango dira, eta aurtengo berrikuntza nagusia da talde txikietan arituko direla. Hala, izen-ematea zabalik da, eta interesatuek maiatzaren 13ra arte izango dute aukera, dokumentazioa bete, udalekuetan izena emateko.

Haurrak talde txikietan egongo dira banatuta: burbuila taldeetan, hain zuzen. Talde bakoitzak hasteko eta amaitzeko leku bat izango du, eta ez dute udalekuetako haur guztiak batuko dituen ekintzarik antolatuko –San Fermin, azken jaia, eta abar–, baina ekintza dinamiko asko antolatuko dituzte talde bakoitzak egiteko. "Izen-ematea ireki dugu, baina dekretuaren zain gaude. Orduan dehaiztuko dugu zenbat haurretako taldeak ezarri. Horrekin batera, protokoloa ere diseinatuko dugu, COVID-19 kasuren bat balego egoerari nola erantzun jakiteko. Arautegia

ondo diseinatzeaz batera, aire librean egingo ditugu ekintza guztiak...", adierazi du Maider Etxanizek, Eskoriatzako Gazte-ria teknikariak.

Goizez bakarrik arituko dira

2009 eta 2017 urte bitartean jaio-tako haurren taldeek funtzionamendu erabat autonomoa izango dute, eta, horretaz gain, ordutegia ere aldatuko da; hain zuzen ere, goizez soilik eskainiko dira udalekuak. Iaz, hiru orduko udalekuak antolatu zituzten, baina lau ordukoak egitea erabaki dute, 10:00etan hasi barik 09:00etan hasiz; hala, kontziliazio arazoei erantzuteko. Hori horrela, 09:00etan hasi eta 13:00ak arte bitartean, ondo pa-

IZENA EMATEKO, UDAL WEBGUNEAN DAGOEN FORMULARIOA BETE BEHARKO DA

satzeaz gain, naturaz gozatu, jolas egin, inguruko bazterrak ezagutu, lagunekin egon eta lagun berriak egiteko aukera izango dute, aisialdi programa osatu bati jarraituz.

Dokumentazioa bete beharra

Izena emateko dokumentazio bat beharko da –udal webgunean esteka dago–. Bertan, formulario bat bete behar da, eta ordainketa-agiria bidali txirikila@gmail.com helbidera. Ordainagirian haurraren izen eta abizenak eta jaiotza-urtea jarri behar dira, eta, haur bat baino gehiago apuntatuz gero, haur bakoitzeko izen-emate formulario bat eta ordainketa-ordainagiri bat bidali beharko da. Honako hauek dira prezioak: haur batengatik 70 euro ordaindu beharko dira, bi haurrengatik 135 euro eta hiru haurrengatik, berriz, 204 euro. Edozein zalantza izanez gero, Tortolis ludotekara joan daiteke, edo 688 60 13 74 telefono zenbakira deitu.

'Alzheimerrarekin elkar-bizitza' hitzaldia Afagiren eskutik

Olazar Erretiratuen Elkarteak antolatutako saioan, Koldo Aulestia eta Iñaki Olalde izango dira hizlariak

I.B. ESKORIATZA

Maiatzaren 11rako, martitzena, *Alzheimerrarekin elkar-bizitza* hitzaldia antolatu du Olazar Erretiratuen Elkarteak. 17:30ean izango da, Zaldibar antzokian, eta edukiera leku kopurua bete artekoa izango da –54 lagun–. Saioa gazteleraz izango da, eta hizlariak izango dira Gipuzkoako senitartekoen, lagunak eta alzheimerra edo beste demen-tziaren bat duten pertsonen elkarteko (Afagi) Iñaki Olalde idazkaria eta Koldo Aulestia presidentea.

"Ordubeteko saioa izango da, eta tarte horretan ibilbide bat egingo dugu, alzheimerrak eragiten dituen ondorio guztiak aipatuz. Alzheimerrak garunean eragiten dituen ondorioak, gaitasuna duen pertsonarengan eragindakoak, familian, eta, kasu honetan, azpimarratuz zaintzaile nagusiarengan izaten direnak, eta baita gizartean. Guk bizitako esperientziatik hitz egingo dugu, eta egoera horretan bizi direnentzat lagun-garria izango da, pautak ematen ditugulako...", dio Aulestiak.

OHARRAK

Olazar Erretiratuen Elkarte

Maiatzaren 20an batzar orokorra egingo dute antzokian, 17:00etan. Lehenbizi, ezohiko batzarra izango da, estatutuaren aldaketa bat egiteko, eta gero, ohiko gaiak landuko dituzte.

Topaketa: landa eremuetako mugikortasuna

Debagoieneko landa eremuetan mugikortasun inklusiboa sustatzeko helburuarekin, lehenengo, Eskoriatzan izango da, maiatzaren 10ean, 18:00etan, Ibarraundi museoan.

Kultura gida, Whasappez

Eskoriatzako kultura gida hilerro Whasappez jasotzeko, 650 49 51 66 telefono zenbakira izen-abizenak bidali beharko dira.

Astero asmakizun bat, haurrek familian erantzuteko

Gaur jakinaraziko dute zein den Tortolis ludotekako bigarren asmakizuna, hainbat bidetatik

I.B. ESKORIATZA

Tortolis ludotekak asmakizun lehiaketa jarri du martxan eta bost aste iraungo du. Astero asmakizun bat argitaratuko dute sare sozialetan, Whatsapp bidez, baita bibliotekan eta ludotekako atean, kartel bidez.

Egitasmo hori HHko eta LHko haurrei eta gurasoei zuzenduta dago, etxean elkarrekin jolas daitezten. Edozeinek har dezake parte, eta asmakizunaren emaitzarekin *whatsapp* bat idaztea nahikoa izango da, haurraren izen-abizenak eta adina jarrita.

Bost asmakizunetatik gehien asmatzen duen haurrak opari bat izango du eta irabazleak bat baino gehiago badira, zozketa egingo da.

Lehenengo asmakizuna apirilaren 23an zabaldu zuten, bideo baten bitartez. Erantzuna bidaltzeko epea hilaren 28an amaitu zen arren, hurrengo asmakizunetan parte hartzeko aukera dago. Gaur, egubakoitza, emango dute hurrengo asmakizunaren berri, eta datorren eguaztenera arte egongo da aukera erantzuna bidaltzeko.

Mendiko buzoien erretratuak, erakusketan

Atxorrotx Kultura Elkarteko kideek mendiko buzoien 34 argazkirekin erakusketa osatu dute Inkernu tabernan. Zapatua ezker dago ikusgai, eta lehiaketa jarri dute martxan: hain zuzen, bildumako hiru buzoiren izena asmatu beharko dute parte hartzaileek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Mendiko buzoien argazkien erakusketa ireki zuten zapatuan Eskoriatzako Inkernu tabernan, eta hilabetez egongo da ikusgai. 34 erretratu batzen ditu Atxorrotx Kultura Elkartek jarritako argazki erakusketak, eta Aramaio-ko, Leintz Gatzagako, Aretxabaletako eta Eskoriatzako mendietako tontorretan dauden buzoien erretratuak dira bertan ikusgai daudenak.

Iaz, Inkernu tabernan egindako zenbait kontzerturen kartelen bilduma osatu zuten, eta orain, beste erakusketa bat jarri berri dute, hainbat helburu betetzeko asmoarekin. Batetik, zapaturako Sarek antolatutako Izan Bidea egitasmoaren baitan, Fernando Eskoriatza plazatik irtenda, Atxorrotxera -10:30ean- eta Mugarriluzera -09:30ean- egingo diren igoeretara herritarrek animatu daitezten, eta, bestetik, inguruko mendien tontorren izenak ezagutzeko eta horietara ibilbideak egiteko.

Tontorren berri eman

Juan Luis Zubizarreta Atxorrotx Kultura Elkarteko kidea izan da erakusketaren 34 argazkien egilea, eta gaur egun ateratakoekin zein aspaldikoekin osatu du bilduma. "Izan Bidea egitasmoari



Inkernu tabernan mendiko buzoien argazkien erakusketa. I.B.

bultzada emateko asmoz antolatu dugu, oinarrian, baina pandemia dela-eta perimetralki itxita egon garenean ohiko tontor eta mendietara joan izan gara herritar asko. Hala, horietaz gain, beste hainbat tontor, leku interesgarri eta paisaia zoragarri ditugula ohartarazteko ere jarri dugu erakusketa. Aspalditik genuen tontorretako buzoien argazkiekin erakusketa egiteko asmoa, eta duela hamar urte inguru egindako beste erakusketa bateko argazki batzuk errekuperatu ditugu lan honetarako,

eta argazki berriak ere atera. Izan ere, tontor batzuetako buzoiak berrituta daude, beste puntu geografiko batzuk kenduta, eta horien lekuan monolitoak jarrita... Hala, zenbaiten erretratuak izenekin jarri ditugu, herritarren interesekoa izango

HIRU TONTORREN IZENAK ASMATZEKO LEHIAKETA MARTXAN JARRI DUTE, ETA SARIA IZANGO DA



Asentzio mendiko buzoia eta



Postontzi, mugarri edo monolito

Asentzio Mendin, Ametzuetan, Jarindon, Atxorrotx, Andarton, Aranguren, Bizkarlatzan, Durakogainen, Erlaitzen, Makatz gainen eta beste hainbat tontorretan dauden buzoien, mugarren eta monolitoen argazkiak batzen ditu erakusketak.

delakoan. Hori horrela, erakusketako argazkiak ikustearekin batera, ibilbideetako *track*-ak Internetetik jaitsita oso erraz iritsi daitekeela leku horietara ere adierazi nahiko genuke, eta jendea animatu", adierazi du Juan Luis Zubizarretak, Atxorrotx Kultura Elkarteko kideak.

Lehiaketa ere martxan

Inkernu tabernako erakusketak batzen dituen 34 argazkietatik ia guztiek dute izena jarrita argazki oinean; hala ere, hiru buzoiren argazkiak izen barik daude, erakusketa ikustera joaten direnek horien izenak asma ditzaten. Parte hartzeko, hiru buzoien argazkien izena jarri beharko da paper batean, eta asmatzen dituztenen artean saria zozketatuko dute. "Hiru argazkien izenak asmatzen dituztenen artean saria zozketatuko

dugu. Erantzunak uzteko buzoia jarri dugu Inkernun, eta, dagoneko zenbaitek parte hartu duten arren, maiatzaren amaiera arte, behintzat, egongo da aukera lehiaketan parte hartzeko", adierazi du Zubizarretak.

Buzoien jatorria

"Euskal Herriko Mendi Federazioak orain dela 90 urtetik antolatzen duen lehiaketa da *100 mendi* izeneko egitasmoa, mendizale baten goi maila aitortzeko balio duena. Parte-hartzaileek 100 mendi ezberdin igo behar dituzte, 5-10 urte bitarteko epean... Tontorretako buzoietan mendizaleek txartela utzi behar dute, gero jasotzean zein pertsona nora joan den-eta ziurtatzeko. Gurera etorrita, Eskoriatzako tontorretan, bertakoek jarritako buzoia oso gutxi daude, esate baterako".

Berri Txarrak taldeak eragindako zirrara, pantaila handian

'Dardara' Berri Txarrak taldearen agurraren testigantza zapatuan proiektatuko da Zaldibar antzokian, 19:00etan

I.B. ESKORIATZA

Marina Lameiro zine zuzendariak *Dardara* filmean jaso ditu Berri Txarrak taldearen *Ikusi arte* izeneko azken birak zaleengan eragin zuen zirrara. Hala, lanean jasotakoak zapatuan ikusi ahal

izango dira Zaldibar antzokian, 19:00etan. Sarrerak aldeaz aurretik erosi ahal izango dira, hiru eurotan, kiroldegian.

25 urte taula gainean eman ondoren, eta taldearen unerik gorenean, Berri Txarrak-ek gel-

dialdi mugagabea iragarri zuen, ibilbide oparo bati etena jarrita. Geratu aurretik, baina, azken bira bat egiteko nahia adierazi zuten, mundu osoko zaleak meze bezala eskertu eta agurtzeko. Bidaia hartan Marina Lameiroren kamera izan zuten bidelagun, birak zaleengan sortutako dardara dokumental batean jasotzeko asmoz. Zinemagileak jarraitzaileen istorioekin eraikiko du ikus-entzunezkoa, Berri Txarrak-ekiko guztien pasioa irudikatuz.

Oihan Vega 'Ipuin dantza' ikuskizun berriarekin izango da

Domeka honetan, Oihan Vega aurkezle, irrati esatari, DJ eta musikari bergararra Eskoriatzako Zaldibar antzokian izango da, haurrentzat prestatutako *Ipuin dantza* ikuskizun familiar berriarekin.

Orain arte egiten zuen *Disko-festa* moldatu egin du, eta *Ipuin dantza* deitzen den saioa prestatu. Zuzeneko dantza izango da

nagusi saioan, eta, horretarako, askotariko koreografiak izango dira ikusgai, eta txotxongiloak ere erabiliko ditu lan horretan. Zaldibar antzokian batzen diren neska-mutilek, gainera, aukietan egingo dute dantza; saioaren parte bilakatuko dira.

3 eta 10 urte bitarteko haurrentzat zuzendutako ikuskizuna da, eta, 17:00etan hasita, ordubete inguru iraungo du. Sarrerak salgai daude dagoeneko, hiru eurotan, Manuel Muñoz kiroldegian.

Combat samboko Espainiako txapeldun


Atama Eskoriatzako Leire Rato borrokalaria Espainiako txapeldun da, combat sambo modalitatean, bigarren urtez jarraian. Atsedetik hartu barik, asteburuan Guadalajaran izango den klubaren artekoan arituko da, hiru modalitatetan lehiatzen

Imanol Beloki ESKORIATZA

Joan den domekan, combat sambo modalitatean Espainiako Txapelketa jokatu zen San Agustín del Guadalix (Madril) herrian. Bertan, promes mailakoak eta senior mailakoak lehiatu ziren, eta azken kategoria horretan, Leire Rato, Atama Eskoriatza taldeko borrokalaria izan zen garaile. Titulu hori irabazten duen bigarren aldia da, eta ilusioz jaso du urrezko domina Eskoriatzako borrokalariak.

Atsedetik barik, aurrera begira

Borrokalarien maila handia izan arren, etxeko lanak ondo eginda joan zela txapelketara argi utzi zuen Ratok lortutako garaipenarekin. "Modalitate honetan lehiatzen naizen bigarren aldia da, eta bietan lortu dut urrea. Beraz, sari itzela da niretzat. Hala ere, erronka gehiago ditudenboraldi honetarako; beraz, atsedetik hartu barik, datozenak prestatzea tokatzen da orain.



Rato, urrezko dominarekin. RAFA CARRIET

Klubaren arteko asteburuan

Combat sambo modalitatean Espainiako Txapelketan urrea lortu arren, ez du atsedetik hartuko; izan ere, asteburu honetan Guadalajarako Alovera herrian jokatuko den Klubaren

Arteko Kenpo Txapelketan izango da, eta berarekin batera Atama Eskoriatza taldeko beste hamar borrokalari izango dira: guztira, sei gizonezko eta bost emakumezko. Horien borroka *RFE Karate* Youtube kanaletik zuzenean jarraitzeko aukera izango da.

Modalitate berriak probatzera

Asteburu honetan hiru modalitatetan lehiatzeko aurkeztu da Rato: semikenpo, full kenpo eta sumisio delakoetan. Bitan esperientzia du Ratok; izan ere, semikenpo eta full kenpo modalitateetan urrezko domina lortutakoa da; sumisio modalitatean, berriz, lehenengo aldiz lehiatuko da. Asteburu honetan ahalik eta lan onena egiten saiatuko dela adierazi du, eta ekainaren amaieran izango den Espainiako MMA Txapelketara joateko asmoa ere agertu du; modalitate horretan ere lehen aldiz jardungo luke.

Aramaioko Paula Amilburu eta Eskoriatzako Haizea Arana bertsolariak.

Finalaz gozatzen

Haizea Arana lehenengo kanporaketan sailkatu zen, Aramaion, finalerako txartela lortu zuen, eta argi du Lesakako finalera zertara joango den: "Uste dut hasieratik argi geratu dela Señora sariketaren helburuak zeintzuk diren. Emakume bertsolarien saretzea ahalbidetzeaz gain, eremu seguruak sortzea eta umoretik lehia geureganatzea. Ni finalera gozatzen joango naiz, eta uste dut nire kideak ere horrela joango direla. Gozatzeko eremu bat da, barre egiteko eremu bat, gustura egoteko. Aramaion beste gozatzeko aukera izaten badut, oso pozik bueltatuko naiz etxera".

eguna iritsi arte zeintzuk diren ez da jakingo.

Belaunaldien arteko emakume bertsolariak saretzea eta ahalbidetzea helburu duen Señora sariketako sarrerak *bertosarrerak.eus* webgunean erosteko aukera izan da, baina online jarri dituztenak agortuta daude dagoeneko.

Bi debagoiendar finalean

Gai-jartzaile Ainhoa Larretxea arituko da, eta Debagoieneko ordezkaritza ere izango da Lesakako saioan. Hain zuzen ere,

Señora sariketako finalerako gertu dago Haizea Arana

Lesakan jokatuko da emakume bertsolariak saretzea ahalbidetzea helburu duen finala, zapatuan, 17:00etan

I.B. ESKORIATZA

Zenbait emakume bertsolarik eta bertsozale feministak tokiko herri eragile eta mugimendu feministako kideekin elkarlanean eta Bertsozale Elkarteak babes-tuko Señora sariketako finala Lesakan jokatuko da bihar, zapatua, 17:00etan, Arranoko terrazan. Hamalau emakume bertsolarik hartuko dute parte finalean, Aramaion eta Mutrikun egin diren kanporaketetan sailkatutakoak, eta, haiez gain, ohorezko bi *señora* gonbidatu ere izango dira parte hartzen;

LEINTZ GATZAGA 25



Deba eta Jarindo, loreontziak erabiliz sortutako pertsonaia. GOIENA

Pertsonaia bihurtutako loreontziak, lorez betetzera

Herrian zehar hamaika loreontzi bitxi izanda, halako hamaika istorio ere idatziko dituzte horietan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Iaz, loreontziak erabiliz pertsonaia dibertigarriak sortu zituzten, eta herri osoan zehar sakabanatuta jarri; horietan loreak landatu zituzten, Leintz Gatzagari bizi-tasuna emateko asmoz. Oraingoan, Arrasateko Buart lorendakoek eskainitako loreak landatuko dituzte, baina bitxikeria gehiagorekin ere beteko dute loreontzi horien ingurua.

Lore berriak sartzeaz batera, pertsonaien baitan, herriko kontuei erreferentzia egiten dizkieten istorioak idatziko dituzte loreontzien alboan jarriko dituzten teiletan, harri-multzo inguratuta. Hala adierazi du Ainhoa Barandiaran gatzagarrak: "Loreontzietarako loreak Buart loradendakoek ekarriko dizkigute, doan. Prestatu egin behar ditu, eta berak esango digu zeintzuk diren jartzeko egokienak, baina, lore iraunkorrek badira,

askoz hobeto. Hala, eskerrak eman nahi dizkiogu Buart lorendari, herri ekimen honetan bere alea jartzeagatik. Gu lekua atondu eta loreak zaintzeaz arduratuko gara".

Guztira, hamaika loreontzi daude pertsonaia bihurtuta, eta guztiak loreekin beteta herria koloreztatzea da asmoa. Hamaika loreontzi izanda, hamaika istorio ere kontatuko dituzte.

Herriko kontuak

Herrian zehar dauden loreontzien pertsonaiek izena dute, eta herriko txokoei egiten diete erreferentzia. "Bi loreontzi ditugu, esaterako, *Jarindo* eta *Deba* izena dutenak. Deba ibaiari erreferentzia eginez, Hirurreetan hasten dela Deba adieraziko dugu, adibidez. Zer jarri pentsatzen ari gara egunotan, ea datorren asterako prest dugun..."

Energia aurrezteko bide berrien gaineko hitzaldia izan da

Autokontsumoa eta energia berri-tagarrien komunitateak izeneko hitzaldi informatiboa egin zuten, atzo, eguna, Goiener taldeko Oier Etxebarriak eta Eider Murgoi-tiok, Leintz Gatzagako kultura etxean.

"Laburbilduz, bi multzotan banatutako saioa izan zen eskaintakoa. Lehenbizi, dauden autokontsumo aukerak adiera-

zi genituen, Espainiako Gobernuak ezarritako dituenak. Hori-ek norbanakoak edo partekatutako izan daitezke; batez ere, partekatuetan zentratu ginen, eta legediaren arabera dauden abantailak adierazi genituen. Bestetik, energia berri-tagarrien komunitateak aritu ginen, gure ikuspuntutik zer den eta zer egin daitekeen azalduta. Bestetik, tokiko baliabideak erabilia egin daitezkeen jarduerak ere planteatu genituen", adierazi du Oier Etxebarriak hizlariak.

"Lekualdaketek ez dute emaile kopuruan eragin"

ANTONIO HERZOG BERGARAKO ODOL EMAILEEN ELKARTEKO ARDURADUNA

Pandemia hasi zenetik ateratzeak lau lekutan egiten aritu badira ere, emaileek oso ondo erantzun dutela dio: "Publikoki eskertu nahi diet izandako jarrera eta egindako ahalegina"

Jokin Bereziartua BERGARA

1966an Jose Mari Dulanto medikuak abiatu zuenetik, gaur egun Gipuzkoako odol emaileen arteko elkarte sendoenetakoa da Bergarakoa, 700 bat odol emaile aktiborekin. 2012a ezkerro bertako arduradun da Antonio Herzog (Bergara, 1943), lan boluntarioan eredugarria den pertsona. Hain zuzen ere, martitzenero egin ohi duen moduan, elikagai bankuan jasotako oinarritzko elikagaiak Caritasera bideratzen ari zela jaso du GOIENAREN deia.

Nola eragin dio pandemiak Bergarako odol emaileen elkarteari?

Gizarte osoari moduan, ezustean harrapatu gintuen. Baina guretzat arazo handiena izan da lekuz aldatu behar izan dugula gutxienez lau alditan. Pandemiako lehen donazioa bertan behera utzi behar izan genuen, anbulatorioan geundelako eta ez zirelako baldintza berriak betetzen. Orduan, Udalak San Joxeperen egoitzara bideratu gintuen, egu-



Antonio Herzog, azoka atarian; ludotekan egiten dira orain odol ateratzeak. J. OLABARRIA

neroko erabiltzaileendako itxita zegoelako, baina zabaldu zenean handik ere mugitu behar izan genuen. San Joxepetik azokara, abuztuan eta irailean, eta, sekulako beroa jasaten genuenez, beste lokal baten bila hasi ginen

Udalarekin. Agorrosingo yoga egiteko lokala laga ziguten, baina, yoga saioak berriro hasi zirenean, urtarrilean-edo, berriz ere azokara mugitu behar izan genuen. Orain, azokako goiko solairuan ari gara, ludotekan.

Horrenbeste leku aldaketaren ostean, nola erantzun dute emaileek?

Oso ondo. Ez dute eragozpenik jarri leku batetik bestera mugitzeko, eta publikoki eskertu nahi diet izan duten jarrera eta egin duten ahalegina. Emaileei bakarrik ez, Udalari ere eskerrak eman beharrean gaude, gure beharrei erantzuten saiatu delako une oro.

Protokolo bat ere izango duzue...

Bai, noski. Maskara une oro jarrita erotea ezinbestekoa da, eta, jende pilaketak ekiditeko, aldeztu aurretik txanda eskatu behar da. Hamabost egunean behin antolatzen ditugu ateratzeak eta txandak hoge minutuan behin ematen ditugu, lau taldeetan. **Gaur egun, pandemia betean, zein da odol emaile aktiboen kopurua?**

700dik gora laguneko kolektiboa dugu gaur egun; gehiengo handi bat Bergarako da, Antzuolatik eta Sorluzetik emaileren bat badugu ere. Datorren pertsona oro beso zabalik jasotzen dugu. **Eragin du pandemiak beherakadarik emaileen kopuruan?**

Azken urtean ez da beherakada nabarmenik izan. Fernando Idigoras arduradun zenean, 1.500 emaile aktibo izatera ere heldu ginen, baina nik ez dut bizi izan hori. 2012an sartu nintzenean, 900 bat ginen. Joera apur bat beheranzkoa izan den arren, txalotzeko moduko kopurua da. **Beheranzko joera hori iraultzeko: zer egin beharko luke odola eman nahi duen bergararrak?**

Eraginkorrena da gure telefono zenbaki berrira deitzea: 747 42 99 20. Gogoratu zeintzuk diren bete beharreko baldintzak: 18 eta 65 urte artean izatea, nahiz eta ohiko emaileak badira eta sano egonez gero 70 urtera artekoak ere hartzen ditugun; eta gutxienez 50 kilo izatea. Jakin beharreko beste kontu da emakumezkoek urtean hiru aldiz eman dezaketela odola eta gizonezkoek, berriz, lau alditan. Bestalde, nik ez dut ikusi odola ematera etorri eta analisia egin ostean atzera bota behar izan denik; egongo da kasuren bat, baina nik ez dut ezagutzen.

Zenbat lagun zarete elkartearen?

Orain, hiru bokal, idazkaria eta ni neu ari gara modu boluntarioan lanean. Jende gutxiago behar da orain, eta bostok moldatzen gara; oraingoz, behintzat.

Zergatik eman behar da odola?

Odola ematea bizitza ematea delako; are gehiago, bizitzan ari garen egoeran. Bergarakoak eta ingurukoak animatzen ditut: deitu dezatela eta eman dezatela odola. Norberaren bizitzatik ordu erdi bat bakarrik eskatzen du eta sekulako ekarpena da benetan behar dutenentzat.

"EMAN ODOLA, ORDU ERDIAN EGITEN DA ETA SEKULAKO EKARPENA DA BEHAR DUTENENTZAT"

GORA ETA BEHERA



Litxarrerien arrastoak Ola gaineko pasean

Ola auzoaren gainean pasean ari zen herritar batek lurrean botata hainbat zikinkeria ikusi, eta egoera salatu du: "Badirudi pandemiak gizalegez jokatzea bigarren planoan utzi duela".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Bi hitzaldi maiatzean, ludopatiaren arazoaz sentsibilizatze

Bergarako eta Arrasateko udalako gizarte zerbitzuek ludopatiaren arazoaz sentsibilizatze bi hitzaldi antolatu dituzte, hilaren 12an eta 19an, Irizar jauregiko Euskaldun berria aretoa (18:30). Lehen hitzaldiaren izenburua da *Ludopatiak bizitza hankaz gora jartzen dizunean*, eta saio horretan bere bizipen pertsonalen berri eman du Josu Vianak, euskaraz. Bigarren hitzaldia gaztelaniaz izango da: *Ludopatia: cuando ya no es un juego*. Jokalari Anonimoak elkarteak psikologo Karmele Gurrutxaga izango da saio horretako hizlaria. Izena eman behar da aurrez: aloidi@bergara.eus edo 943 77 91 26.

OHARRAK

Girorako porra, ziklismo-zale batzuen eskutik

Bergaran, Irala kalean egongo dira zapatuan -18:00etatik 20:00etara- eta domekan -11:00etatik 14:00etara-, Antzuolan, berriz, domekan Koxkor tabernan egongo dira bihar hasiko den probarako apustuak jasotzen, 11:00etatik 14:00etara.

Udaltzaingorako lan-poltsa osatuko du Udalak

Aldi baterako premiei erantzungo dien agenteen lan-poltsa osagarria izango da. Oposizio-lehiaketa bidez osatuko da zerrenda, eta eskaerak egiteko epea hilaren 12an bukatzen da.

Osintxuko eskola txikiari laguntzeko azoka

Bihar, maiatzak 8, egingo dute bigarren eskuko materialez osatutako azoka; Osintxuko plazan izango da, 10:00etan.

Elkarrekin josteko hitzordua Amillaga kalean

Bihar, maiatzak 8, elkartuko dira Amillaga kaleko Black3 Bordados dendaren atarian, 10:30etik 13:00etara.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga (kontribuzioa)

Ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 15etik uztailaren 2ra artekoa da. Argibide gehiagorako: 943 77 91 00.



Terrazetan mahai gehiago jartzeko aukera ematea eskatu dute, besteak beste, jeltzaleek. JOKIN BEREZIARTUA

Ostalarientzako laguntza zehaztea eskatu du EAJk

Dirulaguntza lerroa zehazteaz gain, zergen hobaria urte osora luzatzeko eta terrazan mahai kopurua handitzeko eskatu dute jeltzaleek, Gobernuari beste herri batzuen "atzetik" doazela leporatzeaz gain; EH Bilduk ez du "polemiketan" sartu nahi "hedabideen bitartez"

Jokin Bereziartua BERGARA

EAJk ostalaritzari zuzendutako dirulaguntza lerroa zuzena zehazteko eskatu dio EH Bilduren Udal Gobernuari. Are gehiago, dirulaguntza lerroa zehazteaz gain, zergen hobaria urte osora luzatzeko eta terrazan mahai kopurua handitzeko eskatu diote jeltzaleek EH Bilduri, eta uste dute Udal Gobernu "atzetik" doala, beste herri batzuekin alderatuta; diotenez, Arrasaten, esaterako, mahai gehiago ahalbidetzen dituzte terrazetarako.

Jeltzaleen arabera, 2020ko maiatzean egin zioten lehen proposamena Gobernuari, eta, besteak beste, ostalaritzari bideratutako dirulaguntzak zehaztu zituzten. "Abenduan, berriz, Udalak bideratutako dirulaguntza urria ikusita, 2021eko aurrekontuetan partida zehatz bat bideratzeko emendakina proposatu genuen. Eta, azkenik, otsailean ere beste dirulaguntza bat zehazteko proposamena egin genien, baina hau ere ez dute aintzat hartu",

gaineratu du EAJko bozeramaila Maite Agirrek.

"Malgutasun handiagoa" nahi

Terrazei dagokien malgutasun handiagoa eskatu du EAJk: "Arrasaten, esaterako, izugarritzko malgutasuna dago; hamasei mahaiko terrazak ere badaude, tokiaren arabera. Bergaran, ordea, gehienez hamar mahai bakarrik jarri ditzakete ostalariek, pandemia aurretik jar zitzaizkiren berberak". Karpak eta estalpeak ezartzeko ere malgutasuna "ezinbestekoa" dela dio oposizioko talde nagusiak.

Eta, horri lotuta, abenduan aurrekontuetarako egindako proposamena berreskuratzea eskatu dute: "Hobaria urte amaie-

ra arte luzatzea, alegia". Azkenik, ostalariekin biltzeko asmoa dutela ere adierazi dute jeltzaleek, haien beharrak eta bizipenak entzun eta "elkarlanean jarraitzeko" asmoarekin: "Lanerako prest gaude, oposiziotik ere posible delako herriaren aldeko ekarpenak egitea".

Gobernua, ordenantza lantzen

Udal Gobernuak adierazi du ez duela "polemiketan" sartu nahi "komunikabideen bidez". EH Bilduk 2021 bukaerarako ordenantza berria adostuta izatea nahi du, horretarako sortutako "lan-mahaiaren" bidez; azken helburua litzateke 2022ko lehen hilabeteetan indarrean jartzea ordenantza berria. Ostalariek ordenantza ahalik eta lasterren gertu izatea nahi dute, inbertsioak egitekotan, errentagarria izateko. Bestalde, Udal Gobernuak ekainean jakinaraziko die ostalariei terrazak jartzeagatik tasa ordaindu beharko duten edo ez.

EKAINEN JAKINGO DUTE OSTALARIK TERRAZAGATIK TASA ORDAINDU BEHARKO DUTEN EDO EZ



Fabrikazio adimenduneko espezializazio kurtsoa da aukera berrietako bat. M.A.

Hiru ikasturtetan, bi titulu ofizial lortzeko aukera Miguel Altunan

Eskaintza berria 2021-2022 ikasturterako: zuzendaritzan laguntzeko goi mailako teknikaria eta fabrikazio adimendua

Goiena komunitatea

Miguel Altuna Lanbide Heziketa

BERGARA

Etengabe eraldatzen doan eta geroz eta konektatuago dagoen gizarte honetan, lan munduari erantzun hobea emateko aukera izango dugu aurrerantzean Debagoienean. 2021-2022 ikasturterako gertu dugun formakuntza eskaintzako nobedadeak dira horren adibide: zuzendaritzan laguntzeko goi mailako teknikaria eta fabrikazio adimenduneko espezializazio kurtsoa.

Formakuntza, eta irteera asko

Zuzendaritza laguntzeko titulazioan, ziklo honen bigarren kurtsoa eskainiko dugu gurean. Hortaz, Administrazioa eta Finantzak goi-mailako heziketa zikloa gainditua duten ikasleek, ikasturte bat gehiago eginda, titulazio ofizial berria eskuratu ahaliko dute. Lan irteerei dago-

kienez, zuzendaritzako laguntzaile edo idazkari, laguntzaile pertsonal, giza baliabideetako laguntzaile edota erakunde publikoetako administrari gisa lan egiteko aukera eskaintzen du.

Fabrikazio adimenduneko kurtsoa 660 ordukoa da eta ikasketak Miguel Altunan eta enpresetan txandakatuz burutuko dira. Produkzio-prozesu adimendunak, metrologia eta instrumentazio adimenduna, Internet eta sarera konektatutako inguruneak, makinaren birtualizazioa eta produkzio-prozesuak barnebiltzen ditu. 4.0 industriak, konektibitateak, adimen artifizialak eta robotikak eskatzen dituzten ezagutza tekniko eta profesionalak barneratuko dira, eta fabrikazio aurreratuako sektoreari erantzuna emango dien ikasle kualifikatuak formatu. Argibide gehiagorako: www.maltuna.eus edo 943 89 92 70.

UGARTE
 AROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea
 Tel.: 943 034630

AROTEGIA
 San Juan 1a
 Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

I21
K
 KALITEA
Enpresa Registrada 1100/025

Bestalde, aurtan ere Laburbira ekimena dator, euskara hutsen egindako zortzi film laburrez goatzeko aukera. Seminarioa ekainaren 2an helduko da, 18:30ean. Sarreraren prezioa hiru euro da.



2019 kaleratutako estudioko lehen lanaren ostean iritsi da *Kolpatu topatu* izeneko zortzi kantuz osatutako diskoa. EZPALAK

Ezpalak taldea, bihar Seminarixoan entzungai

'Kolpatu topatu' diskoa aurkeztuko du talde zestoarrak bihar Seminarixoan, 19:00etan. Taldearen estudioko bigarren lana soinu "irmoagoekin" datorrela azaldu dute taldeko kideek, "fuzz gitarrek, psikodelia kutsuak eta noisea" nahastuz

Jone Olabarria BERGARA

2019an sortu zen Ezpalak talde zestoarra, beste hainbat talde-tako kidek osatutako proiektu musikari hasiera emanda. Rock alternatiboa egiten dute Juanjo Berasainek (ahotsa), Eñaut Gaztañagak (gitarra), Unai Eizagirre k(baxua) eta Janardana Iglesiasek (bateria).

2020 urte gorabeheratsua gaindituta, Ezpalak taldea bueltan da berriro, udaberri honetan argitaratu duen estudioko bigarren albumarekin, *Kolpatu topatu* diskoarekin. Ayuken Management & Productions eta Oso Polita etxeek bat egin dute elkarlanean jarduteko lanean.

Estilo berriak nahastuz

Disko berri horretan erritmo "rockzale eta dantzarriagoak" entzuteko aukera izango dela azaldu dute, "laurogeita hamarreko hamarkadako eragin nabariarekin": "Sonic Youth, Dinosaur Jr., Nirvana eta The Smashing Pumpkins taldeak

gogora ekarri ditugu". Azaldu dutenez, garage eta grunge estiloen arteko soinuak "askoz nabariagoak eta garbiagoak" ziren taldearen estudioko lehen lanean, *Ezpalak* (2019): "Orain, aldiz, soinu horiek nortasun propioa duten eta gaur egungoagoak diren taldeen beste erreferentzia batzuetan barreiatzen dira; besteak beste, Ty Segall, Shame, Idles eta Fontaines DC".

Bigarren lana, elkar ezagututa

Zortzi kantuz osatutako bigarren diskoan elkar hobeto ezagutzen duten isla dela azaldu dute: "Lehen diskoan ez genuen elkar hainbeste ezagutzen, baina kontzertu asko eta batera ordu asko igaro ostean askoz hobeto eza-

gutzen dugu elkar, eta nabaritzen da. Nahi geunena lortu dugu".

Izena, aurreko proiektuetatik

Taldearen izena Seiurte taldearen disko batetik datorrela azaldu dute. Duela urte batzuk Seiurte taldearen disko bat produzitu, grabatu eta nahasteko "plazera" izan zuela azaldu du Ezpalak taldeko gitarrista, Grises taldeko kidea eta Zestoako Gaztain estudioaren jabe Eñaut Gaztañagak: "Seiurteko abeslariari galdetu nionean diskoaren izenburua zein izango zen, *Ezpalak* izango zela erantzun zidan, eta beretzat zer esan nahi zuen adierazi zidan. Asko gustatu zitzaidan, eta beti izan dut go-goan etorkizuneko balizko proiektu baterako. Taldean proposatu nuen, eta ongi iruditu zitzaien".

Bihar arratsaldean egongo da talde zestoarra entzuteko aukera, eta sarrerak eskuragarri daude www.seminarixoa.eus webgunean, zortzi eurotan.

"ORAIN, SOINUEK NORTASUN PROPIOA DUTE, ETA EGUNGO DOINUAK DITUZTE ERREFERENTZIA"



Eguaztenean egindako prentsa agerraldian, Oxirondoko ludotekan. J.J.

Zerbitzua hobetzeko, martxan da ludoteken hausnarketa prozesua

Datozen asteetan hasiko dira prozesua garatzen, eta ekainerako amaituta izatea aurreikusten du Udalak

J.O. BERGARA

Hiru ludoteka daude, gaur-gaurkoz, Bergaran: Angiozarren, Osintxun eta Oxirondon. Udaltik azaldu dutenez, Angiozarko eta Osintxuko auzoetako ia ume guztiak erabiltzen dituzte bertako ludoteketako zerbitzuak; ez, aldiz, Oxirondoko ludotekakoak.

Ekainerako amaituta

Ekaitz Aranberri zinegotziaren esanetan, bertara hurbiltzen den haurren profilarren gehiengoa guraso etorkinen seme-alabak dira: "Hau honela izanda, ez da kulturartekotasuna eta integrazioa lantzeko espazio egokia. Euskararen erabilera sustatzeko ere zailtasunak izaten ditugu; ondorioz, zerbitzuari jarritako helburuetako batzuk ez dira une honetan behar bezala betetzen ari". Egoerari aurre egiteko, maiatzean partaidetza prozesu bat egingo da herriko gurasoekin,

haurrek ludotekan izenik ez emateko arrazoiak jakiteko. Zehaztu dutenez, bilera bana egingo da ludotekako erabiltzaile diren guraso eta umeekin eta ludotekako erabiltzaile ez diren gurasoekin. Hala, prozesua ekain erdialderako amaitzea aurreikusten dute.

Eskaintza egokitze

Zerbitzua ez erabiltzearen arrazoiak ezagututa eskaintza egokitzea aztertuko dutela azaldu dute, eta helburua Bergarako haur guztiak kalitatezko aisialdiaz gozatzeko aukera izan dezaten dela zehaztu. Gogorarazi dute ludoteka jolasa oinarri hartuta aisialdiaz modu hezitzailean gozatzeko zerbitzua dela, eta Udalaren asmoa gurasoekin ludotekaren inguruko hausnarketa partekatzea dela, "guztion artean etorkizunera begira egin beharreko urratsak definitzeko".

Chill Mafiaren eta Ben Yarten kontzertua kartzela zaharrean

Bihar eskainiko dute emanaldia nafarrek kartzela zaharrean. Hala ere, ez da lehen aldiz izango Chill Mafiako kideentzat herrian; martxoaren 20an izan ziren, frontoian, Ahaztu Barik taldeak antolatuta Telesforo Monzon omentzeko *Loreontzia berreraikiz* jaialdian.

Eurekin batera arituko da taula gainean zapatuan Ben Yart

musikaria ere. Auzoetako gazteen lokal eta elkarteko lekuetako hip-hop, trap, rap eta antzeko estiloak taularatuko ditu Mendillorri auzoko musikariak bihar kartzela zaharrean.

Bi saiotan egingo dute, lehenengo 16:30ean izango da eta bigarrena 18:30ean hasita. Kartzela zaharretik gogorarazi dute COVID-19agatik ezarritako arau eta segurtasun neurriak bete beharko direla biharko kontzertuetan, hala nola edukiera muga eta maskararen erabilera.

Kolektorea egiteko lanak hasiko ditu Ura Agentziak

Arizti eta Burubi arteko kolektorearen lehen zatia ondorengo hilabeteetan has daitezen nahi du Ura Agentziak. Asmoa da aurten egitea lan hori, eta kontratazio deialdia martxan da; bigarren zatia, aldiz, Galartzatik aurrerakoa, geldidago.

Maidar Arregi ANTZUOLA

Debagoienean, Antzuola da, Elgetarekin batera, herriko ur-zikinak oraindik araztegiara eramaten ez dituen herria. Ura Agentziak, Antzuolako Udalak eta Gipuzkoako Diputazioak makina bat bilera egin dute adostasuna lortu guran, oraingoan, badirudi herriko urak araztegiara eraman ahal izateko kolektorea egiten hasiko direla. "Orain bi aste, Ura Agentziarekin batzarra izan genuen, eta, behingoz, Arizti eta Burubi arteko kolektore zatia lehiaketara aterako dutela jakin dugu; aurten egiteko asmoa dute", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Lanok, ordea, 2020an ziren egitekoak eta hasierako helburua bidegorriarekin batera egitea zen. "2019ko batzarretan, Galartza eta Bergara arteko kolektore zatia egitea ere aurreikusitu genuen. 2020an, kolektorearen bi zatia egitea, alegia, eta, modu horretan, kolektorearekin batera bidegorria ere egitea".

Beñardo Kortabarria salatu du 40 urte daramatzala Antzuolako ur-zikinak erredera botatzen. "1980rako herriak ur-zikinak batzeko lanak eginda zituen, eta 40 urteren ostean erredera ur-zikina botatzen jarraitzen dugu. Astakeria hutsa da".



Arizti baserriaren aurrealdea, kolektoreko lanak egingo dituzten puntua. M.A.

"ASTAKERIA DA 40 URTEREN OSTEAN HERRIKO UR-ZIKINAK ERREKARA BOTATZEN JARRAITZEA"

Kolektorearen bigarren zatia

Galartzatik Bergararainoko zatia geldidago. "Ilunpeko estugunean erreka dago, eta, nolabait, erreka gainean egin beharko lirakeke lanak. Ura Agentziak eraso ekologikoa dela deritzo.

Errekara ur-zikinak botatzen dihardugula ikusita, arazo ekologiko hori gainditu egin beharko litzakeela uste dugu. Gainera, segurua ez den bidegorri bat sortu da. Herriar ugari errepide ertzean dabil, 200 metro ez direlako egiten, esandako arazoak daudelako eta bi erakunderen desadostasunagatik. Bitartean, herriarrek dira kaltetuak, beste behin".

Diputazioak dio Ura Agentzia bertan egiten ari den kanalizazio lana noiz amaituko zain dagoela bidegorria amaitzeko.



Arrolako kideak, mugarriz mugarri egindako ibilaldian. ARROLA

Mendi Asteari amaiera borobila eman diote Arrolako kideek

Urteko batzar orokorrean Arrolak batzordea berritu du; urteko balorazioa egin eta proposamenak ere jaso ditu

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aurtengo mendi asteari bukaera emateko, mugarriz mugarri Korosotik Deskargara doazen mugarri esanguratsuenen artean ibili dira Arrolako mendizaleak. Irteera pedagogikoa ere izan da, herriko mugarrien inguruan aditu Jose Mari Iturbek emandako azalpenei esker.

"Hamaika lagunek egin dugu 17 kilometroko eta bost bat orduko ibilbidea; gure mugarriez gain, inguru ederrak ezagutuz eta ulertuz ibili gara", azaldu dute Arrola Mendizale taldeko kideek.

Batzar orokorra

Urteko diru kontuen berri emateaz gain, egindako ekintzen berri eta proposamenak ere jaso zituzten. "50. urteurrenari begira 2022an zehar garatuko diren ekintzen antolakuntzarako komisia sortzea adostu dugu".

Bi urterako lau batzarkide berri izango ditu Arrolak: Oier Peñagarikano, Iñigo Ramirez de Okariz, Sara Arietaleaniz eta Alazne Jauregi –erreserban: Onintza Legorburu–. Beste urtebetean jarraituko dute Erlantz Iturbek, Jon Kortaturbebarriak, Ana Peñalbak eta Josune Iturbek.

Harrera elkarteak hitzaldia egingo du hilaren 13an

Elkartearen helburua da espetxetik edo erbestetik itzultzen direnei egoera berrira egokitzen laguntzea

Maidar Arregi ANTZUOLA

Harrera elkarteak egungo egoeraren berri emateko hitzaldia antolatu du maiatzaren 13rako, eguna. Osasun neurriak hartuta eta 60 lagunendako edukiera mugatua kontuan izanda, 18:30ean Torresoroan egingo da solasaldia. Jon Ugarte eta Josu Amantes preso ohiek eta Harre-rako kideek gidatuko dute.

Harrera elkarte asistentziala 2012an jaio zen. "Elkartearen helburua espetxetik edo erbestetik itzultzen diren gizon-ema-kumeei egoera berrira egokitze-

ko ahalik eta laguntza handiena ematea da". Harrera elkarteak, besteak beste, arlo juridiko-administratiboan, osasungintzan, asistentzia ekonomikoan eta lanaren bilaketan laguntza ematen die. Harrera-ren beharrak urte hauetan aldatuz joan dira; horiei aurre egiteko, bazkidetza kanpaina egin da Antzuolan.

"Behar horietaz hitz egiteko eta egungo egoeraren berri emateko hitzaldia antolatu dugu", esan du *Ez dot moztuko bizarra* taldeak, eta hitzaldira joateko dei egin die antzuolarrei.

200 metro eskas, ezbaian

Gipuzkoako Diputazioak gaineratu du bidegorri sarearen erabilera sustatu gura duela, eta dirulaguntza guztiak eskatzen dituela, baita Europakoa ere. Antzuolako Udalak salatu du Europako dirulaguntza funtsaren baitan ezin dela egon bidegorriaren azken 200 metroen egikaritzea, eta "lehenbailehen egiteko" exijitu dio Diputazioari.



Oinezko bat errepide ertzean Antzuolako bidegorrira sartzeko. MAIDER ARREGI



Aritz Ganboa artzaina Arruazuko Albi etxaldean. GOIENA

Lehen sektorea ardatz ondorengo egunetan

Landa eremuko bizimodua eta kultura aldarrikatzeko, Aritz Ganboa Arruazuko artzainak 'Bideak' dokumentala aurkeztuko du Torresoroan datorren martitzenean; ikus-entzunezkoaren ostean, solasaldia egiteko aukera izango dute antzuolarrek

Maidar Arregi ANTZUOLA

San Isidro eguna ate joka dagoen honetan, lehen sektoreari balioa emateko hainbat ekimen antolatatu du Antzuolako Udalak datozen egunetarako.

Hala, landa eremua eta kultura aintzat hartzeko eta landa eremuko bizitza aldarrikatzeko helburuarekin, Aritz Ganboa artzain nafarraren *Bideak* dokumentala ikusteko aukera izango dute antzuolarrek hilaren 11n, martitzena, 18:30ean, Torresoroan. Dokumentalak hiriarren eta landa eremuaren arteko zubiak eraikitzea du xede. Artzain baten hasierako ideia xume batetik sortutako proiektuaren fruitua da dokumentala.

Ikus-entzunezkoaren ostean, Arruazuko Ganboa artzainarekin eta Xabier Unanua zuzendariarekin solasaldia egiteko aukera izango dute bertaratutakoek. Sarrera doakoa den arren, ohi bezala, labur.eus/sarrerakan-tzuola helbidean edo liburutegian aurrez hartu behar da.

Abeltzaintza birsortzailea

Mungiaiko Iturbaltza proiektuko eta ustiatetik Unai Beitiak abeltzaintza birsortzaileaz jardungo du maiatzaren 14an, egubakoitza. "Lurra zainduz gero, abereak ere osasuntsu egongo dira, ondoren gu ere modu osasuntsuan elika gaitezen", azaldu du Garazi Larrea zinegotziak. Lurrari behar duen denbora ematea duela ardatz abeltzaintza birsortzaileak ere gaineratu du: "Lurrak behar duen atseden eta aldaketak behar ditu izan. Abere ezberdinak lur horietan txandakatzuz lortzen da lurra eta abereak behar duten oreka hori". Solasaldia 18:30ean Torresoroan izango da, eta sarrerak aurrez hartu behar dira.

EMAKUME BASERRITARRA ETA ABELTZAINZA BIRSORTZAILEA DIRA GAJETAKO BI

'Ez da kasualitatea'


Umorea, musika, bertsoa, jolasa, gogoeta eta emakumeen arteko konplizitatea uztartzen dituen bertso-saio musikatu egingo da hilaren 15ean, zapatuan, 18:30ean, eskolako patioan. *Ez da kasualitatea* saio musikatu gai jartzaile Saroi Jauregi izango da. Bertsolariak, aldiz, Onintza Enbeita, Alaia Martin, Maialen Arzallus eta Oihana Iguaran. Musikari lanetan Araitiz Bizkaik eta Gari Otamendik jardungo dute. Sarrera 10 euro da.

Emakume baserritarra

Lehen sektorea ardatz duen asteari amaiera borobila emateko, emakume baserritarra oinarri duen *Erroa eta geroa* dokumentala izango da ikusgai hilaren 17an, astelehena. Bertan, 13 emakumeren ahotsa jasotzen da, eta, ikus-entzunezkoaren ostean, solasaldia egiteko aukera izango da protagonistetako batekin. 30 minutu irauten du eta sarrera doakoa da.

Larreatarrak, Leongo goi-errendimenduko zentrora bidean

Atletismo Federazioak Ekain eta Ibai Larrea anaiak Leongo errendimendu altuko zentrorra joatera deitu ditu. Hala, hilaren 14an joango dira eta asteburuan zehar prestaketa saioa egingo dute han. Azken orduan, ordea, jakin dute COVID-19a dela-eta Europako Txapelketa ez dela jokatu. Ekainek ziurtatuta zeukan Europarako txartela.



Larrea anaiak. MIREIA BIKUÑA

San Isidro jaietako txorimalo lehiaketa deitu du Udalak

Iaz ezinezkoa izan bazen ere, San Isidro festaren baitan errotuta dagoen ohiturari eusteko aukera izango dute antzuolarrek aurtun. Hala, Antzuolako Udalak txorimalo lehiaketa egingo dela iragarri du. Bizi den egoera kontuan hartuta, gehienez lau laguneko taldeetan banatuta parte hartu daiteke lehiaketan, eta maiatzaren 12a, eguaztena,

da izena ematekoa azkeneko eguna. Hain zuzen, liburutegian eman behar dute izena parte-hartzaileek.

Hiru kategoriatan dago banatuta txorimalo lehiaketa, eta hauek dira jokoan dauden sariak: 12 urte artekoendako, Elosuko bentan zaldi ibilaldia; sari bera 12 eta 18 urte arteko txorimalo onenarendako ere; eta 18 urtetik gorako lanik onenak ere saria izango du: azokako sasoiko eta bertako produktuz osatutako saski eder bat.

Landatxopek batzordea berrituko du hilaren 22an

Herriko erretiratuen elkarteak, Landatxopek, maiatzaren 22rako, zapatua, antolatu du urteko batzar orokorra. Torresoroa aretoan egingo du elkarteak, pandemiaren ondorioz hartu behar diren osasun neurri zorrotzak bete daitezen –aretoaren gehienezko edukiera 60 lagunekoa da–.

Lehen deialdia 16:30erako egin dute; 17:00etarako bigarrena.

Gai zerrendari dagokionez, aurreko aktaren onarpenaren irakurketarekin hasiko dute batzarra.

2019ko eta 2020ko ekintzen memoria egingo dute; urte horietako memoria ekonomikoa ere aurkeztuko dute. 2021erako aurreikuspena gertu dute, eta horren berri ere emango dute.

Hainbat informazio eta proposamen jasoko dituzte, eta batzordeko kideen aldaketen berri ere eman. Jakinarazi dute ez dela meriendarik izango.

Euskadiko trial txapelketa jokatu da Antzuolan

Pandemiak eraginda, ikuslerik gabeko Euskadiko trial txapelketa jokatu da maiatzaren 29an, zapatua, Antzuolan. Alebinak, gazteak, klasikoak eta TR1, TR2, TR3 eta TR4 mailetako gidariak lehiatu dira. Lehen pilotua 15:00etan abiatu da. Ibilbideak hamar gune ditu eta bi buelta eman beharko dituzte parte-hartzaileek.

Arrolara eta Trekutza eroango dute aldarrikapena

Izan Bidea dinamikaren baitan, maiatzaren 8an, bihar, Trekutza eta Arrolara igoera egingo dute herriarrek. Bi irteerak goizeko bederatziatan plazatik abiatu dira eta talde argazkia 11:00etan aterako dute. Kamisetak eta izarak eramateko dei egin dute antolatzaileek. Mas-kara derrigorrezkoa da; baita distantzia mantentzea.

Ozkarbi elkarteak itxita dago, baina ez geldirik

Gainerako elkarteak bezala sei hilabete luze doa itxita, baina zuzendaritza hilero elkartzen da eta, barne-antolaketa hobetzeko ahaleaginean aritzeaz gainera, proiektu berriak ditu esku artean. Galdeketa ere zabaldu dute bazkideen artean

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

"Ikusita gauzak antolatzeko urte oso txarra dela, helburua da martxan jarraitzea, eta geldirik ez egotea. Ez lagatzea elkarte bere horretan", azaldu du Ozkarbiko presidente Ana Gillegik. "Ez dugu nahi galdutako urtea izatea, eta barruko egitura hobetzen gabilta hurrengoari hobeto lagatzeko asmoz". Sistema informatikoa hobetzea, agiriak eta dokumentazioa ondo sailkatzea eta gordetzea, elkartearen dauden oharak eguneratzea eta bateratzea... "Eskuliburu moduko bat ere egin nahi dugu, idatziz jasota gelditzeko atal bakoitzean zeintzuk diren egitekoak eta nola egiten diren -bodegako lanak, administraziokoak, idazkaritzakoak...-".

Egutegi bat ere egin dute, egun seinalatuetan elkartearen gizar-arekiko eta herriarekiko konpromisoa adierazteko. "Oraingoz, bakoitza jantzea izango da. Martxoaren 8an egin genuen, eta laster etorriko da Ozkarbi Eguna ere". Iaz, bertan behera gelditu zen ospakizuna. "Aurten nahiko genuke zerbait berezia eskaini, baina zaila izango da. Ez dugu jende pilaketarik eragin nahi. Bagabiltza zerbait lantzen".

Lanketa berezia gazteekin

Une honetan Ozkarbik esku artean duen egitasmorik garrantzitsuenak herriko gazteekin egin nahiko luketen lanketa prozesua dela azaldu du Gillegik. "Maiztzean abiarazi nahi dugu, eta herriko gazte guztiei zuzendutakoa izango da, ez bakarrik bazkide direnei. Pertsona bat kontratatatu dugu, eta ekainean gazteekin egun bateko langintza egitea da asmoa. Hartu-eman edukia nahi dugu herriko gazteekin, baina kosta egiten da. Prozesu honekin gustatuko litzaziguke jakitea gazteek zer nahiko luketen, ze proiektu ikusten duten, ze helbururekin...".



Pandemia egoera dela-eta itxita eta hutsik dago Ozkarbi elkarteak. L.Z.L.

PERTSONA BAT KONTRATATU DUTE EKAINERA BITARTEAN LANKETA BAT EGITEKO GAZTEEKIN

Irisgarritasun kognitiboa

Bestelako egitasmoak ere badiutuzte esku artean; esaterako, irisgarritasun kognitiboa lantzea. "Orain arte, irisgarritasun fisikoak landu dira, eta, aurrerantzean, irisgarritasun kognitiboa ere landu nahi dugu. Esaterako, sukaldean gauzak topatzeko. Ideia da piktogramak jartzea, eta, idatziz baino gehiago, irudi bidez azaltzea armairu edo tiradera bakoitzean zer dagoen. Modu berean, ateetan piktograma bidez azaltzea atzean zer dagoen; taberna dela, sukaldea dela, komunak direla, jangela dela, garbitasunerako gela dela...".

Bergarako Goienetxe Fundazioko Garagunearekin ere hartu-emanetan daude. "Konpromisoa lotu nahiko genuke haiena izateko elkartearen loreak ipintzeko ardura, eta ekimen hori urtero egitea. Guk loreontziak

eramango genizkieke, eta haien ardura izango litzateke loreak ipintzea eta ekartzea. Ikusiko dugu posible den".

Bazkideen ekarpenen zain

Bazkideen ideiak eta ekarpenak ere gustura jasoko dituztela adierazi du Gillegik. "Osasun larrialdia luze doakigu, eta gauden egoeran elkarteak itxita jarraitzen du, baina zuzendaritza martxan da eta hobekuntzak egin nahi ditugu. Oraingoz, mantentze-lanak otu zaizkigu: sarreraren horma-irudi bat egitea, gazteen lokalean beste horma-irudi bat egitea, eskaileretan argazkiak ipintzea... Hala ere, bazkideengandik heldu daitezkeen proposamen guztiak aztertuko ditugu, eta gustura jasoko ditugu, gainera".

Posta elektronikoz egin dute ekarpenak bidaltzeko gonbidapena, baina buzoietara ere bidali gura dute oharra. "Zer uste duzu hobetu beharko litzatekeela?". Hori da galdera. "Atarian gauzak uzteko takilak, sukaldean tresneria beste era batera antolatzea? Karteldegia?". Azken finean, bazkideek zer sumatzen duten faltan jakin gura dute.

"Gure gizarte hau motz gelditzen da genero kontuetan"

Domekako 'Luze edo motz' bakarrizketa saiorako sarrerak doan dira, eta online erreserba daitezke

L.Z.L. ELGETA

Mirari Martiarena Iraola (Oiarzun, 1986) eta Idoia Torregarai Martija (Usurbil, 1974) Espaloian izango dira domekan. Bideberri mankomunitateak antolatuta, *Luze edo motz* umorezko bakarrizketa saioa egingo dute, 18:30ean.

Genero gaietan oinarritutako proposamena da. Zer pentsatu eman nahi diote ikusleari, eta beste lorpen batzuk egiten direla sinistuta umorea baliatzen dute genero gaiak naturaltasunez lantzeko. Horrekin batera, pilota jokoarekin lotutako esapide ugari erabiltzen dituzte. Bietan nor hasiko den ere txapa botata erabakiko dute. "Eguneroko gauza txikiak kontatzen ditugu", aurreratu dute irribarre bihurriarekin. Hilekoa, menopausia, emakumeen masturbazioa, ligatzeko kontuak eta sexua



Martiarena eta Torregarai. 'LUZE EDO MOTZ'

dituzte hizpide, besteak beste. Argitu dute *Luze edo motz* ez dela soilik emakumeendako.

Urrian estreinatu zuten, eta ordutik eman du zeresana, inprobisazioak badu-eta espazioa. Elgetako saioak zer emango duen domekan ikusiko da.



ELGETAKO LIBURUTEGIA

Artista liburu onenak, sarituta

Sei artista liburu aurkeztu dituzte liburutegiak antolatutako lehiaketara eta Laida Unzetabarrenetxea Urbistondok eta Aiara Ortuzar Ezpeletak jaso dute saria. Bestelako sariak ere banatu ditu asteotan liburutegiak. Liburuaren Egunaren bueltan egindako zozketetan, Alazne Azkaratek eta Maria Mendazonak liburu sorta eta liburu bat jaso zituzten opari.



EAJko ordezkari Josu Leturia eta Aintzane Oiarbide, San Roke kaleko baranden egoera ikuskatzen. L.Z.L.

Hiri-altzari asko "utzita" daudela salatu du EAJk

Konponketak lehenbailehen egiteko eta beharrezkoa bada beste diru-lerro bat sortzeko eskatu dio oposizioak Udal Gobernuari. Alkateak ez du mantentze-lanen premia ukatu. Esan du maiatz amaierako dituztela aurreikusita lan horiek brigadako langileek

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Oposizioak gogor kritikatu du hiri-altzarien egoera. "Mantentze falta ikaragarria" dagoela uste dute, eta "erabat utzita" daudela herriguneko zein inguruko pasealekuetako hainbat eserleku eta baranda. Herriak "itxura eskasa" erakusten duela iritzita neurriak hartzeko eskatu diote

EH Bilduko Udal Gobernuari. Artekale eta eliza osteko bankuak eta barandak ipini dituzte adibide gisa, baita ere Kantoikua baserri ingurukoak, Asentziokoak zein Eibarrerako errepidean daudenak. San Roke osteko bizikleta-gune inguruan, berriz, "bizikletak txukun aparkatzeko euskarriak" jartzea eskatu dute.

"Ikusi besterik ez dago. Uste dut edozein elgetarrek badakiela zertaz ari garen. Aurrekontuetan badago 8.000 euroko diru-lerro bat parkeak eta herriko altzariak konpontzeko. Ez dakiguna da noiz erabili behar duen edo zertarako erabili behar duen Udal Gobernuak. Partida hori ez baldin bada iristen altzari horiek

guztiak txukuntzeko—eta, zenbait kasutan, berriak ipintzeko—, Udal Gobernuari eskatzen diogu lehenbailehen beste partida bat sortzeko", esan du EAJko Aintzane Oiarbidek.

Belarrekin bukatutakoan

Iraitx Lazkano alkateak ez du mantentze-lanen premia ukatu. "Herriko hainbat altzarik mantentze beharra dute. Guk ere ikusten dugu. Urteroko martxan brigadako langileen lanetan sartuta dago". Esan du maiatz bukaeratik aurrera ekingo dio-

tela zeregin horri brigadako langileek, belarrekin bukatuta-koan. Gaineratu du hala txukundu zirela aurretik ere plaza inguruko hainbat baranda, eta aurreko asteotan egin zirela, auzolanean, Intxortako ibilbidea txukuntzeko lanak.

ALKATEAK DIO MAIATZ AMAIERAN EHINGO DIETELA MANTENTZE-LANEI BRIGADAKO LANGILEEK

Beste bi positibo erregistratu dira aste honetan Elgetan

Martitzenekoak dira, eta aste bukaeran ez badira bi baino gehiago atzematen irekita jarraituko du herriak

L.Z.L. ELGETA

Bi positibo erregistratu dira aste honetan Elgetan. Horrenbestez, eta gaurko datuen zain, intzidentzia-tasa 1.149,43 da eta birsorkuntza-tasa 1,18.

Astebeteko itxiera perimetralaren ostean, eremu gorriko herriko zerrendatik irten zen Elgeta astelehenean, eta aurreko egoerara itzuli zen martitzenean, mugikortasun neurrirei zein ostalaritza eta kirol jarduerari dagokienez.

Osasun Sailak astelehenean eguneratuko du zerrenda hori,

eta aurreikustekoa da kontuan hartuko dituen hiru neurrietatik bi—herriaren intzidentzia-tasa eta osasun eremuaren intzidentzia-tasa— itxiera ezartzeko modukoak izango direla.

Soilik astebetean lau edo lau positibotik behera edukitzeak saihestuko du itxiera. Herrien ebazpena astelehenean argitaratuko dute osasun agintariek.

Kontuan hartzekoa izango da, baita ere, Eusko Jaurlaritzak gaur ezagutzea ematekoa duen alarma egoera osterako dekretu berriak zer jasotzen duen.

GORA ETA BEHERA



ANA GILLEG

Baimendutako autoak bakarrik sar daitezke

"Sarreran dagoen kartelak argi esaten du, baina jendeak ez du aintzat hartzen, eta eguneroko kontua da. Arriskutsua da eta garajeetatik sartu-irteerak egiteko arazoak sortzen dira".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Azkonabietara eta Egoarbitzara heldu nahi du Sarek zapatuan

Urriaren egitekoa zen Izan Bidea ekimena biharko deitu du Sarek. Euskal Herriko 650 menditara igotzeko erronka bota dute, eta Elgeta ere batu da ekimenara. Azkonabietara eta Egoarbitzara igotzeko dei egin dute egun horretarako. Presoak Euskal Herri hurbiltzeko eta gaixo dauden etxeratzea aldarrikatzeko ekintza izango da. Nor bere erritmoan igoko da tontorretara; oinez, korrika, bizikletan... Hala ere, hiru hitzordu daude finkatuta. Talde bat 10:00etan abiatuko da plazatik, eta bi talde argazki ateratzeko hitzorduak daude eginda: 11:00etan Azkonabietan eta 12:00etan, berriz, Egoarbitzan.



Kultura etxearen parean egokitu duten gunea, Elkar Heziko ikastetxearen ondoan. O.E.

Bizikleten aparkaleku estaliak, erabilgarri

Bizikletentzako aparkaleku estaliak jarri dituzte herriko hiru puntutan, baina gehiago jartzeko asmoa ere badu Udalak, ikasleek asko erabiltzen jarraitzen dutela berresten bada, eta beharra baldin badago; patineteentzako ere egokitu du toki bat

Oihana Elortza OÑATI

Bizikletentzako aparkaleku estaliak jarri dituzte Oñatiko hiru puntutan; baita patineteentzako beste bat ere. Aurrekontu parte-hartzaileetan ateratako eskaera bat izan da eta oraintxe egin dituzte lanak, zein behar dauden ikusita eta gune aproposenak zeintzuk izango ziren aztertuta.

Erabilera handitzen doa

Guneetako bat Txantxiku ikastola eta Zubikoa kiroldegi ingurua da. Udaltzaingoaren eraikinaren atzean dagoen txoko bat egokitu egin dute bizikletak aparkatzeko; berdura azoka ondoan jarri dute horretarako den beste gune bat ere, estalia, eta Santa Ana antzokiaren parean, pareta kontran, patineteak uzteko tokia prestatu dute. Inguru horretan patinete zein bizikleta asko egoten dira kaleko pareten kontra utzita, eta, jarritako zerbitzu horiekin, gutxiago ikusten dira.

Beste guneetako bat Oñati Institutua da, DBHko eta batxilergo mailako ikasleak dauden eraikina, Aita Madina kalean. Eta hirugarrena, Elkar Heziren Santa Marinako eraikinaren ondoan dagoena, kultur etxearen parean. Izan ere, berez ikasleek erabiltzeko pentsatuta dauden arren, edonorendako dira; esaterako, kultura etxera edo kiroldegira doan edozein herritarrendako. "Udaletik, mugikortasun jasangarriaren baitan, bai bultzatu ditugu ikasleak, batik bat, eskolara bizikletan, patinetean edo oinez joatera. Eta ikusi dugu 2019tik 2020ra ohitura horrek gora egin duela. Garraio-bide horien beste kontaketa bat egingo dugu laster, ikusteko

IKASLEEN BIZIKLETEN ETA PATINETEEN KONTAKETA EGINGO DUTE, ERABILERA NEURTZEKO

benetan badagoela igoera hori. Askok erabiltzen dira, eta guneak antolatu ditugu horri erantzuteko", dio Izaro Elorza alkateak.

Ikastetxeekin batera

Proiektua egiterakoan harremanetan egon da Udala herriko ikastetxeekin, eta oraindik bukatu gabe dago. Urgain Errekalden eta Elkar Hezik Arantzazuko Ama kalean duen eraikin ondoan ere jarriko dituzte beharrezko zerbitzu horiek. "Txantxiku Ikastolan, esaterako, ari dira ikasleei gogorarazten aurrerantzean gune horiek erabiltzeko bizikletak edo patineteak uzteko. Urgain Errekaldeko eraikinean obra batzuk egin behar dituzte eta lan horiekin batera aztertuko da gero horrelako zerbitzu baten beharra eta non jarri. Elkar Hezin, berriz, datorren ikasturte hasieran, irailean, dugu asmoa aztertzeke zer jarri han, eurek duten eskaera kontuan hartuta", zehaztu du alkateak.



Ikasleak, biharko lehiaketarako robotak prestatzen. OÑATI INSTITUTUA

Herriko toki pasiboak aktibo bihurtu dituen 'app'-a egin dute

Proiektu horrekin lehiatuko dira bihar Oñati Institutuko DBHko 4. mailako ikasleak First Lego League lehiaketan

O.E. OÑATI

Kirola edo aktibitate fisikoa egin daitekeen herriko zazpi gune jasotzen dituen mapa interaktiboa egin du Oñati Institutuko DBHko 4. mailako ikasle talde batek. Berez toki pasiboak diren eremuak gune aktibo bihurtu dituzte eta irudietan ikusi ahal izango da zer-nolako ariketak egin daitezkeen gune bakoitzean, kirol egokitua barne. Horretaz gain, baina, toki horren inguruko informazioa ere batu dute, bai landaretza aldetik, adibidez, naturari lotutako informazioa, eta baita informazio kulturala ere. Eta kantu bat ere egin dute, eurek konposatuta eta letra jarrita, aplikazio hori osatzeko. Hiru hizkuntzatan egin dute.

QR kodea irakurrita jaisten da Android mugikorretan eta tabletetan jaitsi daiteke *Oñati replay dance app* izena duen

aplikazioa, QR kode bat irakurrita. Eta horrekin lehiatuko dira bihar, zapatua, Arrasaten egingo den First Lego League lehiaketan, beste hainbat ikastetxetako ikasleekin batera. Proiektua aurkeztuko dute lehenengo, eta robota gero. Izan ere, azken proba izango da antolatzailerik jarritako proba batzuk gauditzea denbora jakin baten barruan, eta hori egin ahal izateko robota ere egin dute.

Ikasturte hasieratik landu dute gaia DBHko 4. mailako ikasleek. Denen artean egindako proiektua da, talde lanean, baina biharko lehiaketara eurretako hamar ikasle joango dira, denen ordezkari. Aurtengo txapelketan ez da kanpoko ikuslerik egongo, burbuila-talde moduan lan egingo du ikastetxe bakoitzetik joango den ikasle taldeak eta bakoitzak gela baten egingo ditu aurkezpenak eta proba.

Gaztetxea zabalik dago eta egitaraua prestatzen dabiltza

Antixena gaztetxea zabalik dago berriz eta bertako erabiltzaileak hasi dira dagoeneko lehengo martxa hartu eta datozen asteetarako zer antolatuko duten pentsatzen. Udaberriko egitarauarekin jarraitzea da euren asmoa, eta udakoa prestatzen segitzea. Sare sozialen bidez jakinarazi dutenez, hamaika eragile gaztetxean dira berriz.

Betiko moduan ez, baina San Migel Txikixak bai

Aurten ere ezin izango dira ospatu ohiko moduan San Migel Txiki jaiak, baina egongo da zertaz gozatu. Potx magoaren ikuskizuna eta Irene eta Asierren eta Andoni Ollokiegiren kontzertuak, adibidez. Ekitaldiak Irunberri plazan izango dira, doan, eta sarrerak zapatu eta domeka goizetan banatuko dituzte Zazpibideta bidegurutzean.

Maiatzaren 17an zabaldu gura dute gimnasioa

Gimnasioarekin batera rokodromoa eta boulderra ere aste horretan zabalduko dituzte, 17an, ahal dela, eta Zubikoako ordutegia aldatu egingo da. Eltziako gimnasioa eguaztenean itxiko dute eta makinak gimnasio berrira eramango dituzte

Oihana Elortza OÑATI

Maiatzaren 17an zabaldu gura dituzte Zubikoa eraberrituaren gimnasioa, rokodromoa eta boulderra, eta horretan ari dira lanean. Zerbitzu horiek zabalduta, fitness gelak, sarrera eta squash gela irekiko dituzte jarraian datozen asteetan. Horrela, kiroldegiko zerbitzu guztiak egongo dira laster erabilgarri, sauna salbu; bukatuta dago, baina pandemiagatik ezin da erabili.

Aurrez hartu behar da txanda

Eguaztenean, maiatzak 12, itxiko dute Eltziako gimnasioa, eta kirol aparailuak eta bestelako elementuak lekuz aldatuko dituzte hurrengo egunetan Zubikoara, maiatzaren 17tik aurrera, ahal dela, gimnasio berria erabilgarri egon dadin. Lehengoez gain, aparailu berriak ere egongo dira.

Hiru zerbitzu horiek erabiltzeko, baina, txanda hartu behar da aurretik; erreserba egitea nahitaezkoa izango da. Eta per-

tsona bakoitzak erreserba bat egin dezake eguneko. Gimnasioa erabili ondoren, beste erreserba bat egiteko aukera izango du, baina hiru eguneko epearekin egin ahal izango du, ezingo da bi egun jarraian gimnasioa erabili. Txandak ordu eta erdikoak izango dira. Abonatuak izango dituzte aukera erreserbak egiteko eta abonatuta ez daudenek eguneko sarrerak izango dituzte salgai, tokirik balego. Erreserba telefono bidez egingo da hasierako egunetan, baina, epe laburrean, online egiteko aukera ere martxan egongo da. Sartzeko, kirol txartela beharko da.

Igerilekuaz gain, gimnasioa, rokodromoa eta boulderra ere zabalik eta erabilgarri egongo

FITNESS GELAK, SARRERA ETA SQUASH GELA ERE DATOZEN ASTEETAN IREKIKO DITUZTE

dira laster, eta, horrekin batera, ordutegi berria izango du Zubikoa kiroldegia. Maiatzaren 17tik aurrera, 07:30etik 21:00era egongo da zabalik astelehenetik egubakoitzera; 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:30era zapatuetan; eta 09:00etatik 13:00etara domekutan eta jaiegunetan.

Aldagelak itxita egoera gorrian

Osasun agintariek hartzen dituzten neurrien arabera egokituko dira erabilera-baldintzak; edukierari lotutakoa, adibidez. Gimnasioan 30 lagun egongo dira batera, gehienez; rokodromoan sei eta boulderrean zortzi. Horrez gain, derrigorrezkoa izango da maskara erabiltzea eta erabiltzaileen arteko segurtasun distantzia gordetzea. Instalazioak etengabe aireztatuko dituzte eta erabilgarri daudela adierazten duten armairuak erabiliko dira. Aldagelak, bestalde, itxita egongo dira Oñati eremu gorrian dagoen bitartean.



Lehengo makinez gain, berriak ere egongo dira Zubikoako gimnasioan. OÑATIKO UDALA

"Hausnartzeko dokumentala da, abstraktua, ez da pedagogikoa"

AIMAR URIBESALGO DOKUMENTALAREN EGILEA

Hiru emanaldi egingo dituzte; eguaztenean lehenengoa

O.E. OÑATI

Turismoa da Uribesalgoren *Pe-rigrino modernoaren oporrak* ikus-entzunezko horren gaia; turismoari egindako kritika, bereziki. Hilaren 12an gaztetxean eskainiko dute eta 18an eta 19an, zinema aretoan. 19:00etan izango dira emanaldi guztiak.

Zergatik turismoari kritika?

Turismoari ez ezik, kapitalismoari, merkatu sistemari edo estatu sozialista moduan ezagutzen ditugun erregimenei ere egiten zaie kritika.

Ze turismo mota kritikatzan da?

Dena, ez soilik hotel garestietan egiten dena. Baita euren burua bidaiari moduan aurkezten dutenena ere. Orokorra da kritika. Ez da lan pedagogiko bat, teoria sakona du, abstraktua da; hausnarketarako material edo mezu asko ditu.

Nondik abiatu zara hau egiteko?

Asiara egindako neure opor bidaia batetik. Hango irudiak hartzen hasi nintzen, eta turismoari erreparatu nion gero. Nonbait irakurri nuen turismoa munduko industria handiaketakoa zela, eta inprobisatu eta gai horren bueltan hasi nintzen lanean.



Aimar Uribesalgo. A.U.

Nola osatu duzu lana?

Irudi gehienak duela bost urte egindako bidaia hartakoak dira, baina badira gehiago ere. 70 minutu irauten du, eta, Quentin Tarantino zuzendariaren film batzuk bezala, hau ere kapitulutan banatuta dago. Gidoia eta muntaia, esaterako, neuk egin ditut. Ahotsa bidaia hura nirekin egin zuen neskarena da eta animazioak anaiak egin ditu. Kapituluetan musika eta bertsoak ere badaude sartuta, eta horietan ere izan dut lagun laguntza.

NIRE USTEZ

XABI GESALAGA

'Hard times' (garai gogorak)

Oñatiarra naiz, bi hilabetez konfinatuta egon nintzen etxean. Gure aitona-amonei, gerra tokatu zitzaie; guri, birusaren aurkako borroka. Etxean bi hilabetez preso. Haurrek, gure nagusiek, asko sufritu dute. Aire garbiaren premia dugu. Gaixotasun mentalak areagotu dira, nerabeek hormonak dantzan, egonezina, tristura. Osasun sistema osoa balantzan ikusi dugu. Familian heriotzak. Lanpostuak galdu dira. *Hard times*, garai gogorak bistan. Afganiarra naiz, errefuxiatu kanpaleku batean urtebetez konfinatuta nago. Gure arbasoei, zuek puztutako gerran borrokatzea tokatu zitzaie; guri, haiek hasitakoa jarraitzea. Heriotzari ihesi, familiarekin Europara. Biziko banaiz, egunero, txiza eta kaka usaina arnastu beharra dut. Inguruan ez dut inor ezagutzen. Depresioa eta antsietatea bai -13 urteko alabak "ez dut bizitzen jarraitu nahi" idatzi zuen olibondo-enbor batean-. Harakina nintzen, negozio propioa nuen. Orain, Europaren "eskuzabaltasunari" esker "jaten, arnasten" dut. "Eskerrik asko". Orain, gu, europarrok, euren azalean jartzeko gai ote gara? "Viva", "normalidade berria".



Aloña Mendiko igerilariak, eguazten goizean, zapatuko lehiaketarako entrenatzen. JOSUNE ODRIÓZOLA

Igerileku berrian guztia prest txapelketarako

Guztira, sei taldetako 110 igerilari inguruk hartuko dute parte bihar, zapatua, lehiaketan estreinatuko den igerilekuan; segurtasun neurri zorrotzak beteko dituzte eta espero dute beste txapelketa askoren lehenengoa izatea bihar jokatu dena

Amaia Txintxurreta OÑATI

Iritsi da eguna; bihar, zapatua, egingo dute lehenengo txapelketa igerileku berrian. Guztia gertu dago: bederatzi kaleko igerilekua, protokolo guztiak eginda, Aloña Mendiko igerilari ohiak eta juntakoak boluntario izateko prest... Baina, zoritxarrez, pandemiaren eragina ere sumatuko da txapelketan. Izan ere, bertan parte hartu behar zuten Oñatiko igerilarien erdiak konfinatuta daude. Eta ondorioz, Aloña Mendiko hamabi igerilari bakarrik parte hartu ahal izango dute. "Deseatzen geunden guztiok herriko igerilekua txapelketan estreinatzeko, baina igerilari batzuen bajarekin egin beharko dugu", azaldu du Josune Odriozola entrenatzaileak. Aurretik izan dituzten txapelketetan bajaren bat izan dutela gaineratu du Odriozolak, baina inoiz ez horrenbeste batera. Dena den, dutenarekin egingo dute aurrera, taldearen emaitza onea lortzeko helburuarekin.

110 igerilari inguru

Zazpi taldetako igerilariak ziren etortzekoak Oñatiko txapelketara, baina Legazpiko igerilari dezente ere konfinatuta daudenez, eta haiek ez dira etorriko. Gainontzean, oñatiarrekin batera parte hartuko dute beste hauek: Bergarakoek, Azpeitiko Izarraitz taldekoek, Eibarkoek, Azkoitiko Zubiaurrekoek eta Donostiako Fortunakoek. Azken orduko bajarik ez badago, 110 igerilari inguru izango dira.

Pandemiagatik, neguko ligan ez dira erreleboen probak egiten ari, baina beste proba hauek egingo dituzte: estilo librean 50 eta 1.500 metro arteko probak; atzerakoan, brazan eta tximeletan 50 eta 200 metro artekoak;

**ALOÑA MENDIKO
HAMABI IGERILARIK
HARTUKO DUTE PARTE;
BESTE HORRENBESTE
KONFINATUTA DAUDE**

eta estiloetan ere lehiatuko dira, 100 eta 400 metroko probetan. Igerilari bakoitzak hirutan parte hartu ahal izango du.

Protokolo guztiak betez

Arratsaldean igerilekua itxita egongo da bazkideendako, eta protokoloa ondo zehaztuta dutela adierazi du Odriozolak. Gaur egun erabiltzen den sarrreratik sartuko dira igerilariak, bi txandatan, talde batetik bestera bost minutuko tartea utzita. Temperatura hartuko zaie eta Gipuzkoako Federazioak emandako galdetegi bat bete beharko dute igerilariak. Aldagelak ez dituzte erabilgarri izango, eta igerileku kanpoan talde bakoitzak bere lekua izango du; harmailak ere igerilariak erabiliko dituzte eta ez da publikorik egongo. Bost kale beharrean bederatzi dituen igerileku berriak, txapelketa bera aurretik Oñatin egiten zirenak baino motzagoa izango dela aurreikusitako dute.

"Euskal zineman muturra sartzeko ahaleginetan nabil"

IRATI ELORTONDO 'SCRIPT'-A

'Hormak' film laburreko grabazioan izan da asteon

A. T. OÑATI

Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi ostean, Bartzelonara joan zen Irati Elortondo oñatiarra, zine zuzendaritza ikasketak egitera. Masterreko proiektuan, *Agnes* film laburra zuzendu zuen 2018an, eta orain, berarekin ikasten ibilitako hainbat kidearekin batera *Hormak* film laburra grabatzen izan da Gasteizen; *script* lanak egin ditu.

Zein izan da, zehazki, zure lana?

Mikel Uralde zuzendariaren ondoan egon naiz une oro, jarraitutasuna eramaten. Grabazioetan sarri grabatzen dira gero film laburrean bata bestearen ondoren joango diren sekuentziak alderantziz, eta, muntaian egiten den lana errazte aldera, eszena onak izan direnak apuntatu ditut. Horrez gain, aktoreek zera-matzaten arropak, ilea eta plano batean egon daitezkeen mahaitresnak nola zeuden ondo begiratu behar izan dut, hurrengo grabazioan guztia berdin-berdin egon zedin.

Zer moduzko esperientzia izan da?

Oso ona. Aurretik inoiz egon barik nengoen horrenbeste egun jarraian grabazio batean, eta ikaragarria izan da. Aurreko asteko eguenetik eguazten honetara bitartean egin ditugu ordu askoko grabazioak Gasteizen, eta oso gogorra izan da, baina merezi izan du.

Nolatan sortu zitzaizuen film laburra aurrera eramateko aukera?

Gasteizko Udalak eta Oihaneder Euskararen Etxeak jarritako



Irati Elortondo. ANICE MATEU

Gazte Sortzaileak bekaren babsa izan dugu. Horrez gain, *crowdfunding* bat ere egin genuen, eta oso eskertuta gaude, 4.500 euro jasotzea lortu genuen.

Euskaraz egin duzue, ezta?

Bai; oso garrantzitsua zen hori guretzat, horrelako oso proiektu gutxi egiten dira-eta euskaraz. Euskal zineman muturra sartzeko ahaleginetan nabil, gaitz nontzeko taldekideak bezala, eta guk ere horren parte izan nahi dugu. Beraz, euskarazko lanak sortzen gabilta; dagoeneko badaukat beste proiektu baterako gidoi bat idatzita, gazteen lan prekarietateari buruzkoa, eta horretarako ere dirulaguntzak lortu nahi ditut.

Grabatu berri duzuen lanarekin zein helburu dituzue?

Orain, muntaiarekin gabilta, eta asmoa da uda inguruan jaialdietara aurkeztea.

Musika eskolako ikasleek hainbat saio eskainiko dituzte

Orain arte egindako lana jendaurrean erakutsiko dute Jose de Azpiazu musika eskolako hainbat musikariek.

Alde batetik, bihar, zapatua, 12:30ean Lazarraga lorategian akordeoi emanaldia eskainiko dute. Eta bestetik, astelehenetik aurrera, astean zehar beste hainbat instrumenturen entzunaldiak antolatu dituzte. Hauek, zehaz-

ki: astelehenean, hilaren 10ean, 18:30ean, Santa Ana aretoan, piano entzunaldia egingo dute; hilaren 12an, 18:30ean, Santa Ana aretoan, txistuaz eta zeharkako txirulaz gozatu ahal izango da; 13an, 17:30ean, Santa Ana aretoan, trikiti saioa eskainiko dute; egun berean, hilaren 13an, baina 18:00etan, gaztelekuan, perkusio doinuak entzun ahal izango dira gaztetxo musikarien eskutik; eta 18an, 17:30ean, Santa Anan, gitarra saioa eskainiko dute beste hainbat ikaslek.



DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, beheak / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, beheak / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Oñalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, beheak / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, beheak / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iratibarra 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, beheak
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, beheak / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, beheak esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11



Ointxe!-ko zuzendaritzakoak, hainbat jokalarirekin, babesleekin eta Udal ordezkariekin, eguazteneko agerraldian. X.U.

Ez doaz Saloura hondartza bila

SASKIBALOIA EBA mailan 127 taldek hasi zuten liga, eta hamasei onenak batuko dira maiatzaren 13tik 16ra bitartean Valentzian eta Saloun, igoera fasea jokatzeko. MUK 'Aurten ere bai!' leloa jarri zion denboraldiari, eta ametsa betetzeko bidean dira

Xabier Urzelai ARRASATE

Eguzki gosez baino gehiago, saskibaloia gosez dira Mondragon Unibertsitateko mutilak, eta Saloun lehenengotik ez, baina bigarrenetik asko izango dute maiatzaren 13tik 16ra bitartean. Izan ere, datorren asteburuan jokatu dute moreek kantxan lortu duten hori, Zilarrezko LEB Mailara igotzeko igoera fasea.

Saloun eta Valentzian

Udazkenean, pandemia egoeratik buruhauste bat baino gehiagorekin, Espainiako EBA kategorian 127 taldek hasi zuten txapelketa, eta arrasatearrek hamasei onenen artean amaitu dute liga erregularra; gainera. Eta orain dator saria. Hamasei talde onenek Zilarrezko LEB Mailara igotzeko fasea jokatu dute Saloun eta Valentzian, eta bost talderendako egongo da

mailaz igotzeko txartela. "A taldekoek Saloun jokatu dugu fase hori eta B taldekoek, Valentzian. Eta Saloun lau taldez osatutako bi multzo izango dira. Hala, guztira, hiru partidu jokatu ditugu, eta multzo bakoitzeko onena mailaz igoko da. Bosgarren txartel bat ere egongo da jokoan, multzo guztien artean bigarren onenarendako izango dena", adierazi zuten klubeko ordezkariak eguaztenean Arrasateko plazan egindako agerraldian. Oraindik, baina, arrasatearrek ez dakite datorren asteburuan Tarragonan jokatu dute igoera fase horretan ze hiru talde izango dituzten

ASTEBURU HONEN OSTEAN JAKINGO DUTE MU-KO EK ZE KONTRARIO IZANGO DITUZTEN SALOUN


aurrean; izan ere, multzo guztietan oraindik ez dute liga erregularra amaitu, oraingo asteburuan hainbat partidu erabakigarri daude, eta horiek jokatu-takoan jakingo dute zeintzuk diren hamasei talde onenak.

Bigarren urtez jarraian

Arrasateko taldearen lorpena ez da nolanahikoa, bigarren urtez izango dute mailaz igotzeko aukera, eta, hain zuzen, lelo hori jarri diote aurtengo denboraldiari: *Aurten ere bai!*


Izan ere, iaz koronabirusak bat-batean eten zituen liga guztiak, eta Espainiako Federazioak Zilarrezko LEB Mailan jokatzeko txartela eman zion MUri, multzoko lider zegoen-eta ete-naldiaren aurretik. Baina orduan, Ointxe! klubeko ordezkariak ez zuten pausoa eman. "Klubak, alde batetik, behar ekonomikoak eta, bestetik, joko-instalazioen inguruko bal-

MU igoera fasean izango da:



OIHANE AGIRRE
OINTXE!-KO PRESIDENTEA

"Denboraldi hasieran amesten genuen lekuan gaude. Lehenengo pausoa egin dugu, EBAko multzoko txapeldun izan gara, eta orain, bigarren pausoa ematea geratzen da, igoera fase ona egitea. Ondoren etorriko da zuzendaritza taldearentzako erronka; iaz izan ez genuen babes lortzeko egingo dugu lan".




IÑAKI OGARA OINTXE!-KO
KIROL ZUZENDARIA

"Denboraldi oso ona izan da orain arte, taldeak oso bide polita egin du, baina orain, urtea borobiltzea geratzen zaigu. Badakigu igoera fasea oso zaila izango dela, multzoan oso talde indartsuak izango ditugu, baina taldea fisikoki eta mentalki prest dago. Ea azken egunean hondartzara zerbait ospatzera joan gaitzkeen".



MARIA UBARRETXENA
ARRASATEKO ALKATEA

"Iaz sekulako denboraldia egin zuten eta aurten ere iazkoa hobetzeko bidean dira. Arrasaterendako gauza ederra da herriko saskibaloia taldeak gure herriaren izena halako maila altuko fase batera eramatea, eta seguru nago Saloun lortuko dutela helburua. Zortetik onena opa diegu, eta irabaztera!".



IDOIA PEÑAKOBA
MU-KO IDAZKARI NAGUSIA

"Babesle moduan oso pozik gaude lorpen honekin, eta nabarmendu behar da hau ez dela zorte onaren ondorio, urteetako lanaren emaitza da. Azken hamalau urteotan izan gara lan horren testigu, 2007an hasi ginen-eta taldea babesten. Izan ere, Ointxe!-ren filosofiarekin eta balioekin bat egiten du MUK".

dintzak konpontzeko izan zuen denbora ezagatik, igoera hori bertan behera geratu zen. Aurten MUK bere merituegatik lortu du multzoko txapelduna izatea eta igoera fasean joka-

LIGAN HAMASEI PARTIDU IRABAZI DITU MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, ETA LAU GALDU

tzeko postua irabaztea. Bi aste baino lehen jakingo dugu klubeko zuzendaritzakook lanean hasi behar dugun; hau da, datorren denboraldian Zilarrezko LEB Mailan izena ematen duten Autonomia Erkidegoko klubetan izango garen ala ez", adierazi du Oihane Agirre presidentea. Urte arraroa izan da, zaleek ezin izan dute moreek egin duten urte ederraz kantxan gozatu, baina oraindik onena geratzen da.

Kontrario gogorra UDAk; zelai zaila Bergarak

FUTBOLA Zapatuan jokatu dute 'play-off'-erako sailkatu diren UDAk eta Bergarak joaneko partidua. Aretxabaletarrek Lesakako talde indartsua hartuko dute Ibarren, eta Añorgaren zelai txikian ahalegindu beharko dute Bergarakoek partidua irabazten

Xabier Urzelai ARRASATE

Denboraldiko momentu politenaz gozatzeko unea iritsi zaie Bergarari eta Aretxabaletari: *play-off*-a. Aretxabaletarrek, gainera, esperantza txikia zuten sailkatzeke, baina Bergarak joan den astean Mutrikun lortutako garaipenak (3-4) faserako txartela eman die errebotez. Horren harira, Bergarako entrenatzaile Jose Javier Barkerok aitortu dio GOIENARI harrituta zegoela aretxabaletarren zalantzekin: "Aretxabaletaren kontrako derbiaren ostean ere esan nuen Mutrikura irabaztera joango ginela, partidua berdintzera joatea oso arriskutsua zelako. Halakoetan emaitzarekin espekulatzen denean... txarrerako izaten da. Gainera, sailkapenean ondo geratzea komeni zitzaigun, ondoko multzoko indartsuenak sailhesteko. Mutrikura partidua serioa egitera joan ginen, irabaztera, eta, kostata, baina lortu genuen".

Hala, Barkerok aipatutako derbi hura 1-leko emaitzarekin amaitu ostean, UDAko entrenatzaile Mikel Larburuk ere ez zuen *play-off*-ean egoteko itxaropen handirik, eta joan den zapatuan pozarren hartu zuen Mutrikun gertatutakoaren berri: "Uste genuen gure aukerak gortu zirela, baina, azkenean, lortu dugu igoera fasean sartzea. Mesede ederra egin digu Bergarak, oso pozik gaude. Beti Gazte izango da gure lehen aurkaria, eta orain, partidua 180 minutukoak izango dira. Ibarren golik ez jasotzea izango da gaioetako bat".

Izan ere, Aretxabaletak ez du batere kontrario erraza, kategoriako oilar nagusia eta Lesakako Beti Gazte taldea (zapatua, 16:00): "Eurak dira faborito, multzoko lehenak izan direlako eta talde oso ona dutelako. 180 minutu iraungo duen partidua izango da eta gure



Aretxabaletaren eta Beti Gazteren arteko partidua bat, artxiboko irudi batean. GOIENA

helburua izango da etxean golik jaso ez eta itzulerako partidura bizirik heltzea", adierazi du Larburuk.

Bergarak Rezolan du hitzordua

Bergara UDA baino hobeto sailkatu da igoera faserako, eta, hasiera batean, ez du horren kontrario gogorra: Añorga (zapatua 19:00). "Añorgak ez ditu Beti Gazte edo Hernanik dituen maila oneko jokalaririk, norgehiagoka detaile batekin erabaki dezaketena, baina talde moduan oso indartsuak dira,

eta, gainera, oso ohituta daude Rezolan puntuak batzera. Alderaketa bat eginda, Antzuolako Eztala futbol zelaiaren antza du Rezolak, edozein jokaldi izan daiteke arriskutsua, baloi geldiko jokaldi bat, estrategiakoak... Urrea ateratzen dute futbol zelai horretan. Horregatik, ezin gaitzke joan hara partidua berdintzera, pentsatuz, ondoren Agorrosinen norgehiagoka irabazita kanporaketa gaindituko dugula. Kanporaketak 180 minutu ditu eta Añorgaren zelaira garaipen bila joango gara".



MIKEL LARBURU
UDA-KO ENTRENATZAILEA

"Beti Gazte da faboritoa; euren multzoan onenak izan dira, baina gure helburua da zapatuan etxean golik ez jasotzea eta han erabakitzea".



JOSE JAVIER BARKERO
BERGARAKO ENTRENATZAILEA

"Ez dakigu emaitzarekin espekulatzen, Donostiara partidua irabaztera joango gara, Mutrikuren kontra egin genuen moduan".

Mondrak kanporaketa bat gainditu behar du Kopan egoteko

FUTBOLA Euskaldunaren kontra jokatu du Arrasateko taldek bihar, zapatua, Mojategin, 16:30ean

X.U. ARRASATE

Liga txapelketa amaituta, Gipuzkoako bederatzi talde daude denboraldi amaiera hau Koparekin itxuratzeko asmoarekin. Hau da, ez dute lortu *play-off*-etarako sailkatzea, eta denboraldiari agur esan aurretik Kopan dute poztasunen bat jasotzeko azken aukera.

Arrasateko taldea dagoeneko datorren denboraldia prestatzen dabil, ligako azken jardunaldian Ander Romerok hartu zuen talde zuri-morea zuzentzeko ardurara, baina helburua epe ertaine-

ra begira dute. Ilusioa dute, baina, Kopa txukuna egiteko, eta txapelketa hasi aurretik jaso dute lehenengo berri txarra: gainontzeko taldeek baino kanporaketa bat gehiago gainditu beharko dute. Izan ere, Kopa antolatzeke zortzi talde behar dituzte, bederatzi daude orain, eta Mondrak eta Euskaldunak kanporaketa partidu bidez lortu beharko dute torneoan egoteko txartela. Oiartzun, Allerru, Ordizia, Urola, Touring, Mutriku eta Amaikak Bat dira gainontzeko taldeak.


MENDIKO BIZIKLETA

Musakolako martxa, bertan behera

Arrasateko Musakola auzoko jaien bueltan antolatzen duten mendiko bizikleta martxa bertan behera uztea erabaki dute antolatzaileek. Azken urteotan sekulako parte-hartzea egon da martxa horretan, baina, pandemia egoerako datuak zeintzuk diren ikusita, aurten ere hitzordua bertan behera uztea erabaki dute: "2022an itzuliko gara".

ZIKLISMOA Ekainaren 13an egingo dute Uzarragako Igoera

Hasiera batean, martxoaren 20an egin behar zuten lasterketa, baina pandemiak eta Antzuolako eta inguruko herrietako intzidentzia-tasak eraginda atzeratu egin zuten lasterketa. Orain, antolatzaileek erabaki dute gazte mailako lasterketa ekainaren 13an egitea. Iazko ibilbide berbera izango du probak, 59 kilometrokoa.



EMF

Kortazar, Espainiako txapeldun

MENDI LASTERKETAK Jaenen egin zuten, domekan, Espainiako lineako txapelketa. Emakumezkoetan sekulako lehia izan zen aurreko postuetan; 28 kilometroko ibilbide gogorraren ondoren, Oihana Kortazarrek 17 segundoko aldea atera zion Maite Maiorari, eta proba irabazi zuen.

Udalbiltzaren 'Geuretik sortuak' ekimena, abian

Sormen-egonaldietan ekoiztutako obrekin egingo duten hedapen-zirkuituaren bidez euskal kultura lehen lerroan jarri gura du ekimenak; Oñatin Zuberoako Bon Bon Noir antzerki taldea izango da eta Iruñeko margolari eta aktore Oier Zuñiga, Bergaran

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Euskal Herri osoko hainbat udalerrik osatzen duten partzuergoa da Udalbiltza. Euskal Herriaren kohesioa helburu, askotariko proiektuak bultzatzen ditu hainbat arlotan; *Geuretik sortuak* da kultura arloan abiatu duten estreinako proiektua.

COVID-19ak sortzaileen bizi eta lan baldintzak asko zaildu ditu, baina lehenago ere ez zen, orokorrean, gura besteko ona, eta egoerarekin kezkatuta lanean hasi zirela kontatu du *Geuretik sortuak* ekimeneko arduradun Libe Hernandok: "Kultura ekoizpen handia dago Euskal Herrian, baina beste herrialde batzuetatik datozen ekoizpen handiek mehatxatuta dago. Proiektuarekin euskal kultura lehen lerroan jarri nahi dugu, euskaraz egiten duten kulturagileei laguntza emanez eta kultura Euskal Herriko ahalik eta bazter gehienetara eramanez".

Hiru arte diziplina

Urtarrilean ireki zuten artisen beka-deialdia, eta 73 proposamen artistiko jaso zituzten: 21 literatura lan, 24 antzezlan eta 28 film labur. "Artistei proposatzen zitzaiena, guztiz berritzailea izateaz gain, ez zen lan makala: zein herritara joango ziren jakin



Udalbiltzako eta Oñatiko Udaleko ordezkariak ekimenaren hitzarmena sinatzen. M. S.

gabe, euren proposamen artistikoa azaltzean zetzan, baita eremu ezberdinetara egokitzeke malgutasun planteamendu bat aurkeztean ere".

Hamar pertsonaz osatutako epaimahaiak 26 artista hautatu zituen; horien artean, izen handiko kulturagileak eta ezezagunagoak ere bai. "Heterogeneotasuna bermatu da hautaketan, proposatutako gaien, adin-tartearen eta lurraldetasunaren aldetik, baita genero parekidetasuna ere. Proposamen horiek, gero, ekimenarekin bat egin

duten 26 zonatan aurkeztuko ditugu –26 udalerrri baino gehiago dira; izan ere, herri batzuek elkarrekin hartuko dute parte; eta baliteke beste eremu batzuetara ere zabaltzea".

Oñatin, Zuberoako Bon Bon Noir
Zuberoako antzerki taldekoak dagoeneko harremanetan ari dira ekimeneko Oñatiko ordezkariarekin egonaldiak noiz eta zelan egin adosteko. "Herriko elkarteak eta bestelako eragileen eta sortzaileen arteko zubi-lanak egiten lagunduko dute ordezkari

ri horiek. Gehienez 21 eguneko egonaldiak izango dira eta ez dute zertan jarraian egin".

Zuberoako Bon Bon Noir antzerki taldeak Oñatiko historian, bizipenetan eta anekdotetan arakatuko du. "Ilusio handia egin digu talde horrek parte hartzea; izan ere, Akitania Berrian ibili dira, bereziki, orain artean, eta, euskaldunak badira ere, gehienbat frantsesez egiten dute lan. Euskaraz sortzera animatu dira, eta erronka da errentzako. Taularen gainean bi aktore izango dira eta umore absurdoaren bitartez sortuko duten antzezlanak eskainiko dute".

Oier Zuñiga, Bergaran

Iruñeko margolari eta aktore gazte eskarmentudun Oier Zuñigak, berriz, Bergaran egingo du egonaldi artistikoa, eta hasi da hura ere Bergarako ordezkariarekin lehen hartu-emanetan. "Asko harritu eta gustatu zaigun proiektua aurkeztu du iruindarrak. Dolua gaitzat hartuta, ikuskizun bat sortzeko asmoa du, antzerkia eta dantza fusionatzen duena. Hiru lagun bakarrik izango dira taularen gainean. Proposamen soil besteko polita dela iruditzen zaigu. Lanak egiteko epe ezberdinak izango dira diziplinaren arabera, antzerkiaren alorrekoek urtarilerako bukatuta egon behar dute eta otsailetik aurrera taularatzea litzateke asmoa".

Hasiera sinbolikoa, Oiartzunen

Egonaldi artistiko batzuk hasita dauden arren, ofizialki, modu sinbolikoan emango diote hasiera maiatzaren 20an Oiartzunen egingo duten ekitaldiarekin. "Mugatua izango da; ekimeneko artistendako, herrietako ordezkariendako eta komunikabi-deendako bakarrik izango da".

Aldundiak, 'Piztu Kultura 2021' plana

5.545.000 euro bideratuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak *Piztu Kultura 2021* planera, COVID-19aren eraginez kultur sektoreak bizi duen krisi larriari aurre egiteko. "Kultur jardueraren zati handi bat gelditu egin da; kultura proiektuak lagundu nahi ditugu, horien sare soziala babesteko eta krisiaren ondorioak arintzeko, eta, horretarako, 1.495.000 euro gehiago xedatu dira iazko ekitaldiarekin alderatuta", azaldu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuko diputatu Harkaitz Millanek.

Bost jarduera-ildo nagusi

Kultura eragileek egin dituzten proposamenak hartu ditu aintzat planak. "Informazio eta aholkularitza mekanismoak indartzeko beharra dago. Zerbitzu hori K-Bulegoaren bidez ematen da, kultura jarduerarako laguntzak eta babesak errazago eskuratu ahal izateko".

Bost jarduera-ildo nagusi ezarri dituzte: kultura sarerako laguntzak; udaletarako eta museoetarako laguntzak; sortzaileentzako laguntzak; enplegua sustatzeko laguntzak; eta proiektu estrategikoetarako.

GOIENA: 20 URTE DEBAGOIENEAN TOKIKOM: 10 URTE EUSKAL HERRIAN

GOIENA TELEBISTA

MAIATZAREN 7AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN
ERREPORTAJE BEREZIA



Erreportajea
ikusgai
on-line.

goiena
Zu hemen zaude.



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Oñati. Atikoa salgai Atzeko kalean. Bi logela, bainugela eta sukalde-egongela. 43 metro koadro. Horrez gain, 14 metro koadroko terraza, 10 metroko bi ganbara eta 12 metroko garajea. Prezioa: 200.000 euro. 605 72 64 43 edo 696 36 97 17

102. EROSI

Baserría Oñatin. Oñatin baserri bila gabiltzan Oñati familia bat gara. Telefonoa: 653 01 71 65

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Erdigunean edo San Andresen garajea edo ganbara bat hartuko genuke errentan, prezio onean. 650 96 23 08

Arrasate. Familia bat gara eta hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. Horrelakorik izanez gero, deitu zenbaki honetara. 688 63 46 24

Bergara. Hiru logela eta igogailua dituen etxebizitza errentan hartuko nuke. 660 46 34 93 (Marian)

Bergara. Neska bergarra errentan hartzeko etxebizitza bila. Presazkoa da. 690 75 61 18

Udarako baserri bila. Uztaila eta abuztua Debagoieneko baserri edo etxeren baten pasatu nahi dugun familia bat gara. Deitu zenbaki honetara: 666 68 43 37

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Ibargarai kalean, ostialetik astelehen goizera arte, garaje plaza bat ematen da errentan. Aparkatzeko oso erosoa eta prezio onean. Telefonoa: 609 41 32 11

3. LOKALAK

301. SALDU

Oñati. Merkataritza-lokala saltzen da, Kale-zaharra kaleko 50. zenbakian. 110 metro koadro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 21 51 71

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Menpekotasuna duen 76 urteko emakumeari oinarrizko zereginetan eta irteeretan lagundu eta etxeko lanak egiteko emakumezko baten bila gabiltza. Goizez, 3 orduz, eta menpekotasuna duten pertsonen

laguntzeko ziurtagiri ofizialduna. Jarri kontaktuan Whatsapp bidez, 15:00ak eta 21:00ak bitartean. 680 61 96 99

Bergara. Adineko emakumea zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume bat kontratatu nahiko genuke. Egunez, eta astelehenetik ostiralera betetzeko lana izango da. 606 12 14 31

Bergara. Soziosanitario titulua duen neska euskalduna behar dugun pertsona nagusia zaintzeko, Bergaran. Autoa ezinbestekoa. Informatzeko, idatzi Whatsapp mezua edo deitu zenbaki honetara: 629 55 58 08

Etxeko langilea Antzuol. Asteburuan autonomoa den pertsona nagusi bat zaintzeko emakumea behar da. Soziosanitario titulua beharrezkoa. 696 17 90 64

402. ESKAERAK

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan egin nahi dut, egunean zehar. Garbiketa lanetarako ere prest nago. 685 46 91 11

Bergara. Emakume euskalduna, soziosanitario titulua daukana, eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan lan egiteko. 656 74 78 43

Bergara. Nagusiak zaintzeko prest, arratsalde, orduka zein asteburutan eta bertan bizi izaten baita. 688 74 00 14

Debagoiena. Arratsaldetan, edo asteburu zein jai-egunetan zaintza lanak egingo nituzke. Baita ere estetika arloan, titulazioa daukat-eta. Autoarekin. 631 98 15 50

Debagoiena. Asteburuetan pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 688 81 08 63

Debagoiena. Asteburuetan, orduka zein jardun osoz, lan egingo nuke. Zaintzan, garbiketan eta abar. 632 25 27 26

Debagoiena. Denetariako garbiketak egiten eta ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 632 12 42 42

Debagoiena. Egunean zehar, asteburu eta gauean nagusiak zaintzeko gertu nago. 662 02 45 80

Debagoiena. Emakume agertu jende nagusia zaintzeko arratsalde.

Zaintzaile titularekin. 696 84 19 51

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 661 04 51 49

Debagoiena. Erizain teknikari laguntzaile titulazioa duen emakumea, esperientziarekin eta arduratsua, ospitalean gauak pasatzeko eskaintzen da. 695 02 08 92

Debagoiena. Esperientzia duen neska gertu nagusiak zaindu edota garbiketak egiteko. Telefonoa: 697 86 49 00

Debagoiena. Esperientzia duen neska nagusiak zaintzeko gertu. Telefonoa: 602 31 98 60

Debagoiena. Garbiketan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 631 26 22 51

Debagoiena. Gauzez edo orduka pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago. Soziosanitario titulua daukat. 659 90 85 13

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: nagusiei kalera lagundu, mandatuak egin eta abar. Baita denetariako garbiketak ere: tabernak, atariak, base-riak eta abar. Autoa daukat. 645 72 92 87

Debagoiena. Gizona nagusiak zaintzeko edota atari eta abarrak garbitzeko gertu. Soziosanitario titulazioarekin. Telefonoa: 643 73 62 36

Debagoiena. Lan bila nabil: baserrian, nagusiak zaintzen, garbiketan eta abarrean. Garbiketa titulazioarekin. 632 28 52 37

Debagoiena. Lan baime-na daukat eta pertsona nagusien zaintzan zein garbiketan jarduteko prest nago. 606 64 16 09

Debagoiena. Mutil arduratsua lanerako gertu: eraikuntzan, lanbide astun zein arinetan, joskintzan, garbiketan...612 28 05 29

Debagoiena. Mutila gertu etxean bizi izaten, egunez zein orduka lan egiteko. 633 49 27 40

Debagoiena. Mutila gertu margolari, igeltsero, elektrikari, administrari, zaintzaile edota garbitzaile jarduteko. Legezko agiriekin. Deitu 695 40 56 65 telefonora.

Debagoiena. Mutila lanerako prest. Esperientzia dut eraikuntzan, zaintzan edota banatzaile lanetan. 677 29 87 99

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu arratsaldetan, gauean edota asteburuetan egun osoz. Soziosanitario titulazioarekin. 612 49 66 57

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. Ordu-tegi arazo barik. 631 19 75 84

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. Ordu-tegi arazo barik. 632 37 65 40

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen jarduteko gertu nago, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Titulazioa daukat. 611 18 91 55

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten, gauzez eta astebukaeratan. Baina egun osoa izaten bada ere, ondo. 626 91 49 04

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila. Esperientzia daukat garbiketan, nagusiak edota

umeak zaintzen. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Berehala hasteko moduan. 678 12 28 56

Debagoiena. Neska bat gertu, astelehenetik ostiralera gauzez eta asteburu eta jai egunetan, nagusiak zaintzeko. 647 31 48 17

Debagoiena. Neska euskalduna lan bila: fabrikari, dendar, ostalaritzan, zaintzan eta abar. Telefonoa: 656 79 28 37

Debagoiena. Neska gertu umeak eta nagusiak zaintzeko. Orduka, gauzez, egunez zein ospitalean. Baita etxe edo atariak garbitzeko ere. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiriak daukat. Esperientzia eta gomendio gutunak. Autoa ere bai. 603 64 98 53

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 672 55 67 35

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago; orduka edo etxean bertan bizi izaten. 610 99 70 46

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan eta garbiketa lanetan eskarmentu handia duen neska naiz. 631 86 83 69

Debagoiena. Zaintzan lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten. Legezko agiriekin. 602 12 79 79

8. DENETARIK


801. SALDU

Lursailak. Lursailak salgai eta errentan ematen dira Aretxabaletan. Telefonoa: 618 76 34 40

806. GALDU

Lepokoa Arrasaten. Lepokoa galdu nuen apirilaren 26an, Seber Altube, Arbolapeta, Munar, Fagor eta Zerrajerarako ibilbidean. Gurutze formako txapa bat du, eraztun batekin. Ezkontza eguneko data eta Dori eta Monchu izenak agertzen dira atzean. Balio sentimental handia du. Sarituko da. Ikusi eta bilatu baduzu, eskertuko nuke BAZera eramatea edo deitzea: 657 19 84 41

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



'GOIENAK 20 URTE DEBAGOIENEAN' ERREPORTAJEA
'Bereziak' Egubakoitza, 21:30.



OIHANA KORTAZARRI ELKARRIZKETA

'Harmailatik' Astelehena, 21_30 eta 23:30

EGUBAKOITZA, 7

08:00 Hemen da Miru 31
08:30 Harmailatik
09:00 EKT: Patxi Juaristi
09:30 Adinberri 50
10:00 Hemen Debagoiena
11:00 EKT: Patxi Juaristi
11:30 Hala Bazan: Maritxu Kajoi
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Hemen da Miru 32
13:30 Elkarrizketa: Aitor Bedialauneta
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Albisteak
15:30 EKT: Patxi Juaristi
16:00 Albisteak
16:30 Elkarrizketa: Aitor Bedialauneta
17:00 Albisteak
17:30 Adinberri 50
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Parea pareko
19:30 EKT: Patxi Juaristi
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Galdegazte: Paul Casal
21:30 Erreportaje: Goiena
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Zarramarra

ZAPATUA, 8

09:00 Galdegazte: Paul Casal
09:30 Zarramarra
10:45 Parea pareko
11:15 Asteko errepaso
12:00 Osoko bilkura: Oñati
13:00 Hemen Debagoiena
14:00 Elkarrizketa: Aitor Bedialauneta
14:30 Asteko errepaso
15:30 EKT: Patxi Juaristi
16:00 Hemen Debagoiena
17:00 Harira
17:30 Galdegazte: Paul Casal
18:00 Harmailatik
18:30 Zarramarra
19:45 Osoko bilkura: Oñati
20:00 Erreportaje: Goiena
20:30 Galdegazte: Paul Casal
21:00 Hemen Debagoiena
22:00 Elkarrizketa: Aitor Bedialauneta
22:30 Erreportaje: Goiena
23:00 Harira
23:30 Hemen Debagoiena

DOMEKA, 9

08:00 Hemen da Miru 33
08:30 Hemen da Miru 34
09:00 Hemen da Miru 32
09:30 Parea pareko
10:00 Zarramarra
11:15 Hemen Debagoiena
12:00 Asteko errepaso
13:00 EKT: Patxi Juaristi
13:30 Harira
14:00 Erreportaje: Goiena
14:30 Zarramarra
15:45 Hemen Debagoiena
16:30 EKT: Patxi Juaristi
17:00 Harmailatik
17:30 Hemen da Miru 34
18:00 Osoko bilkura: Oñati
19:00 Zarramarra
20:15 Hemen Debagoiena
21:00 Harmailatik
21:30 Asteko errepaso
22:30 Zarramarra
23:45 Galdegazte: Paul Casal

EGUBAKOITZA, 7

'ZARRAMARRA' UMOREZKO SAIOA

'Bereziak'

23:00

MARTITZENA, 11

ELKARRIZKETA SAIOA ENEKO AZKARATEREKEN

'Harira'

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/ *televista* Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 12



KAZETARI GAZTEAK PERU ABARRATEGIREKIN

'Galdegazte'

21:30/23:30

EGUAZTENA, 12

IMANOL UBEDARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa'

21:00/23:00

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ESKER ONA

Carmen Baños Goitia



2021eko apirilaren 24an hil zen, 79 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, maiatzaren 8an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2021eko maiatzaren 7an.

ESKER ONA

Maria Rosario Errasti Idigoras



2021eko apirilaren 26an hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2021eko maiatzaren 7an.

ESKER ONA

Santi Mugica Fontecha



2021eko maiatzaren 1ean hil zen, 61 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2021eko maiatzaren 7an.

HILDAKOAK

Roman Nuñez Rollon. Arrasaten, apirilaren 23an. 72 urte.
Estefania Jimenez Miguel. Aretxabaletan, 23an. 92 urte.
Ana Carrasco Luque. Eskoriatzan, apirilaren 23an. 86 urte.
Herminia Herraez Gomez. Eskoriatzan, 23an. 87 urte.
Begoña Arana Gartziaetxabe. Aretxabaletan, apirilaren 24an. 80 urte.
Carmen Baños Goitia. Oñatin, apirilaren 24an. 79 urte.
Felix Biain Biain. Oñatin, apirilaren 25ean. 89 urte.
Maria Rosario Errasti Idigoras. Aretxabaletan, apirilaren 26an. 90 urte.
Jesus Mari Ezkurra Pagoaga. Arrasaten, apirilaren 27an. 69 urte.
Jose Luis Merino Ramos. Arrasaten, apirilaren 27an. 63 urte.
Mari Cruz Uriarte Elorza. Bergaran, apirilaren 27an. 91 urte.
Celedonia Saiz Linaje. Arrasaten, apirilaren 28an. 87 urte.
Jose Luis Costa Vazquez. Bergaran, apirilaren 28an. 65 urte.
Miren Elkoru Ansola. Elgetan, apirilaren 28an. 90 urte.
Vicenta Alcaide Velasco. Arrasaten, apirilaren 30ean. 82 urte.
Margarita Guisado Garcia. Aretxabaletan, apirilaren 30ean. 83 urte.
Santi Mugica Fontecha. Antzuolan, maiatzaren 1ean. 61 urte.
Josefa Sanchez De Jesus. Arrasaten, maiatzaren 1ean. 85 urte.
Amaia Mayora Gantxegi. Bergaran, maiatzaren 1ean. 84 urte.
Itziar Telleriarte Oregi. Bergaran, maiatzaren 1ean. 58 urte.
Clara Ceciaga Olalde. Arrasaten, maiatzaren 3an. 92 urte.
Alejandro Perez Lara. Aretxabaletan, maiatzaren 4an. 81 urte.
Jose Luis Arrate Riaño. Arrasaten, maiatzaren 5ean. 87 urte.

ESKER ONA

Jose Luis Arrate Riaño



2021eko maiatzaren 5ean hil zen, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2021eko maiatzaren 7an.

ESKER ONA

Jesus Mari Ezkurra Pagoaga



2021eko apirilaren 27an hil zen, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi eskerrik asko, etxekoen izenean.

Ondra meza domekan izango da, maiatzak 9, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Gure bihotzean egongo zara betirako.

Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.
Arrasaten, 2021eko maiatzaren 7an.

URTEURRENA

Isabel Uribesalgo Akizu



2020ko maiatzaren 15ean hil zen, 75 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, maiatzak 9, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2021eko maiatzaren 7an.

OROIGARRIA

Guiomar Fernandez Aguirre



2012ko maiatzaren 12an hil zen, 35 urte zituela.

Alaitasunez poztu izan duzu zuk beti gure tristura.
Hurbilekua beti, etxeko, ederra zure lotura.
Familia eta lagunetikiko ardura, guztiongan sortuz lilura.
Orain gero arte esan arren ere ez dugu negarik egin gura, haize freskoz etorri zaitezzen goizero gure ingurura.

Bergarako eta Gernikako familia.
Bergaran, 2021eko maiatzaren 7an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 7 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Zapatua, 8 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Domeka, 9 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Astelehena, 10 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Martitzena, 11 ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguaztena, 12 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguena, 13 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 7 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Zapatua, 8 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Domeka, 9 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Astelehena, 10 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Martitzena, 11 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguaztena, 12 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguena, 13 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05

ORATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 7 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 8 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 9 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 10 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 11 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 12 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 13 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2021eko abuztuaren 15era arte:
ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2021 osoan:
ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gudan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. Ez-jaiak San Andresen

Arrasateko auzo horretan hainbat ekintza egin zituzten aurreko asteburuan. Pepi Gorosabel auzo-alkatearen pregoia entzun ostean, askotariko ekintzak egin zituzten.

2. 'Hi gazte!' Arrasaten

Arrasateko Arizmendiko ikasleek parte hartu zuten dinamikan. Kai Nakaik eta Maialen Sorzabalberek gidatu zuten saioa, eta sarerako ikus-entzunezkoak sortu zituzten.

3. Mendira bizikletarekin

Berrogei lagun inguruk parte hartu zuten Besaideren bizikleta irteeran, Arrasaten. Garagartzan elkartu, eta Besaidetik eta Udalatik igaro ziren, besteak beste.

4. Ipuin kontalariarekin gozatzen

Apirilaren 29an izan zen Dorleta Kortazar ipuinak kontatzen Oñatin. Saioan egondako neska-mutikoek adi-adi jarraitu zituzten kontalariaren istorioak.

5. 25 urte ezkontuta

Joxe eta Miren arrasatearrak ospakizunetan daude: zilarrezko ezteiak bete dituzte. "Zorionak, bikote! Beste 25 urteren bila. Besarkada handi bat, familiaren partetik".



5

ZORION AGURRAK



ANTZUOLA
Irati Sudupe Larrea
Maiatzaren 11n, 10 urte. Zorionak, maitia! Besarkada eta patxo handi bat zure familiaren partetik! Ondo-ondo pasatu eguna eta disfrutatu!



OÑATI
Elena Arrazola Aranburu
Maiatzaren 9an, 3 urte. Zorionak, Elena! Alkarrekin disfrutatuko dogu egun berezi hau. Txokolategko muxu pila, maite zaitugun guztion partetik.




ARRASATE
Naia Martinez
Maiatzaren 9an. Zorionak, maitia! 12 urte betetzen dituzu. Gure etxeko printzesa zara. Jarraitu horrela! Izugarri maite zaitugu. Patxo handi bat etxeko guztion partetik.



BERGARA
Oihan Beloki Iñarra
Maiatzaren 9an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo handi bat etxeko danon partetik!



BERGARA
Erik Gartzia Perez Alvarez
Maiatzaren 8an, 10 urte. Zorionak urte askotarako, Erik! Belarritik 10 tirakada eta patxo handi bat familia guztiaren partetik.



ARETXABALETA
Xabier Carbao Alvarez
Maiatzaren 8an, 8 urte. Zorionak, Xabier! Ondo pasatu zure eguna. Besarkada eta patxo handi-handi bat Markel eta Lararen partetik!




OÑATI
Aiantze Arregi Orueta
Maiatzaren 7an, 11 urte. Zorionak, potxola! Disfrutatu lagunekin eta familiariarekin! Patzar bat etxekuen eta, bereziki, Iraiaren eta Aneren partetik. Mua!



BERGARA
Garazi Lonbide Retegi
Maiatzaren 7an, 8 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat etxeko guztion partetik!



ARRASATE
Nora Biain Ibarluzea
Maiatzaren 7an, 4 urte. Zorionak, Nora! Mosu potolo bat etxekoen eta lagun guztien partetik!



OÑATI
Mara Mugarza Urizar
Maiatzaren 7an, 12 urte. Aupa, Mara! 12 urte bete dittu gure maiatzeko lorerik polittena. Etxeko danon partetik muxurik handixena zuretako. Izugarri gura du, infinituraino.



BERGARA
Erik Beistegi Alvarez
Maiatzaren 7an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo handi bat hainbeste maitte zaitugun denon partetik eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



ARRASATE
Lore Sanchez
Maiatzaren 6an, urtebetetzea. Zorionak, Lore! Garbitasuneko neskari ederrenarentzat, muxu bat! Usoa.



BERGARA
Maria Gonzalez Martinez
Maiatzaren 5ean, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, maitia! Muxu handi bat aitatxoren eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
Laia Rodriguez Alberdi
Maiatzaren 7an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Putz handia egin bost kandelak itzaltzeko! Muxu potolo bat etxeko guztien partetik. Asko maite zaitugu!



ARRASATE
Andde Leibar Belinchon
Anddek 7 urte, maiatzaren 5ean. Zorionak etxekoen danon partetik. Muxu potolo bat.



ARRASATE
June Andres Lopez
Maiatzaren 4an, 3 urte. Zorionak, *pototi*! Gure printzesak hiru urte betetzen ditu. Besarkada eta muxu handi-handi bat zure familiaren partetik. Asko maite zaitugu!



OÑATI
Ane Urigoien Osa
Maiatzaren 3an, 8 urte. Zorionak, Anetxo! Egun politta pasatu. Patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
Odei Otxoa Diaz de Guereñu
Maiatzaren 2an, 4 urte. Azkenean zure eguna heldu da. Zorionak! Muxu asko familia osoaren partetik.



ARRASATE
Aintzira Abasolo Zugasti
Apirilaren 30ean, 13 urte. Zorionak, sorgintxo! Besarkada bat danon partetik eta segi holako neska jatorra izate! Patxo handi bat!



ARETXABALETA
Igotz Cantera Herrasti
Apirilaren 30ean, 9 urte. Zorionak, Igotz! Ondo pasatu zure eguna eta patxo pila bat, etxeko danon partetik! Maite zaitugu.



ARRASATE
Unai Uribeetxeberria Errasti
Apirilaren 30ean, 2 urte. Zorionak, Unai! Konturatu orduko bi urtetxo bete dittuzu! Jarraitu bizitzaz gozatzen beti bezain alai! Patxo handi bat amatxo, aitatxo eta, batez be, Julenen partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



OÑATI
Gari Letamendi Mugarza
Apirilaren 29an, 2 urte. Zorionak, Gari! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta betiko moduan, alai-alai izaten jarraitu. Patxo handi bat familia danaren partetik.



BERGARA
Natalia Murillo
Apirilaren 29an, 50 urte. Zorionak, *Sister*! 50 urte ez dira betetzen egunero! Primeran pasatu zure eguna. Etxekoen partetik. Muak!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 7

ARAMAIO 'Zume bizia landatuz jolasgune berdeak sortzen' ekimena

Eskolako neska-mutikoek azalpenak emango dituzte.
Parkean, 16:00etan.

ESKORIATZA Udaleku irekien diseinua, haurrekin

Helburua da aurtengo hainbat ekintza haurrekin diseinatzea.
Tortolisen, 17:00etan.

ARRASATE 'Izaki bereziak' txotxongilo ikuskizuna

Helduendako, eta mutua, Liburuaren Egunaren harira.
Kulturaten, 19:00etan.

ARETXABALETA Bertso saioa
Oihana Arana, Martin Abarrategi, Bepiat Lizaso eta Nerea Ibarzabal bertsotan, Lekaixoka Bertso Eskolako gonbidatuta. Sarrerak, hiru euro.
Arkupen, 19:00etan.

ZAPATUA 8

ANTZUOLA Trekutzereta eta Arrolara martxak

Sarek deituta, Izan Bidea ekimenaren baitan.
Herriko Plazan, 09:00etan.

BERGARA Bigarren eskuko azoka

Bigarren eskuko azoka.
Osintxun, 10:00etan.

ELGETA Azkonabetara eta Egoarbitzara martxak

Sarek deituta, Izan Bidea ekimenaren baitan.
Mendizaleen plazan, 10:00etan.

OÑATI Ludoteka ibiltaria

Aurreko saioetako portaideek proposatutako ekintzak egingo dituzte, 3 eta 8 urte artekoek.
Txalokan, 11:00etan.

ARAMAIO Lorabarri Asteko azoka

Bigarren eskuko azoka eta Aramaioko ekoizleen produktuak.
Bizente Goikoetxea plazan, 11:00etan.

OÑATI San Migel Txikixak

11:00etan, haurrendako jolasak; 12:00etan, etxafuego jaurtiketa eta txistularien kalejira; 12:30ean, bertsoz bertso; 13:00etan, marianito ordua balkoietan; eta 17:30ean, Potx magoa.
Kale Zaharrean.

ARETXABALETA Murugainera, Arangurenara, Erlaitzera, Arlutzereta eta Elorretako Haitzara martxak

Sarek deituta, Izan Bidea ekimenaren baitan.
Tontorretan, 11:30ean.

OÑATI Aloñara, Artzanburura, Arranoaitzera, Orkatzategira eta Andartora martxak

Sarek deituta, Izan Bidea ekimenaren baitan.
Tontorretan, 11:30ean.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria, Erguinen

3-12 urte artekoendako. Aurrez eman behar zen izena.
Itxaropena plazan, 11:30ean.

ARRASATE Txistu kontzertua

Arrasate Musikaleko Txistulari Bandaren eta txistu ikasleen saioa.
Kulturaten, 12:00etan.

ARAMAIO Gazte Eguna

Kulturaren gaineko hitzaldia eta okupazioen eta gune gestionatuen gaineko solasaldia, bazkal ostean.
Parkean, 12:00etan.

OÑATI Akordeoi emanaldia

Jose de Azpiazu Musika Eskolako ikasleen eskutik.
Lazarraga lorategian, 12:30ean.

OÑATI Igeriketa txapelketa

Zubikoako igerileku berrian egingo den lehen txapelketa.
Zubikoan, 15:30ean.

BERGARA Chill Mafia eta Ben Yarten

Emanaldi bikoitza egingo dute: 16:30ean eta 18:30ean.
Kartzela zaharrean, 16:30ean.

BERGARA 2021eko Giroko porra

Nork bere boligrafoa eramatea eskatu dute.
Irala kalean, 18:00etan.

BERGARA Ezpalak taldea

Kolpatu. Topatu diskoa aurkezteko. Sarrerak, zortzi eurotan, *Seminarixoa.eus* atarian.
Seminarixoan, 19:00etan.

ESKORIATZA 'Dardara' dokumentala

Marina Lameirok Berri Txarrak-en *Ikusi arte* biran grabatutako dokumentala. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

DOMEKA 9

OÑATI San Migel Txikixak

10:30ean, artisau azoka; 15:00etan, auzoko emakumeen brindisa; eta 17:00etan, Irene eta Asierren eta Andoni Ollokiegiren emanaldiak.
Irunberri plazan.

BERGARA 2021eko Giroko porra

Nork bere boligrafoa eramatea eskatu dute.
Irala kalean, 11:00etan.

ANTZUOLA 2021eko Giroko porra

Nork bere boligrafoa eramatea eskatu dute.
Koxkor tabernan, 11:00etan.

BERGARA 'Lazkano. Bitakora koadernoak' erakusketa

Margolari bergararraren hamaika lan ikusteko aukera, hilaren 23ra arte.
Aroztegin, 12:00etatik 14:00etara.

ARETXABALETA 'Zurginaren ipuina' antzezlanak

Iban Barrenetxeak idatzitako eta ilustratutako *El cuento del carpintero* liburuan oinarritutako lana, umeendako. Sarrerak, hiru euro.
Arkupen, 17:00etan.

ESKORIATZA Ipuin dantza, Oihan Vegarekin

Dantza bidez kontatutako istorioa 3-10 urte artekoendako. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibar antzokian, 17:30ean.

ELGETA 'Luze edo motz' bakarriketa

Mirari Martiarenarekin eta Idoia Torregarairekin. Hilekoa,



EZPALAK

BERGARA Ezpalak taldea

2019an sortutako taldeak *Kolpatu. Topatu* diskoaren aurkezpen kontzertua egingo du. Juanjo Berasainek, Eñaut Gaztañagak, Unai Eizagirrek eta Xabi Arrietak osatzen dute taldea. Sarrerak, zortzi euro.
Bihar, zapatuan, Seminarixoan, 19:00etan.

menopausia, ligatzeko teknikak eta sexua izango dituzte hizpide bakarriketa umoretsuan.
Espaloian, 18:30ean.

ARAMAIO 'Erroa eta geroa' dokumentala

Ane Gorosabel arrasatearrak emakume baseritarren gainean egindako lana. Ostean, solasaldia.
Kultura etxean, 19:00etan.

ASTELEHENA 10

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ESKORIATZA 'Mugikortasuna landa eremuan' topaketa

Irekia eta gaztelaraz. Izena emateko, *mm@conexionessimprobables.com* helbidea idatzi behar da.
Ibarraundi museoa, 18:00etan.

ARRASATE 'Nola lagundu gure seme-alabei emozioak identifikatzen, ulertzen eta kudeatzen' hitzaldia

Baikarako hezitzaile Nekane Jacintok egingo du berba, Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkartek gonbidatuta. Sarrera libre da, edukiera bete arte.
Kulturete, Arrasate 18:00etan

OÑATI 'Koronabirusa eta konfinamenduaren ondorioak' hitzaldia

Norgarako Virginia Espinek egingo du berba Guraso Elkarteen lan-mahaiak gonbidatuta.
Online, 18:15ean.

OÑATI Piano entzunaldia

Jose de Azpiazu Musika Eskolako ikasleen eskutik.
Santa Ana antzokian, 18:30ean.

MARTITZENA 11

BERGARA John Anduezarekin solasaldia

Ikastetxetako ikasleendako.
Seminarixoan, 09:00etan.

ARETXABALETA 'Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen' erakusketa

Ikusgai hilaren 31ra arte.
Arkupen, 12:00etan.

ESKORIATZA 'Alzheimerrarekin elkar-bizi' hitzaldia

Olazar Erretiratuen elkarteak gonbidatuta, Afagi elkarteko kide

lñaki Olaldek eta Koldo Aulestiak egingo dute berba.
Zaldibar antzokian, 17:30ean.

ARRASATE 'Baso-eskola proiektua' hitzaldia
Kutxa Ekoguneko Maialen Sistiagak egingo du berba, Mariaren Lagundiak gonbidatuta, aurrez aurre eta online.
Mariaren Lagundian, 18:00etan.

ARRASATE Mendi Film Tourreko film laburrak
Aterpean ateri, The Wurl, L'escalade liberee eta *Salto is the king* pelikulak emango dituzte. Sarrerak, bost euro.
Amaia antzokian, 18:30ean.

ANTZUOLA 'Bideak' dokumentala
Aritz Ganboa egongo da ekitaldian.
Torresoroan, 18:30ean.

OÑATI Literatura solasaldia
Cristina Moralesen *Lectura fácil* liburuaren gaineko saioa, Ane Zapaterok gidatuta.
Zinema aretoan, 18:30ean.

ARRASATE Ingelesezko literatura solasaldia
Laurie Lee idazlearen *Cider with Rosie* liburuaren gaineko saioa, Olwen Mearsek gidatuta.
Kulturaten, 18:30ean.

EGUAZTENA 12

BERGARA 'La vacuna filosófica para un tiempo complejo' hitzaldia
Txetxu Ausinek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Seminarixoan, 10:00etan.

BERGARA Odol ateratzea
Deialdi irekia.
Oxirondo azokan, 16:30ean.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Garaiko produktuak erosteko.
Oxirondon, 18:00etan.

OÑATI Txistu eta zeharkako txirula entzunaldia
Jose de Azpiazu Musika Eskolako ikasleen emanaldia.
Santa Ana antzokian, 18:30ean.

BERGARA 'Las niñas' pelikula, zineklubean
Jatorrizko bertsioan eta azpitutluekin.
Seminarixoan, 18:30ean.

OÑATI 'Peregrino modernoaren oporrak' dokumentala
Aimar Uribesalgo oñatiarrak turismoari buruz egindako lana.
Antixenean, 19:00etan.

ANTZUOLA 'Mendian hil, hirian hil' dokumentala
Doluari buruz lñaki Peñak egindako lana.
Torresoroan, 19:00etan.

EGUENA 13

ARRASATE Erorikoak prebenitzeko ikastaroa
Arrasateko Nagusien Kontseiluaren eskutik. Debalde, edukiera mugatuarekin. Aurrez eman behar zen izena.
Etxaluzen, 09:00etan.

ARRASATE Sasoibide irteera
Ginkana egingo dute, Arrasateko iturrietan.
Biteri plazan, 10:00etan.

OÑATI 'Ostegun Kontalariak'
Ipuin kontaketa saioa 6 urtetik gorako neska-mutikoendako, Ane Gebararekin. Aurrez hartu behar ziren gonbidapenak.
Haur liburutegian, 17:30ean.

ARETXABALETA 'Eraginkortasun altuko birgaitzea' tailerra
Ordu eta erdiko tailerra.
Online, 18:00etan.

OÑATI Trikiti entzunaldia
Jose de Azpiazu Musika Eskolakoen eskutik.
Santa Ana antzokian, 18:00etan.

OÑATI Perkusio entzunaldia
Jose de Azpiazu Musika Eskolakoen eskutik.
Gaztelekuan, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Energia berriztagarriak etxean' tailerra
Kontsumoa murriztearen, eraginkortasuna handitzearen eta energia berriztagarriak bultzatzeko

tresnen gainean jardungo dute. Izena emateko: argitu@gipuzkoa.eus edo 943-16 41 72.
Online, 18:00etan.

ANTZUOLA Harrera elkartearen hitzaldia
Jon Ugarte eta Josu Amantes preso ohiek egingo dute berba, Harrerako kideek gidatutako solasaldian. Edukiera mugatua.
Torresoroan, 18:30ean.

EGUBAKOITZA 14

OÑATI Odol ateratzea
Aurrez hartu beharko da txanda. Donostiatik mezua jaso dutenek egunean bertan deitu beharko dute ordua jakiteko. Besteek egunean bertan deitu beharko dute, 943-00 78 84 telefonora.
Enpresagintzan, 16:30ean.

ESKORIATZA 'Valentina' pelikula
Zinegoak 2021eko pelikularen emanaldiaren ostean, Hiruki Larroka Kolektiboko kide Joseba Gabilondo eskoriatzarrekin solasaldia. Edukiera mugatua. Izena emateko: 943-71 46 88 (kultura etxea) edo 650 49 51 66.
Zaldibarren, 18:30ean.

ANTZUOLA 'Abeltzaintza birsortzailea' hitzaldia
Itturbaltz ustiategiko Unai Alsa abeltzainak egingo du berba, naturarendako eta abeltzain zein nekazariendako lehengora bueltatzeak duen garrantziaz.
Torresoroan, 18:30ean.

BERGARA 'Artiko' filmaren aurkezpena eta emanaldia
Jesus Mari Lazkano egilea egongo da ekitaldian. Emanaldi bikoitza. 19:00etakorako ez dago sarrerarik.
Seminarixoan, 19:00etan eta 20:00etan.

ARETXABALETA "Granito Buffet. Vagabundos pirenaicos" ikus-entzunezkoa
Iñigo Iruretagoienak eta Iban Roucok Pirinioetako 214 hirumilakoak igotzeko egindako bidaiaren laburpena jasotzen duen lana. Sarrerak, hiru euro.
Arkupen, 19:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Otra ronda
Zapatua, domeka eta astelehena: 19:00.

Kapitain Sablehotz eta diamante magikoa
Zapatua eta domeka: 16:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Cuñados
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 18:30.

Ups 2
Domeka: 16:30.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Una joven prometedora
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.

EIBAR

COLISEO

Cronica de una tormenta
Zapatua eta

domeka: 16:00, 19:00.
Astelehena: 19:00.

Aquellos que desean mi muerte
Zapatua: 16:00, 19:00.

Una joven prometedora
Domeka: 16:00, 19:00.
Astelehena: 19:00.

ANTZOKIA

Una joven prometedora
Zapatua: 19:00.

Aquellos que desean mi muerte
Domeka eta astelehena: 19:00.

GASTEIZ

GORBEIA

Raya y el ultimo dragon
Egubakoitzetik domekara: 16:50.

Nomadland
Egubakoitzetik domekara: 19:10.
Astelehenetik egunera: 17:10.

Tom y Jerry
Egubakoitza eta zapatua: 17:10.
Domeka: 12:00, 17:10.

Godzilla vs Kong
Egunero, domeka izan ezik: 19:05.
Domeka: 12:00, 19:05.

Otra ronda
Egubakoitzetik domekara: 19:00.
Astelehenetik egunera: 16:50.

Mortal Kombat
Egunero, domeka izan ezik: 16:55.
Domeka: 12:00, 16:55.

Un joven prometedora
Egunero: 19:05.

Earwing y la bruja
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.

Nadie
Egunero: 19:25.
Chaos Walking
Egunero: 17:25.

Capitan diente de sable y el diamante magico
Egubakoitza eta zapatua: 17:20.
Domeka: 12:00, 17:20.

El señor de los anillos
Egunero: 17:30.

Tiburón blanco
Egubakoitza, zapatua eta astelehenetik egunera: 19:30.
Domeka: 12:00, 19:30.

Aquellos que desean mi muerte
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:20.
Domeka: 12:00, 17:20, 19:20.

Astelehenetik egunera:
16:50, 19:20.

El olvido que seremos
Egunero, domeka izan ezik: 16:55, 18:45.
Domeka: 11:45, 16:55, 18:45.

KRITIKA

El olvido que seremos ★★★★★
Zuz.: Fernando Trueba. **Herr.:** Kolonbia (2020). **Aktoreak:** Javier Cámara, Aida Morales, Patricia Tamayo. **Iraupena:** 136 minutu.

Gizaki onen argia

ANTONIO ZABALA

El olvido que seremos Hector Abad Faciolince idazle kolonbiarrak idatzitako eleberriaren izenburua da. Liburuan, idazleak bere aitaren bizitza kontatzen zuen. Fernando Trueba Kolonbiara joan zen istorioa zinemara egokitzera. Hector Abad Gomez mediku eta unibertsitateko irakaslea zen. Bere familiaz asko arduratzen zen, baina ez zituen ahazten etxetik kanpo zeuden arazoak. Kementsu borrokatu zen gizartean zeuden desberdintasunak konpontzeko, eta pertsona guztiek osasun-zerbitzu duina eduki zezaten. *El olvido que seremos* ikusterakoan, Truebaren *Belle Epoque* filma datorkit burura. Bi pelikulen tonuak oso desberdinak izanik *-Belle Epoque* filmean komedia

tonua nabarmentzen zen eta *El olvido que seremos* pelikulak dramatik dauka gehiago-, bi filmetako familia protagonistak oso antzekoak dira. Lehenengoan, Fernando Fernan Gomezek egiten zuen pertsonaia; Javier Camarak egiten du bigarrenean. Beraien etxean oasi antzeko bat sortu nahi dute, barruan daudenen artean askatasuna, alaitasuna eta bizikidetza bultzatzeko. Baina, halakoetan ohikoa den moduan, egunerokotasuna, errealitatea, ezusteak eta bizitzaren zailtasunak zirrikitu batetik sartzen dira beti. Hala, *El olvido que seremos* filmak gaixotasunek eta indarkeriak sortzen dituzten dramak helarazten dizkigu. Baina baita gizaki onek uzten duten argia ere.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Gipuzkoa, gorri; Madril, gori-gori

COVID-19a gure artean dagoenetik urte eta bi hilabete pasa dira. Gure eguneroko bizitza aldatzeaz gain, urtebete honek denerako eman du. Estrategia politiko berriak dantzan jartzeko ere izan dute aukera alderdi populistek. Honen lekukorik argiena Madrilgo hauteskunde kanpaina ikusi dugu. Ayuso Madrilgo Erregina bihurtu da, txotxongilo emanaldi batean arituko balitz bezala. Panpina aurpegia, Betty Boopen begi inozoak, egiazkoa ez den irribarrea eta hitzetan populista. Hauxe da madrildarrek gose-egarriz zeruetara igo duten Erregina. Beste batzuek ere aipatu dituzte zeruak politika helburuetan, nahiz eta infornuetatik gertuago geratu.

Podemoseko sortzailea ere Ayusoren pare dago populismoari dagokionez. Aparra edo bitsa berehala jaisten da, ordea, eta hala tokatu zaio Iglesiasi.

Oraingoa Madril urdinez jantzi bada ere, Gipuzkoa sanferminetako zapiak baino gorriago dago COVID-19 positiboek dagokienez.

Madrilen 1.000 biztanleko hildako kopurua 3,4 eta Gipuzkoan 1,3. Hor konpon madrildarrak haien populismoarekin; gu gurera. Ez gaude txantxetarako, egoera larrian ez dago populismoarentzat tokirik.

BUKATZEKO



Ainhoa Vitoria, Gaztea irratiko esataria. A. V.



Aiora Mujika, @probatxoa youtuberra. A. M.



Xabier Urzelai, Goienako kazetaria. GOIENA

Komunikatzen jolasteko nerabeentzako udalekuak

Komunikazio udaleku irekiak antolatu dituzte Mondragon Unibertsitateak eta Goiena Komunikazio Taldeak, estreinakoz; astebeteko bi txanda egongo dira, uztailako lehen eta bigarren asteetan, eta 'Goiena.eus' atarian eman daiteke jadanik izena

A. Aranburuzabala ARETXABALETA
Gazteak modu kritiko, praktiko eta dibertigarrian komunikazioaren mundura hurbiltzea da udalekuen helburua. "Komunikazioaren ikuspuntutik, gazteei interesekoak eta erakargarriak izan ahal zaizkien bideo grabaketak, kamera aurrekoak, youtuberrak, podcast edo entzuteko moduko eduki digitalak, argazkigintza... Halakoak jorratuko ditugu. Era berean, euren pentsamendu eta ikuspegi kritikoa ere landu gura da; komunikazio kanal ezberdinetatik jasotzen duten informazioa ku-

deatzeko tresnak eta estrategiak ikasiko dituzte; betiere, jolasean ari diren bitartean", azaldu du Mondragon Unibertsitateko Zuriñe Maguregik.

Kataluniako Ara egunkariaren Kazetaritza Campusaz gain, apenas dago halako proposamenik. "Kazetaritzara bideratua dago hura; gurean, ordea, komunikatzaile baten profil asko -kazetari, aurkezle, irratia esatari...- ezagutzeko aukera eskainiko dugu. Euskal Herri osora zabaldugu parte hartzeko aukera. Euskaraz izango dira, eta DBH-4ko eta batxilergoko lehen mai-

lako gazteei daude zuzenduta. Astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:30era izango dira eta bi txanda eskainiko ditugu", dio Goiena Komunikazio Taldeko Eneko Azkaratek.

Arloko adituekin
Aretxabaletako MURen Ikus-entzunezko Campusean egingo dira udalekuak, eta Goienara ere bisita egiteko asmoa dutela kontatu du Maguregik: "Antolatzaileok jarriko ditugu baliabideak,

bideo-ediziorako ekipoak, kameratele, telebistako platoak... Begirale eta koordinazio lanetan Goienako Aitor Agirianok eta biok jardungo dugu".

Landuko diren gaietan eskarmentua dutenek master-eskolak emango dituztela gaineratu du Azkaratek: "Izango ditugu Aiora Mujika, @probatxoa youtuberra; Ainhoa Vitoria, komunikatzaile eta Gaztea irratiko esataria; eta Goienako Xabier Urzelai, *mojo* edo eskuko telefono adimenduekin ekoiztutako ikus-entzunezkoen edukietan aditua".

Izen-ematea, zabalik

Ekainaren 18ra arte eman daiteke izena, Goiena.eus-en, eta 125 euro da ordaindu beharrekoa. Plaza mugatuak izango dira -txanda bakoitzean, gehienez ere, 25 lagun-.

Informazio gehiago: 600 04 66 89 zenbakira deituta edo *Komunikazioudalekuak@gmail.com* helbidera idatzita.

**Komunikazio
udaleku
irekiak.
2021**

ZARRAMARRA

GOIENA TELEBISTA

MAIATZAREN 7AN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN
IKER PLAZAOLAK GIDATUTAKO UMORE SAIOA
'GOIENA.EUS' ATARIAN ERE ZUZENEAN ETA ONLINE

goiena
Zu hemen zaude.

